



EUSKO LEGEBILTZARRAREN AUTOGOBERNUAREN LANTALDEA

TXOSTEN ESKAERA

*Euskararen estatusa euskararen eremuan: aukeren,
mehatxuen, indarguneen eta ahulezien analisisia
(AMIA) autogobernuarekiko erlazioan.*

Vitoria-Gasteiz, 2015eko iraila

1. SARRERA
2. EUSKARAREN BILAKAERA
 - 2.1. Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa
 - 2.2. V. Mapa Soziolinguistikoa
3. EUSKARAREN MARKO LEGALA
4. ESEP: ILDO ESTRATEGIKOEN AMIA
5. HIZKUNTZA PLANGINTZAREN ILDOAK
6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

Txosten honen bidez erantzuna eman nahi diogu Euskal Herria Bildu Taldeak Eusko Legebiltzarrean egindako honako eskaera honi:

Euskararen estatusa euskararen eremuan: aukeren, mehatxuen, indarguneen eta ahulezien analisia (AMIA) autogobernuarekiko erlazioan.

Hizkuntzaren estatusa aipatzen dugula, lehenik eta behin estatus juridikoaren garapena hartzen dugu kontuan. Alegia, gobernu batek hizkuntza egoera jakin batean esku-hartzea erabakitzen du hizkuntza hori gizartearen esparru guztietan erabilia izan dadin, eta horretarako behar den lege-markoa ezartzen du.

Txosten honetan euskararen estatus juridikoa ez ezik egoera soziolinguistikoa ere aztertuko dugu, hizkuntza egoeraren berri izatea ezinbestekoa delako, Gobernuaren esku-hartzea eraginkorra izango bada. Horrela, Euskararen Aholku Batzordeak 2014. urtean onartutako AMIAren berri emango da (Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ildo estrategikoen AMIA proposamenak), eta, azkenik, hizkuntzaren plangintza alorrean hartuko diren neurriei buruzko aipamena ere egingo da. Hortaz, txosten honetan euskararen estatusari dagozkien aspektu guztiak kontuan hartzen ahaleginduko gara.

Honako hau izango da txostenaren egitura:

- Abiapuntua euskararen marko legala izango da. Atal horretan jasoko dira EAEn euskararen esparruan dauden arauak: Europa mailakoak, estatu mailakoak zein toki mailako arauak.
- Euskararen egoeraren bilakaera aurkezteko, euskararen eremua hartzen duen tresna nagusiaren emaitzak jasoko dira: V. Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa, 2013. urtean argitaratu dena. Euskal Autonomia Erkidegoko informazioa osatzeko, V. Mapa Soziolinguistikoa berri ere emango da txosten honetan.
- Ondoren, Euskararen Aholku Batzordeak 2014. urtean onartu duen AMIA luzatuko dugu. AMIA Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren eskutik etorri da eta prozesu sakon baten emaitza da, iturri eta ikerketa diferenteak kontuan hartuta eta hainbat eragile eta adituren ikuspuntua zein ekarpena bildu delarik.
- Jarraian gogora ekarriko dira gaur egun Eusko Jaurlaritzak hizkuntza plangintzaren alorrean dituen bi tresna estrategiko: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta Euskararen Agenda Estrategikoa. Bi horiek dira gaur egun hizkuntza politikaren ildoak definitzen dituzten dokumentu nagusiak.
- Azkenik, dokumentua osatzeko Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 Batzorde-atalean 2015eko uztailaren 10ean aurkeztu den "Eta hemendik aurrera zer?" dokumentua jaso da.

Sarrera amaitzeko esan behar da txosten honetan jasotako informazioa nagusiki EAEn eremuari dagokiola, hori baita Eusko Jaurlaritzaren eta Euskararen Aholku Batzordearen eskumeneko eremua.

V. Inkesta Soziolinguistikoa aztertzen duen unibertsoa, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleek osatzen dute (2.650.000 pertsona inguru). Ez ditu biltzen, beraz, adin tarterik gazteenak eta eskolaren ekarpen bikainari esker euskaldunenak diren haur eta gazteak alegia. Guztira, 7.900 inkesta egin dira (4.200 EAEn, 2.000 Iparraldean eta 1.700 Nafarroan), telefono bidez eta galdetegi egituratu eta itxia erabiliz. Lagina, bestalde, gune soziolinguistikoaren eta udalerrriaren arabera estratifikatua izan da, eta emaitzak haztatzerakoan, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartu dira.

1. Hizkuntza-gaitasuna
2. Hizkuntzaren transmisioa
3. Euskararen erabilera
4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera

Hizkuntza ikerkuntzaren eremu zabalean lehen mailako garrantzia duen ikerketa da atal honetan laburbiltzen den inkesta soziolinguistikoa, beraz, eta, besteak beste horrexegatik, guztiz berezkoa izango luke era honetako azterketa batek euskararen lurraldeetako herri-aginteen arteko lankidetzat. Gertatu ere, hala gertatu da neurri batean, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak bat egin baitu Eusko Jaurlaritzarekin lan hau kaleratzeko lanetan. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, gogoko du Nafarroako Gobernuak lankidetzat honetara biltzea eta ahalegin horretan jarraituko du, nahiz eta, tamalez, Nafarroako Gobernuak ez duen orain arte norabide horretan urratsik eman. Era berean, Eusko Jaurlaritzak eutsiko dio aurrerantzean ere Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekiko lankidetzat alor honetan sakontzeko ahaleginari. Izan ere, Europako Kontseilutik aspaldian aholkatu zitzaigun Estatu barruko erkidegoen arteko nahiz Estatu mugaz gairik lankidetzat, euskara indarberritzeko lanetan eragingarritasun faktore gisa, eta aipatu gomendioa betetzeak abantaila baizik ez luke ekarriko euskararentzat.

Atal honetan laburbiltzen diren V. Inkesta Soziolinguistikoaren datuei dagokienez, berriz, ugari dira eskaintzen dizkiguten gogoeta-gaiak, eta, oroz gain, bi azpimarratu nahi genituzke lerrootan: alde batetik, eta euskararen lurraldearen barruko hiru erkidegoetan euskarak izan duen bilakaera askotarikoari so, esan liteke euskararen bilakaera soziala baldintzatzen duten faktoreak direla, beste zenbaiten artean, lege estatusa, herri-aginteen hizkuntza plangintza eta politika, eta herritarren atxikimenduaren neurria, eta, ondorioz, hiru faktore horien arteko loturaren tamaina; eta, bestetik, euskararen bizi-indarraren auzia, legealdi honetako gure lanen jomugan duguna.

V. Inkesta Soziolinguistikoa

Euskal Autonomia Erkidegoa,
Nafarroa eta Iparraldea

AURKIBIDEA:

1. Sarrera
2. Ondorio nagusiak
3. Hizkuntza-gaitasuna
4. Hizkuntzaren transmisioa
5. Euskararen bilakaera, irabaziak eta galerak
6. Erabilera
7. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak

1. Sarrera

Azterketa soziolinguistikoak garrantzi handiko lanabesak dira indarberitzen ari den hizkuntza baten egoeraren eta bilakaeraren berri izateko. Hori kontuan hartuta, behar-beharrezkoa dugu euskararen lurraldeetan euskarak bizi duen errealitateari buruzko Inkesta Soziolinguistikoa aldiro-aldiro mamitzea.

Inkesta soziolinguistikoak Euskal Herri osoko 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartzen ditu aintzakotzat (2.650.000 pertsona gutxi gorabehera). Inkestatik kanpo gelditzen den adin tartea pisu handikoa da euskararentzat, eskolaren eraginez euskaldunenak diren gazteen adin tartea delako. Sexuaren eta adinaren arabera estratifikatu ohi da azterketa, eta, guztira, V. edizio honetan 7.800 inkesta egin dira: 4.100 EAEn, 2.000 Iparraldean eta 1.700 Nafarroan. Informazioa jasotzeko, galdetegi egituratua eta itxia erabili da.

V. Inkesta Soziolinguistikoak lau ikerketa-eremu jasotzen ditu: herritarren hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, lanean eta eremu formaletan) eta euskararekiko jarrera.

Landa lana Siadecok egin du 2011ko ekain eta abendu bitartean eta telefono bidez. Euskal Herriko lagin osoaren akats-tartea $\pm 1,5$ ekoa da %95,5eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50$. Konfiantza-maila bererako, elebidunen akats-tartea $\pm 1,9$ koa da eta beste horrenbestekoa erdaldunena.

Inkesta soziolinguistikoa bost urterik behin burutzen den azterlana da; orain arte bost burutu ditugu. Beraz, gaur egun euskararen egoera nolakoa den adierazteaz gain, azken hogeitako bilakaera nolakoa izan den azaltzeko aukera ematen digu.

Oharra: V. Inkesta Soziolinguistikoaren argitalpena www.euskara.euskadi.net atarian dago: http://www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf

2. Ondorio nagusiak

1. Gizartea bizkor aldatzen ari da, zahartze prozesua areagotzen ari da, jaiotze-tasa urriak ia-ia bere horretan segitzen du eta denbora laburrean etorkinen kopurua nabarmen hazi da, batez ere Nafarroan (etorkinak %11,2 Nafarroan eta %6,6 EAEn).
2. 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, 1991n baino 185.600 elebidun gehiago daude 2011n (%27 dira gaur egun). Elebidunen hazkundera Nafarroan eta, batez ere, EAEn gertatu da. Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude, baina lehenago baino apalagoak dira eta gazte elebidunen kopuruak segitzen du gora egiten. Aldi berean, 16 urtetik gorako erdaldunak duela 20 urte baino 140.239 gutxiago dira Euskal Herrian (%70 ziren 1991n eta %58,4 dira gaur egun). Erdaldunen ehunekoak behera egin du EAEn eta Nafarroan. Iparraldean, aldiz, gora egin dute bai kopuruak baita ehunekoak ere.
3. 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartu beharrean, biztanleria osoa kontuan hartuz gero, Euskal Herriko elebidunen ehunekoa are handiagoa da. Izan ere, hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera neurtzen denean, ikus daiteke elebidunen hazkundera gazteen artean gertatzen ari dela bereziki. EAEn eta Nafarroan, esaterako, 16 urtetik beherako gazteen artean dago elebidunen ehunekorik handiena.
4. Azken 20 urteotan elebidun hartzaileak bikoiztu egin dira Euskal Herrian: %14,7 dira gaur egun eta %7,7 ziren 1991n. Hazkunderik handiena EAEn eta Nafarroan gertatu da eta neurri txikiagoan hazi da haien proportzioa Iparraldean.
5. Gaur egun guraso biak elebidunak direnean, euskararen transmisioa ia erabatekoa da EAEn eta Nafarroan (%97 EAEn eta %95 Nafarroan) eta apalagoa Iparraldean (%87). Bikote mistoen kasuan transmisioak gora egin arren, ez da erabatekoa (%71 EAEn, %67 Nafarroan eta %56 Iparraldean).
6. Hizkuntzaren erabileran hitzunik hizkuntza horretan duen erraztasuna, harreman-sareak eta erabilera eremu erabakigarriak ezinbestekoak dira. Hitzun asko, batez ere gazteak, euskaldun berriak dira. 2011n, 16-24 urte tarteko elebidunen %52 euskaldun berriak dira EAEn, %38,6 Iparraldean eta %54 Nafarroan. 1991n, aldiz, euskaldun berriak elebidunen %14 ziren EAEn, %9 Iparraldean eta %16 Nafarroan. Elebidunen erdia, gainera, gunerik erdaldunetan bizi da. Beraz, elebidun gehienak gaztelaniaz edo frantsesez nagusiki diharduten harreman-sare zabaletan bizi dira eta euskara erabiltzeko erabilera eremu urriak dituzte.
7. Ezagutzak ez ezik erabilerak ere gora egin du, eremu formaletan batez ere. Gazteen artean gero eta nabarmenagoa da euskararen erabileran gertatzen ari den hazkundera. Izan ere, 35 urtetik beherako artean euskara erabiltzen dutenak duela hogeit hamar urte baino gehiago dira hiru lurraldeetan, batez ere EAEn.

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa

8. Gizarte osoko erabilera kontuan hartu ordez elebidunen erabilerari erreparatzen badiogu, elebidunen kopurua gehitu den arren, euskararen erabilera gaur egun 1991n baino txikiagoa da. Gizartean oro har nabarmen hazi da euskararen erabilera, baina gaur elebidun direnek ez dute 1991n elebidun zirenek baino gehiago erabiltzen euskara. Hala ere, 2001etik aurrera joera-aldaketa bat egon da eta gazte elebidunek gaur egun duela hamar urte baino gehiago erabiltzen dute euskara EAEn eta Iparraldean, baina ez Nafarroan.
9. Euskararen aldeko jarrerak eta hura indarberitzearen aldeko borondatea areagotu egin dira EAEn eta Nafarroan, ez ordea Iparraldean biztanleria osoan. EAEn eta Nafarroan adin talde guztietan egin du gora. Iparraldeari dagokionez, azken bost urteotan gazteen artean euskararen aldeko jarrerak gora egin du.
10. Datuak osotasunean aztertuta, baieztatu daiteke elebitasuna gora doala EAEn eta Nafarroan. EAEn indartsu, eta Nafarroan apalago baina etengabe. Iparraldean, aldiz, galerak daude oraindik. Hala ere, esan bezala, lehenago baino apalagoak dira eta Iparraldeko gazteen artean segitzen du gora egiten elebidunen ehunekoak eta kopuruak.

3. Hizkuntza-gaitasuna


2011ko datuen arabera, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %27 elebiduna da (1991n baino ia bost puntu gehiago, alegia %22,3), %14,7 elebidun hartzailea (1991n %7,7) eta %58,4 erdalduna (1991n %70).

Hizkuntza-gaitasuna, lurraldearen arabera, 2011

	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
Guztira	2.648.998	1.873.498	537.139	238.360
Elebidunak	714.136	600.058	62.977	51.100
Elebidun hartzaileak	388.255	325.967	40.546	21.742
Erdaldunak	1.546.607	947.473	433.616	165.518

Lurraldeka, EAEn 16 urte edo gehiagoko elebidunak %32 dira (1991n %24,1), Iparraldean %21,4 (1996an %26,4) eta Nafarroan %11,7 (1991n %9,5).

Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera, 2011 (%)




Oharra: zirkuluaren tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da
Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa

Hau da, 16 urtetik gorako biztanleen artean 1991n baino 185.600 elebidun gehiago daude 2011n. Elebidunen hazkundera Nafarroan eta, batez ere, EAEn gertatu da. Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude, baina gutxiago eta gazte elebidunen kopuruak segitzen du gora egiten.

Elebidunen bilakaera. Euskal Herria, 1991- 2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera neurtzen denean, ikus daiteke elebidunen hazkundera gazteen artean gertatzen ari dela bereziki. EAEn eta Nafarroan, esaterako, 16-24 adin tartean dago elebidunen ehunekorik handiena (%59,7 eta %20,8, hurrenez hurren). Iparraldean, aldiz, 65 urtetik gorakoen artean dago elebidunen ehunekorik handiena, eta adinak behera egin ahala behera egin du elebidunen ehunekoak. Hala ere, Iparraldeko gazteen artean duela bost urte sumatutako joera-aldaketa berretsi egin da, eta 2011ko datuen arabera gora egin dute gazte elebidunen ehunekoak eta kopuruak.

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa

Hizkuntza-gaitasuna herrialdearen eta adinaren arabera, 2011 (%)

	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
EAE	1.873.498	417.515	433.640	529.342	318.643	174.358
Elebidunak	32,0	23,3	22,9	29,8	44,5	59,7
Elebidun hartzaileak	17,4	9,5	14,2	19,7	25,0	23,2
Erdaldunak	50,6	67,2	62,9	50,5	30,5	17,0
Nafarroa	537.139	114.377	115.268	156.096	95.028	56.370
Elebidunak	11,7	9,3	9,6	10,1	14,5	20,8
Elebidun hartzaileak	7,5	5,1	6,5	9,2	9,3	7,2
Erdaldunak	80,7	85,7	83,9	80,7	76,1	71,9
Iparraldea	238.360	62.266	55.710	61.365	32.056	26.964
Elebidunak	21,4	30,6	24,4	15,1	13,9	17,6
Elebidun hartzaileak	9,1	7,6	7,2	9,8	12,3	11,3
Erdaldunak	69,4	61,8	68,5	75,1	73,7	71,1


Aldi berean, erdaldunak duela 20 urte baino 140.239 gutxiago dira Euskal Herrian (%70 1991n eta %58,9 2011n). Erdaldunen ehunekoak behera egin du EAEn eta Nafarroan. Iparraldean, aldiz, gora egin du bai kopuruak baita ehunekoak ere. Erdaldunen beherakada eta elebidunen hazkundea are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gizarteak bizi dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, euskal gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa oso txikia da, beraz gazteen multzoak, gaur egun elebidun gehien biltzen dituenak hain zuzen ere, gero eta pisu gutxiago du gizarte osoarekiko. Aldi berean, azken 20 urteotan nabarmen hazi da etorkinen ehunekoa. EAEn %6,6 izatera iritsi dira eta Nafarroan %11,2 izatera. Iparraldean kanpotik etorritako jendearen eragina oso handia da (biztanleen %41,5 inkestako datuen arabera). Duela 20 urte ere, Iparraldean kanpotarren ehunekoa gainerako bi lurraldeetan baino handiagoa zen.

Datuak osotasunean aztertuta, baieztatu daiteke elebitasuna gora doala EAEn eta Nafarroan. EAEn indartsu, eta Nafarroan apalago baina etengabe. Iparraldean, aldiz, galerak daude oraindik. Hala ere, esan bezala, lehenago baino apalagoak dira eta Iparraldeko gazteen artean gora egin du berriz ere elebidunen ehunekoak eta kopuruak.

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa


Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. 1991n elebidun gehienak (%79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, euskara etxean jasotakoak ziren (eta euskara soilik). Euskaldun zaharrak, gainera, nagusi ziren adin talde guztietan. 2011n, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere (%52,4), gazteen artean irauli egin da egoera. Izan ere, 16-24 urte tarteko gazte elebidunen erdia baino gehiago (%51,9) euskaldun berria da dagoeneko, hau da, eskolan edo euskaltegian ikasi du euskara. 1991n, aldiz, adin tarte horretako elebidunen %25 besterik ez zen euskaldun berria.

Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2011




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

2. EUSKARAREN BILAKAERA: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa

Bestalde, etxean euskara eta erdara, hau da, bi hizkuntzak batera jaso dituztenak ere gero eta gehiago dira, hau da, jatorrizko elebidunak dira. Bikote mistoen eta bikote euskaldun berrien seme-alabak dira. Horrela, 16-24 urte tarteko gazte elebidunen %18,9 jatorrizko elebiduna da dagoeneko.


Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Gazteen arteko euskaldun berrien nagusitasuna argia da EAEn eta Nafarroan, eta Iparraldean ere gero eta gehiago dira. Horrek eragin zuzena du euskara erabiltzeko erraztasunean nahiz zailtasunean. Izan ere, elebidunen artean, erdal elebidunek, hau da, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnek osatzen dute multzorik handiena EAEn eta Nafarroan, eta gero eta gehiago dira Iparraldean.

Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

4. Hizkuntzaren familia bidezko transmisioa


Gaur egungo transmisioa nolakoa den jakiteko, 2 eta 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuak hautatu eta hizkuntza nola transmititu duten aztertu da.

Gaur egun guraso biak elebidunak direnean, euskararen transmisioa ia erabatekoa da EAEn eta Nafarroan, baina apalagoa Iparraldean.

Bikotekideen hizkuntza-gaitasunak erabat baldintzatzen du hizkuntzaren transmisioa:

- Gurasoak elebidunak direnean seme-alaben %97k euskara jasotzen dute etxean EAEn eta %95ek Nafarroan. Iparraldean ere ehuneko hori handia den arren (%87), apalagoa da.
- Bikotekideetako batek euskaraz ez dakienean, aldiz, seme-alaben %71k EAEn, %67k Nafarroan eta %56k Iparraldean euskara jaso dute etxean.

2-15 urteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen ezagutzaren arabera 2011(%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Guraso biak euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak izanik, ia %100ean transmititu dute euskara EAEn eta Nafarroan eta kasik %90ean Iparraldean. Gurasoetako bat edo biak euskaldun berriak izanik, ordea, transmisioa txikiagoa da, baina gehienek euskara transmititzen dute.

Aipagarria da, lehenago ez bezala, gaur egun bikote misto gehienek euskara transmititzen dutela erdararekin batera, nahiz eta desberdintasunak egon, gurasoen euren lehen hizkuntzaren arabera, hau da, gurasoak euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak edo euskaldun berriak diren.

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa


Euskara eta erdara batera transmititzearen gertakaria bikotekideen hizkuntzagaitasunarekin dago lotuta. Izan ere, azken 25 urteotako hizkuntzaren berreskuratze-prozesuaren ondorioz, bikotekide euskaldun berriak gero eta gehiago dira.

5. Euskararen bilakaera, irabaziak eta galerak

Irabazien hazkundera eta galeren ia desagertzea gazteen artean antzematen da bereziki, baita, neurri apalagoan bada ere, Iparraldeko gazteen artean ere.

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek (%88k EAEn, %83k Nafarroan eta %75ek Iparraldean) euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun.

Euskararen galeren eta irabazien bilakaera, adinaren arabera EAE, 1991-2011(%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


Hala ere, badira euskara guztiz edo partez galdu dutenak (16 urte edo gehiagoko biztanleen %3 inguru). Galera horren zati bat (erdia inguru EAEn eta Iparraldean, eta herena pasatxo Nafarroan) galera partziala izan da, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira.

Aldi berean, baina, lehen hizkuntza erdara izan arren, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 249.918 pertsona daude, 1991n baino 178.216 lagun gehiago. Horiexek euskararen irabaziak dira, euskaldun berriak alegia.

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa


**Euskararen galeren eta irabazien bilakaera, adinaren arabera
Iparraldea, 1996-2011(%)**



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Euskara ikasi dutenak 219.674 lagun dira EAEn (1991n baino 160.000 gehiago), 23.470 Nafarroan (1991n baino 17.000 gehiago) eta 6.774 Iparraldean (1991n baino ia 5000 lagun gehiago). Irabaziak gazteen artean hazi dira batik bat.

**Euskararen galeren eta irabazien bilakaera, adinaren arabera
Nafarroa, 1991-2011(%)**




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

6. Euskararen erabilera

Euskararen lurralde guztiak kontuan izanda, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %24,2k euskara erabiltzen du neurri batean edo bestean:

- %16,1ek euskararen erabilera intentsiboa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- Aldi berean, %8,1ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Euskararen erabileraren tipologia. Euskal Herria, 2011 (%)
(*Etxea-Lagunak-Formala*)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera intentsiboa egiten dutenak %20 dira EAEn, %9,6 Iparraldean eta %5,5 Nafarroan. Horiez gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %8,9 dira EAEn, %9,3 Iparraldean eta %4,6 Nafarroan.

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa


Euskararen erabileraren tipologia, 2011 (%)
(Etxea-Lagunak-Formala)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du EAEn, bere horretan dago Nafarroan eta behera egin du Iparraldean.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, 1991-2011 (%)




Oharra: Iparraldean 1996-2011

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Erabilera eremuaren arabera

Euskal Herri osoa kontuan hartuz, euskararen erabilera eremu formaletan egin du gora gehienbat. Etxean, aldiz, erabilera behera egin du, seme-alabekiko erabilera izan ezik. Erabilera eremu formalen artean, osasun zerbitzuetako erabilera izan du azken 20 urteotako hazkunderik esanguratsuena, nahiz eta ehunekoak oraindik beste erabilera eremu batzuen azpitik egon.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera erabilera-eremuaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

EAEn euskararen erabilera gora egin du erabilera eremu guztietan, etxean izan ezik. Igoera hori handia izan da udal zerbitzuetan (%24,8), osasun zerbitzuetan (%19,8) eta lanean (%24,5). Seme-alabekin (%22,8) eta lagunekin (%21,3) ere gora egin du. Etxeko guztiak kontuan hartuz, ordea, erabilera ez du gora egin (%17,3 zen 1991n eta %17,1 da gaur egun).

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa


Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera erabilera-eremuaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2011.

Iparraldean, euskararen erabilera %11 ingurukoa da etxeekin eta lankideekin. Azpimarratzekoa da erabilerarik handiena lagunartekoa dela (%14,5). Euskararen erabilera, aldiz, txikia da eremu formaletan (%8,3 udal zerbitzuekin eta %3,5 osasun zerbitzuekin). Azken 15 urteotan, euskararen erabilerak behera egin du oro har.


Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera erabilera-eremuaren arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

2. EUSKARAREN BILAKAERA: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa

Nafarroan euskararen erabilera %5 eta %8 bitartekoa da eremu guztietan (etxean %5,4, seme-alabekin %8, lagunekin %7,5 eta lankideekin %7,1). Eremu formalean, %6,3 da erabilera udaletxekoekin eta %4,8 osasun zerbitzukoekin. Azken 20 urteotan erabilera oso gutxi aldatu da. Eremu formalean izan du igoerarik handiena (2 puntu inguru).




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Erabilera adinaren arabera

Azken 20 urteotan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du 50 urtetik beherakoen artean eta behera 50 urtetik gorakoen artean. Igoera hori, baina, ez da leku guztietan modu berean gertatu. Izan ere, bere horretan EAEn baino ez da gertatu. Nafarroan eta Iparraldean, aldiz, erabilera igoera 35 urtetik beherakoen artean gertatu da.

Azpimarratzekoa da Iparraldean euskararen erabilera 25 urtetik beherakoen artean ez ezik, lehenengo aldiz 1996tik 35 urtetik beherakoen artean ere hazi dela.



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen igoera handia izan da EAEn 35 urtetik beherakoen artean (25-34 urtekoen artean 8 puntu eta 16-24 urtekoen artean 14 puntu). Iparraldeko eta Nafarroako igoerak apalagoak dira.

Erabilera elebidunak bakarrik kontuan hartuz

Euskararen erabilera izan duen hazkunderaren oinarrian elebidunen hazkundera dago. Elebidunak gero eta gehiago dira eta, horren ondorioz, euskara erabiltzen duten pertsonen kopurua ere hazi egin da. Kontua da elebidunen eta euskara erabiltzen dutenen kopuruak, normala denez, ez direla neurri berean hazi.

Gertakari hori hobeto ulertzeko, gizarte osoarekiko erabilera kontuan hartu ordez, elebidunen erabilera erreparatuko diogu.

Gaur egun, euskararen lurraldeetan euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen ehunekoak bere horretan jarraitzen du (%59,4), datu orokorreki dagokienez.


Adinaren arabera, 35 urtetik gorako elebidunen artean euskararen erabilera handiagoa da gaur egun duela 20 urte baino.

Gazte elebidunen artean, ordea, erabilera jaitsi egin da 20 urteko tartea kontuan hartuz. 2011n euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %49 dira 25 eta 34 urtekoen artean eta %43,2 16 eta 24 urtekoen artean (1991n %58 eta %49,6 hurrenez hurren).

Hala ere, 2001etik aurrera joera-aldaketa egon da. Gazte elebidunek gaur egun duela hamar urte baino gehiago erabiltzen dute euskara. Igoera hori EAEn eta Iparraldean gertatu da, baina ez Nafarroan.

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Elebidunen artean, eta bereziki elebidun gazteen artean, euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoi nagusiak hauek dira: lehen hizkuntza erdara izanik euskaraz jarduteko erraztasun urriagoa izatea eta gazte elebidun gehienak gune erdaldunetan bizi izatea.

7. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, 16 urte edo gehiagoko herritarrek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritzia araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Euskararen erabilera sustatzearen alde daude 16 urte edo gehiagoko biztanleen %62,3 EAEn, %38,5 Iparraldean eta %37,7 Nafarroan.

Euskara sustatzearen ez alde ez aurka biztanle multzo esanguratsua dago: %40,2 Iparraldean, %27,8 Nafarroan eta %26,1 EAEn.

Euskara sustatzearen aurka daudenak %11,6 dira EAEn, %21,3 Iparraldean eta herena (%34,5) Nafarroan.

Jarrerak, herrialdearen arabera, 2011 (%)

	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
Guztira	2.648.998	1.873.498	537.139	238.360
Aldekoa	55,2	62,3	37,7	38,5
Ez alde, ez aurka	27,7	26,1	27,8	40,2
Aurkakoa	17,1	11,6	34,5	21,3


Datu guztiak kontuan hartuz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 7 puntuko igoera izan du hogeitun urtean. Izan ere, 1991n euskal herritarren %47,5 zegoen euskara sustatzearen alde eta %55,2 dago gaur egun euskara sustatzearen alde.

Hogeitun urteko epean euskara sustatzearen aldeko jarreraren igoerarik handiena Nafarroan izan da, %21,6 baitziren euskara sustatzearen aldekoak 1991n, eta %37,7 dira gaur egun.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere 7 puntuko igoera izan du euskararen aldeko jarrerak azken hogeitun urteotan (1991n %55 eta 2011n %62,3).

Iparraldean, aldiz, alderantziz gertatu da. 1996an %42,3 zegoen euskara sustatzearen alde eta egun %38,5 dira aldekoak.

2. EUSKARAREN BILAKAERA: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2011.

Bestalde, aipatzekoa da euskararekiko jarrerak lotura handia duela hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde daude elebidunen %88tik gora EAEn eta Nafarroan eta %73 Iparraldean. Erdaldunen artean, euskararen erabilera sustatzearen kontra daudenak %18,3 dira EAEn, %41,2 Nafarroan eta %27,8 Iparraldean.

Adinari dagokionez, EAEko eta Nafarroako gazteen artean nahiko altua da euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera, baita helduen artean ere EAEn. Iparraldean, aldiz, gazteenak dira aldeko ehunekorik txikiena dutenak, nahiz eta azken bost urteotan gora egin duen. Era berean, 65 urtetik gorakoen artean euskararen erabilera sustatzearen alde dauden ehunekoa handia da Nafarroan eta Iparraldean, gainerako adin taldeetan baino handiagoa.

Egindako galderetan azpimarratzekoa da EAEn, 16 urte edo gehiagoko biztanle gehienei ezinbesteko begitantzen zaiela hurrek euskara ikastea (%81) eta Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea (%75). Iparraldean ere horrela uste dute biztanle gehienek (%51 eta %53, hurrenez hurren). Nafarroan, ordea, gehienei Administrazioan sartzeko euskaraz jakiteari ezinbesteko irizten diote (%53), baina ez hurrek ezinbestez euskara ikasi behar dutela (%43), aurkakoak ere asko baitira, %48, alegia.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, seme-alaben irakaskuntza ereduaren hautuari dagokionez, euskarazko ereduari ikas dezaten nahi lukete EAEko biztanleen %66k, Nafarroako %32k eta Iparraldeko %19k.

Gainerako erduei erreparatuz, Iparraldean biztanleen herenak (%34k) irakaskuntza elebidunaren (euskaraz eta frantsesez) alde egingo luke. Nafarroan, aldiz, biztanleriaren laurden batek (%24) B ereduari aukeratuko luke. EAEn ere %25ek aukeratuko luke B ereduari (euskara eta gaztelania uztartzen dituen eredu mistoa) euren seme-alabentzat.

V. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA (2011)

V. Mapa Soziolinguistikoa 2011ko Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuan bildutako datuak ditu oinarritzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko 5 urte edo gehiagoko biztanleria hartzen du aintzat. Datuen ardurak EUSTAT erakundearena da, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak datu horien ustiaketa egin du.

Mapa Soziolinguistikoa lau aldagai aztertzen ditu: batetik, hizkuntza-gaitasunaren bilakaera (1981eko zentsuan txertatutako aldagaia); bestetik, biztanleriaren lehen hizkuntza (1986an txertatutako aldagaia); hirugarrenik, hizkuntza-gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko gurutzaketa, BILA indizea (1986tik aurrerako datuak kontuan hartuz); eta, azkenik, etxeko erabilera (1991n gaineratutako aldagaia).

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen bilakaeraren berri izateko ikuspegi zabala ematen digu: hizkuntza-gaitasunaren kasuan hogeita hamar urtekoa, lehen hizkuntzaren kasuan hogeita bostekoa eta etxeko erabilerarenean hogeikoa.

Datuen aurkezpenari dagokionez, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, hogeit eskualdeetako, hiru hiriburu eta lau gune soziolinguistikoen¹ arabera datuak eta joerak aztertu dira nagusiki.

Oharra: V. Mapa Soziolinguistikoa argitalpena www.euskara.euskadi.net atarian dago: http://www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V%20MAPA-SOZIOLINGUISTIKOA%20baja_109_216.pdf

¹ Gune soziolinguistikoa: 1.a elebidunen % < 20; 2.a elebidunen % 20-50; 3.a elebidunen % 50-80; 4.a elebidunen % > 80.

1. Ondorio nagusiak

V. Mapa Soziolinguistikoaren zenbakien zurrunbiloan sartu aurretik, Eusko Jaurlaritzak formulaturiko ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu, EUSTATEk emaniko datuen ustiaketan oinarrituriko ondorio nagusiak, oro har V. Inkesta Soziolinguistikoko ondorioekin bat datozenak:

1. Euskararen etorkizuna inoiz baino gehiago eta nabarmenago dago geure esku. Hauxe da V. Mapa Soziolinguistikoak agerian jartzen dizkigun ondorio guztien artean ondorio nagusia. Bistan da, euskararen botila, hiru hamarkadotan oro har betetzen etorri den eta asko bete den botila dela, nahiz eta, aldi berean, botila ez den askok nahiko genukeen adina bete. Ez da, ezta ere, arlo guztietan neurri berean edo bertsuan bete: askozaz gehiago bete da eremu formal eta/edo publikoan eremu ez formalean baino. Eta eremu bakoitzean ere bilakaera ezberdinak izan ditu euskararen botilak. Eremu formalean, esate baterako, gehiago bete da hezkuntzan, administrazioan baino. Eremu ez formalean, berriz, lagunartean ez bezala, etxeko sukaldean eta salan botila ez da bete, eta joera hustutzerantza begira jarrita dago. V. Mapa Soziolinguistikoaren ondorioen argitan, komeni zaigu autoatseginkerian nahiz arrangura edo ezkortasunean oinarrituriko diskurtsoak saihesten asmatzea, eta, hasiera beretik esan bezala, jabetzea euskararen etorkizuna inoiz baino gehiago eta nabarmenago dagoela geure esku.
2. Gero eta biztanleria zaharragoa izateak eta atzerriko immigrazioaren hazkundeak eragina izan du azken urteotako hizkuntzaren bilakaera sozialean. EAEn gaur gehiago dira 65 urtetik gorakoak (%19,5) 20 urtetik beherakoak baino (%17,4). Atzeritik etorritakoak EAEnko biztanleen %6,6 dira gaur egun.
3. Hogeita hamar urteotan EAEn sustatu den euskara biziberritzeko prozesua hazkunde jarraitu baten kronika da oro har, hazkunde hori homogeneoa ez bada ere. Gaur egun herritarren %36,4k badaki ongi euskaraz, eta duela 30 urte %22k bakarrik. %19,3 euskaldun hartzailea da. Duela 30 urte herritarren 2/3 ziren euskaraz tutik ere ez zekitenak, baina gaur egun %44 (bakarrik) dira erdaldun hutsak. Euskaldunen ehunekoak 14,5 puntuko hazkundea izan du 30 urteotan. Hazkundea are azpimarragarriagoa da urte tarte berean biztanleria oso gutxi hazi delako, %1,7 zehazki. Are nabarmenagoa da, gainera, etorkinen kopurua, euskaraz tutik jakin gabe etorri direnen kopurua alegia, 2001-2011 azken hamar urteko epealdian bost aldiz handiagoa delako (145.256 etorkin). 1981ean baino 38.000 biztanle gehiago daude EAEn, baina 318.000 euskaldun gehiago.
4. 20 urtetik beherako herritarrei erreparatzen badiegu, hazkundea ikaragarria da: gaur egun %70 baino gehiago da euskalduna, eta duela 30 urte ez zen %20ra iristen. Halere, gazteen pisu demografikoa txikia denez, euskaldunen hazkundeak ez du pareko islarik biztanleria osoaren emaitzetan.

5. Azken hamarkadan atzerritik etorritako immigrante gehienak gazteak dira, 20-40 urte bitartekoak (%58), eta, jakina, horrek eragina izan du adin tarte horretako euskaldunen ehunekoetan. Halere, euskararen ezagutzaren hazkundera belaunaldi gazteenen artean gertatu da, batez ere. 30 urteotako bilakaerak gutxi gorabehera modu berean jarraitzen baldin badu, hogeitau berruko euskal gizartearen 55 urtez azpiko biztanleriaren %70etik gora euskalduna izango dela esatea ez da ameskeria, gertagarria den errealitate bat baizik, nahiz eta ez den neurri bereko elebiduna izango. Gure hizkuntza-errealitatea asimetrikoa izango da, hots, hizkuntza-gaitasuna desberdina duten herritarren artean osatutako gizartea izango da geurea.
6. Horiek horrela, beraz, hogeitau berru erdaldun hutsak gutxiengo izango dira gure artean. 1981. urtean biztanleriaren gutxiengo bat euskalduna izatetik, 2031. urtean gehiengo zabala izatera igaroko da, erdaldun hutsak gehiengo zabala izatetik gutxiengo izatera iritsiz.
7. Hamar euskaldunetik ia seik (%57,8) etxean jaso dute euskara (euskara bakarrik edo euskara eta gaztelania). Beste lau pasatxo (%42,2) euskaldun berriak dira. Baina 30 urtetik beherako gazte euskaldunei dagokienez, hamarretik ia sei (%58) euskaldun berriak dira. Eta euskaldun berrien erdia (%49,3) EAEko sei udalerrri handienetan bizi da (Bilbo, Gasteiz, Donostia, Getxo, Irun eta Barakaldo). Barakaldon euskaldunak ez dira %20ra iristen, eta beste bost hirietan ez dira %50era iristen. Euskaldunen kontzentrazio txikia duten guneeetan, eta, beraz, euskara erabiltzeko aukera gutxi dagoen tokietan bizi da euskaldun berrien erdia, eta euskaldunen erdia baino gehiago. Bistan da aipatu ditugun elebidunen ezaugarri berriok zuzenean eragiten dutela euskararen erabileran.
8. Mapa soziolinguistikoak etxeko erabilera bakarrik aztertzen du. Erabilera orokorraren berri inkesta soziolinguistikoak ematen digu: 2011ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, 15 urtetik gorako herritarrek 1991n baino gehiago erabiltzen dute euskara. 7 puntu handitu da, oro har, erabilera. Baina erabilera orokorraren gorakada eremu formaletan gertatu da (udaletxean, osasun zerbitzuetan, lan-munduan, banketxeetan, eta abar), ez etxean.

Mapa honetako paradoxarik esanguratsuenetakoa izan liteke hau: duela hogeitau berru gaur baino askoz etxe gehiago ziren kide euskaldun bakar bat ere ez zuten familiak. Etxeko erabilerak, ordea, puntu bat behera egin du azken hogeitau urteotan: %20,8 dira etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak (erabilera orokorrean %20 dira), eta %21,8 ziren 1991n. Horrek gutxienez bi gauza adierazten ditu: alde batetik, euskara gaitasunean hiru hamarkadotan gertatu den hazkundera jarraituak ez duela etxeko erabileran hazkunderik ekarri, hots, mendetan zehar euskararen gotorleku nagusi izan den etxean ez dela hobekuntzarik gertatu, nahiz eta euskaraz jarduteko gai diren herritarrak askozaz gehiago izan; bestetik, esan nahi du gaurko euskaldunek ez dutela atzokoek adina erabiltzen euskara etxean. Baina konplexuagoa da gertatzen dena. Jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien artean gero eta gehiago dira etxean batez ere euskara erabiltzen dutenak, baina euskaldun zaharren artean jaitsi egin da etxeko erabilera.

9. Hizkuntzak hiztunak eta erabilera eremuak behar ditu, biziko bada. Garrantzizkoena da, herritarren eta gizartean arlo batean edo bestean eredarri direnen atxikimendua, gogoia edo hizkuntza kontzientzia, hain zuzen ere euskaraz dakitenak euskal hiztun izateko. Horren ondoan herri-aginteen konpromisoa, jarrera proaktiboa behar baita ahulena dena indarberritzeko eta bi hizkuntza ofizialen arteko orekarantz urrats eraginkorrak ematen jarraitzeko.
10. Gaur egungo testuingurua, zorionez, elebitasunaren eta eleaniztasunaren testuingurua da. Hor aurkitu behar du bere tokia euskarak ere. Toki hori eraikitzeko eraginkorra izango den hizkuntza politika gauzatzerakoan, badaude aukerak, 30 urteotako ibilbideak erakusten digunez, bide hori egingarria delako. Mugak ere gizartean daude, elebitasunerako bidea egiteko abiada ezin baitaiteke gizartearen nahi eta ahalmenek uzten dutena baino handiagoa izan. Egin egin behar da, interbentzioa behar da, hizkuntza desoreka ez baita berez naturalki gaituzteko. Baina ausardia behar da errealitateaz jabetzeko, ameskerien lilura saihesteko, eta oharrezko “zer nahi dut?” galdera bezain eraginkorra dela “zer ahal dugu eta zertarako gaude prest?” galdera.
11. Amaitzeko, etorkizunari begira, euskara indarberritzen laguntzeko lau erronka azpimarratuko genituzke:
 - a. Euskarak eta euskararen munduek liluratu/seduzitu/asebete egin behar dute, euskara gure eguneroko bizitzan modu naturalean errotuko bada. “Euskarak behar zaitu” aldarritik “euskara behar dut” praktikara jauzi egitea.
 - b. Euskararen ezagutzan hazten jarraitzea alboratu gabe, noski, baina euskararen erabilera sendotzea dugu erronka nagusia, batez ere esparru ez formaletako erabilera, etxeko eta harreman pertsonaletako erabilera. Hori ezin da arautu, are gutxiago inposatu, baina bai elikatu eta sustatu. Mota ugarietako motibazioak sustraitu beharko dira gizartean. Motibazio politikoa ez dago zertan bazterturik, baina, integratzailea den neurrian balioko du horrek, eta ziur aski, hori baino askoz gehiago motibazio kulturalak eta sozialak, bai euskararen ezagutzan hazten jarraitzeko eta batez ere euskaraz badakitenek aukera dutenean beti edo ia beti euskara erabil dezaten.
 - c. Euskara nonahi baliatzeko dauden erabilera aukerak indartu eta berriak sortu behar ditugu.
 - d. Gazterian jarri behar dira lehentasunak, ez bakarrik “etorkizuna gazteena delako”, baizik eta, gainera, gazteen artean dagoelako euskaldun proportziorik altuena. Gaurko gazte euskaldun gehienek gaztelania dute lehen hizkuntza. Baina gazte horiek bihar-etzi familiak osatzean euskara ere transmititzen badute, horrek, etorkizuneko belaunaldien euskararen gaitasun eta erabileran modu erabakigarrian eragingo du.

2. Emaidza nagusiak

1. Biztanleria

Azken 30 urteak kontuan hartuz, 2001etik hona lehen aldiz, biztanleriak gora egin du EAEko hiru lurraldeetan. Azken hamarkadan etorritako atzerritarrei esker batez ere, errekuperazio demografiko txiki bat izan da, nahiz eta biztanleriaren zahartze-prozesuak aurrera jarraitzen duen.

1981-2011 epean, 65 urtetik gorako populazioaren ehunekoak ia 11 puntuko igoera izan du. 1981ean EAEn %9,2 ziren 65 urte baino gehiagokoak, 2011n, aldiz, %19,8 dira. Europako ehunekorik altuenetakoa da. Alemaniak eta Italiak baino ez dute gainditzen ehuneko hori.

Era berean, 20 urtetik beherakoen ehunekoa erdira jaitzi da. Horrela, 20 urte baino gutxiago zutenak 1981ean biztanleriaren %34,2 ziren; 2011n, aldiz, %17,6 dira. Gaur egun, 65 urtetik gorakoak 20 urtetik beherakoak baino gehiago dira EAEn (%19,8 versus %17,6).


EAEko biztanleriaren %80 hiriguneetan bizi da, 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerriren batean bizi baita. Halaber, populazioaren %35,4 hiru hiriburuetako batean bizi da.

Azken hamarkadan, 2001-2011ko tartean, atzerriko biztanleria bost aldiz handiagoa da. 2011n biztanleen %6,6 da atzerritarra, 2001ean, aldiz, %1,3 ziren atzerritarrak. Atzerriko biztanleria oso gaztea da, %90,3k 50 urte baino gutxiago ditu. Lurraldeei dagokienez, Araban atzerriko populazioaren ehunekoa askoz handiagoa da (%9), Bizkaian eta Gipuzkoan baino (%6,3 eta %6,2, hurrenez hurren).

2011-2012 ikasturtean EAEn 353.157 ikasle daude matrikulatuta araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioan. Horietatik %60,8, hau da, 214.755 ikasle, D ereduan daude matrikulatuta. B ereduan, berriz, 74.785 ikasle (%21,2), eta A eta X ereduetan 63.617 (%18). D eredua nagusi da ikasketa maila guztietan, Lanbide Heziketan izan ezik

2. Hizkuntza-gaitasuna


1. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, bost urte edo gehiagoko 2.056.136 pertsona bizi dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik, 749.182 pertsona (%36,4) euskaldunak² dira. Beste 396.922 pertsona (%19,3) euskaldun hartzaileak³ dira. Azkenik, 910.032 pertsona (%44,3) erdaldun hutsak⁴ dira.

2. irudia. Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1981-2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak

Atzera begiraturaz gero, ikusten da euskaldunen ehunekoak nabarmen egin duela gora azken 30 urteotan, 14,5 puntuko hazkundea izan baitu ehunekoetan. Euskaldunak %21,9 ziren 1981ean eta %36,4 dira 2011n. Gaur egun, orain dela 30 urte baino 318.000 pertsona gehiago da gai euskaraz ondo edo nahiko ondo egiteko.

² Euskalduna gai da euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko

³ Euskaldun hartzailea gai da euskaraz ondo ulertzeko, nahiz eta ondo ez hitz egin. Bestela, ondo ulertzeko gai ez bada, gai da zailtasunez bada ere, hitz egiteko.

⁴ Erdalduna ez da gai ez euskaraz ulertzeko ezta hitz egiteko ere.

2. EUSKARAREN BILAKAERA:

V. Mapa Soziolinguistikoa


Dena dela, azken hamarkadan biztanleriaren joan-etorriek, atzerriko etorkinen hazkunde handiak eta oraingoek baino euskaldunen ehuneko handiagoa zuten jende nagusiaren heriotzak euskaldunen hazkundera moteldu egin du. Euskaldunen hazkundera 2001etik hona 4,2 puntukoa izan da.

Lurraldeei dagokienez, 301.896 arabarretatik 69.196 euskaldunak dira (%22,9). Bizkaian, 1.091.277 pertsonetatik 331.087 euskaldunak dira (%30,3). Gipuzkoak du euskaldunen kopururik eta ehunekorik altuena. Izan ere, 662.963 gipuzkoarretatik, 348.899 euskaldunak dira (%52,6).

Bilakaerari dagokionez, lurralde guztietan egin dute gora euskaldunek, baina hazkunderik handiena Arabak izan du. Araban biztanleriaren %4 zen euskalduna duela 30 urte. Hortaz, ia 19 puntuko hazkundera izan du (%22,9 2011n). Bizkaian %15,2 ziren euskaldunak 1981ean, eta 15 puntu baino gehiagoko hazkundera izan du (%30,3 2011n). Azkenik, duela 30 urte ere Gipuzkoan zegoen euskaldunen ehunekorik handiena alde handiz (%40), eta igoera txikiagoa izan arren, 12 puntutik gorako hazkundera izan du (%52,6 2011n).

Eskualdeetan argiago ikusten da azken hamarkadan atzerriko jendearen etorrerak izan duen eragina zenbait eskualderen hizkuntza-gaitasunean; batez ere eskualde euskaldunetan. Horrezaz gain, umeak eta gazteak, hau da, euskaldunen ehunekorik altuena duten adin taldeak gutxitu egin dira. Horren ondorioz, eskualde horietako euskaldunen ehunekoak behera egin du, edo ez da hainbeste igo. Kontrakarik ere gertatu da eskualderik erdaldunenetan, eta bertara bizitzera joan den jendeak euskaldunen ehunekoa handitu egin du.


3. irudia. Atzerriko biztanleriaren jatorria. EAE, 2011 (%)



Iturria: Ikuspegi

Etorkinen hizkuntzari dagokionez, kontuan izan behar da EAEko atzeritarren %43, 62.500 pertsona inguru 2011n, Hego Amerikatik datorrela, beraz ia denak gaztelaniaz hitz egiten dutela. Horrek indartu egin du, zalantzarik gabe, gaztelaniaren presentzia.

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2011 (%)




Gasteizek lurraldearen antzeko egoera du. Izan ere, Arabako biztanleriaren zatirik handiena bizi da bertan (Arabako biztanleria osoaren %74,8) eta baita euskaldunena ere (Arabako euskaldunen %70,3). Gasteiztarren %21,5 dira euskaldunak, %19,6 euskaldun hartzaileak eta %58,9 erdaldunak. Bilakaerari dagokionez, 1981ean %3,5 ziren euskaldunak Gasteizen. Adinari dagokionez, Gasteizko euskaldunak oso gazteak dira. Horrela, 5-19 urte bitarteko gazteen bi heren euskaldunak dira (%66,1).

Bilbon bost urte edo gehiagoko 73.759 euskaldun bizi dira, eta zenbaki absolutuetan euskaldun gehien duen hiria da. Bilboko biztanleriaren %22,1 da euskalduna. 1981ean, %6,4 ziren euskaldunak Bilbon. EAEko joera orokorrari jarraiki, Bilboko euskaldunak oso gazteak dira. Izan ere, 5-19 urte bitarteko bilbotarren bi heren baino gehiago euskaldunak dira (%68,1).

Bost urte edo gehiagoko 69.057 euskaldun ditu Donostiak. Donostiarren %39,9 euskaldunak dira, eta EAEn euskaldunen ehunekorik handiena duen hiriburua da. 1981ean, %21,4 ziren euskaldunak Donostian. 30 urtetik beherako donostiarren lautik hiru euskaldunak dira (%73,4). Era berean, nagusiagoen artean ere handia da euskaldunen ehunekoa.


5. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2011 (%)



Iturria: Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuak


Adinari begiratu gero, elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago gaur egun: 25 urtetik beherako gazteen %73,2 elebidunak dira dagoeneko, hau da, 1981ean baino 54 puntu gehiago (1981ean 25 urtetik beherako elebidunak %19,3 ziren). Are handiagoa da, ordea, 15 urte baino gutxiagoko elebidunen ehunekoa (%81,4). Kontuan izan behar da 1981ean 15 urtetik beherako elebidunak %20 zirela. Dena dela, gazteen pisua biztanleria osoarekiko lehen baino murriztagoa denez, gazte elebidunen hazkundeak ez du horren eragin handirik biztanleria osoaren emaitzetan. Etorkizunerako proiektzioan du garrantzia datu honek.

6. irudia. Hizkuntza ereduaren bilakaera. EAE, 1983/84 - 2011/12 (%)



Adinaren araberako banaketak erakusten digunez, bistan da euskaltegiek ekarpen pisuzkoa egin dutela euskara-gaitasunaren gehikuntzan. Nolanahi ere, begien bistan dago nagusiki irakaskuntza-sistemari zor zaiola hizkuntza-gaitasunaren hazkundea. Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, irakas-hizkuntza aukeratzeko eskubidea euskalduntzearen mesedetan baliatu dute gurasoek, gero eta neurri handiagoan. 1983-1984 ikasturtean, irakaskuntza ez unibertsitario osoan (lanbide heziketa eta batxilergoak barne), A ereduan ikasleen %80 matrikulatu ziren, eta D ereduan %14; aldiz, 2011-2012 ikasturtean %18 baino ez dira A ereduan matrikulatuak, eta %61 D ereduan.

7. irudia. Gune soziolinguistikoen bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)



Gune soziolinguistikoei dagokienez, lehen gune soziolinguistikoan bost urte edo gehiagoko 178.591 pertsona bizi dira EAEn, biztanleria osoaren %8,7 hain zuzen. Horietatik 31.403 euskaldunak dira, hau da, euskaldun guztien %4,2. Araba eta Bizkaiko

22 udalerrri daude gune soziolinguistikoko honetan, eta Gipuzkoako bat ere ez. Udalerrri gehienak txikiak dira, landa eta nekazaritza inguruneetakoak, Enkarterri eta Arabako zenbait udalerrri, hain zuzen.

Bigarren gune soziolinguistikoko udalerrietan EAEko biztanleriaren bi heren bizi dira (%66,4), 1.365.969 biztanle. Horietatik 384.243 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien erdia baino gehiago (%51,3). Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 80 udalerrrik osatzen dute bigarren gunea. Hiru hiriburuak eta 50.000 biztanletik gorako hiri guztiak gune soziolinguistikoko honetan daude, Barakaldo izan ezik (lehenengo gunean dago).

Hirugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan 448.083 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren bostena (%21,8). Horietatik 280.008 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien herena baino gehiago (%37,4). Bizkaiko eta Gipuzkoako 87 udalerrri daude hirugarren gune soziolinguistikokoan. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak dira, Zarautz, Arrasate eta Eibar izan ezik. Industria indartsua duten udalerrriak dira horietako asko, tamaina ertainekoak eta komunikazio-ardatz nagusietan kokatuak.

Laugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan 63.493 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren %3,1. Horietatik 53.528 euskaldunak dira, hau da, euskaldun guztien %7,1. Bizkaiko eta Gipuzkoako 61 udalerrri eta Arabako udalerrri bakarra (Aramaio) daude gune honetan. Udalerrri txikiak dira gehienak, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte, Azpeitia eta Lekeitio izan ezik.

Bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke gero eta udalerrri gutxiago dagoela lehen eta laugarren gunean. Bigarren gunea hazi da gehien azken 30 urteotan, azken hamarkadan bereziki. Hirugarren gunea ere hazi egin da euskaldunen zein udalerrien kopuruari dagokionez.


3. Lehen hizkuntza eta hizkuntza bilakaera

Azken 20 urteotan oso gutxi aldatu den aldagaia da lehen hizkuntza. Biztanleen %18,6k euskara soilik jaso du etxean eta beste %4,9k euskara eta gaztelania jaso ditu. Era berean, lautik ia hiruk gaztelania soilik jaso du etxean (%72,6). Azkenik, %3,8k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso du.

8. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera.
EAE, 1991-2011 (%)


2. EUSKARAREN BILAKAERA:

V. Mapa Soziolinguistikoa



Euskaldunen lehen hizkuntzak izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu, euskaldunen %46,9k euskara hutsik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharra da. Euskaldun zaharrak 351.630 dira EAEn. Euskaldunen %10,9k euskara eta gaztelania jaso ditu, eta jatorrizko elebiduna da. 81.712 euskaldun jatorrizko elebidunak dira. Azkenik, etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak %42,2 dira, hau da, euskaldun berriak dira. 315.840 pertsona euskaldun berriak dira. Euskaldunak bakarrik aztertuz gero, beraz, elebidun gehienak euskaldun zaharrak dira, hau da, etxean ikasi dute euskara.


9. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)



Baina gazteei begiratzen badiegu, egoera oso bestelakoa dela ikusiko dugu. Izan ere, 35 urtetik beherako gazte euskaldunen erdiak baino gehiagok (%56,5) erdara du lehen hizkuntza, hau da, euskaldun berria da. 1991ean, 35 urtetik beherako elebidunen artean euskaldun berriak %32,8 baino ez ziren. Beraz, ia bikoiztu egin da.

4. Etxeko erabilera

10. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011 (%)


Etxeko erabilerak puntu bat egin du behera azken 20 urteotan. EAEko biztanleen %20,8 dira euskara etxean gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Esan behar da, nolana ere, euskararen erabilerak oro har gora egin duela, Inkesta Soziolinguistikoa ikus daitekeenez. Baina gehikuntza orokorra esparru formaletan gertatu da, ez etxean. Halere, gaur oraindik etxean euskararen erabilera zertxobait handiagoa da gizarte bizitzan baino. Etxean %20,8 eta gizarte bizitzan, oro har, %20. Euskara gaitasunean hiru hamarkadotan gertatu den hazkunde jarraituak ez du, beraz, etxeko erabileran hazkunderik ekarri (ez handi, ez txiki), nahiz eta euskaraz jarduteko gai diren herritarrak askozaz gehiago izan. Kontuan izan behar da, bestalde, gaurko euskaldunek ez dutela atzokoek adina erabiltzen euskara etxean. Ondorioz, etxeko erabileran ez da gehikuntzarik gertatzen.

Gaztelaniaren erabilerak ere jaitsiera txiki bat izan du: 1991n %77,6koa zen gaztelaniaren erabilera eta 2011n %77,1. Azpimarratzekoa da etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen hazkundera. 1991n %1 baino gutxiago ziren eta 2011n %2,1 dira.

Etxean euskara gehien erabiltzen dutenak 20 urtetik beherako gazteak dira (%16,7).


Igoera hori elebidun gazteen kopurua asko handitu delako gertatu da.

11. irudia. Euskaldunen hizkuntzaren erabilera etxean. EAE, 2011 (%)



Euskaldunek (ez dira kontuan hartzen euskaldun hartzaileak) etxean egiten duten euskararen erabilera erreparatzen badiogu, ikusiko dugu euskaldunen %36,3k euskara erabiltzen duela etxean, %17,7k biak erabiltzen dituela, eta gainerako %46k ez duela euskararik erabiltzen etxean.

12. irudia. Euskaldunen hizkuntzaren erabilera etxean lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2011 (%)




Euskaldunen irabazirik handienak euskaldun berrietatik datoz. Gero eta euskaldun gehiago dago etxean erdara soilik jaso duena eta euskara etxetik kanpo ikasi duena. Lehen hizkuntza erdara izateak eragin zuzena du euskara erabiltzeko erraztasunarekin. Horrez gain, harreman-sarea erdalduna izateak, kasu honetan etxeko kide guztiak edo batzuk erdaldunak izateak, zaildu egiten du euskaraz egitea etxean.

Euskaldunen erabilera lehen hizkuntzaren arabera aztertuz gero, garbi ikusten da lehen hizkuntza euskara izateak duen eragina etxeko erabileran. Horrela, lehen hizkuntza euskara hutsik izan dutenen, hau da, euskaldun zaharren %66,7k euskara erabiltzen du etxean eta %18,4k euskara eta erdara. Euskaldun berrien kasuan, aldiz, erabilera

txikiagoa da. Izan ere, lehen hizkuntza erdara izan duten euskaldunen %7,1ek euskara erabiltzen du etxean eta %11k euskara eta erdara

14. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011

Horrek guztiorrek esan nahi du, euskara ezagutzea baino zerbait gehiago behar dela euskara ohikotasunez eta etxeko giroak eskatzen duen naturaltasunez erabiltzeko.

3. EUSKARAREN MARKO LEGALA

Euskara erabiltzen den lurraldean esparru juridiko ezberdinak daude, eta alde handiak daude euskararen aitortzari dagokionez.

Horrela Iparraldean (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa), frantziar Estatuan, euskarak ez du ofizialtasun izaerarik. Hegoaldean, espainiar Estatuan, bi esparru daude:

- Euskal Autonomia Erkidegoan (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba) euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera.
- Nafarroako Foru Erkidegoan euskara ofiziala da, gaztelaniarekin batera, lurraldearen zati batean.

Espainiar Estatuan badira euskararen erabilerari eragiten dioten eta estatu mailakoak diren funtsezko arau batzuk:

- 1978ko Konstituzioa
- Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Espainiako barne-zuzenbidean dagoena 2001eko otsailaren 2an Espainiako Gobernuak berretsi zuenean xedatutakoaren arabera (2001eko irailaren 15eako BOE, 222. zk.)

Bestalde, bada Eusko Jaurlaritzak onartutako arau multzo nagusi bat.

ARAUDI OROKORRA:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutakoa. Estatutuaren 6. artikuluan xedatzen denez, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da, eta hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiak dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea (EHAA 32. zk. – 1980ko urtarrilaren 12koa)
- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilpena arautzekoa: Autonomia Estatutuan xedatutakoa garatzen du (EHAA 160. zk. – 1982ko abenduaren 16koa).
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa (EHAA 144. zk. – 1989ko uztailaren 28koa).
- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (1993ko otsailaren 25eko EHAA).
- Otsailaren 19ko 2/1993 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez Kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzkoa (1993ko otsailaren 25eko EHAA). 48-54 artikuluetan arautzen da hizkuntza normalkuntza.
- Abenduaren 22ko 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena (EHAA 254. zk. – 2003ko abenduaren 30ekoa).

3. EUSKARAREN MARKO LEGALA

- Eusko Legebiltzarraren 3/2007 LEGEA, apirilaren 20koa, *Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute* Sortzeko eta Arautzekoa (EHAA 89. zk. – 2007ko maiatzaren 10ekoa).
- 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa (EHAA 204. zk. – 2007ko urriaren 23koa).
- Otsailaren 9ko 2/2012 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legea aldatzekoa.

ARLOZ ARLOKO ARAUDIA:

Aurretik zerrendatutakoak euskararen erabilerari eragiten dioten arau orokorrak dira, baina horiez gain berariazko beste arau batzuk ere badaude arlo jakinei begira:

Administrazio publikoak

- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena (EHAA 72. zk. – 1997ko apirilaren 17koa).
- Hizkuntza irizpideak kontratazioan. Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an honako Akordio hau hartu zuen: Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatupeko ente publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzei buruzko Akordioa.
- 233/2012 DEKRETUA, azaroaren 6koa, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena (EHAA 239. zk. – 2012ko abenduaren 12koa).

233/2012 Dekretuaren bidez indarrrik gabe gelditu zen abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretua, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren barruan Kultura Sailak txostenak bideratzeko bete behar duen araudia ezartzen duena (EHAA 178. zk. – 2007ko irailaren 14koa).

- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana IV. Plangintzaldirako (2008-2012)
- Apirilaren 3ko 48/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duena.
- Urtarrilaren 3ko 1/2014 Ebazpena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabaki bat argitaratzeko dena: V. Plangintzaldiko (2013-2017) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia onartzeari buruzkoa (2014-01-24ko EHAA).

Irakaskuntza

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza

3. EUSKARAREN MARKO LEGALA

- 138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena (EHAA 108. zk. – 1983ko uztailaren 19koa).
- 47/1993 Dekretua, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena (1993ko apirilaren 2ko EHAA).
- 42/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituen Dekretua aldatzeko dena (1998ko martxoaren 24ko EHAA).
- 263/1998 Dekretua, urriaren 6koa, Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakaspostuetarako Hizkuntz Eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berresten dituena (1998ko urriaren 23ko EHAA).
- 6/2000 Dekretua, urtarrilaren 18koa, irakaspostuen hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezkotasun-datak ezartzeko irizpideak finkatzen dituen Dekretua bigarrenez aldatzeko dena (2000ko urtarrilaren 20ko EHAA).
- 25/2001 Dekretua, otsailaren 13koa, Ikerketarako eta Irakaskuntzaren Laguntza Zerbitzuetako (ISEI, BERRITZEGUNE eta IIHII) lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak zehazteko berariazko araubidea finkatzen duena (2001eko otsailaren 20ko EHAA).
- 343/2001 Dekretua, abenduaren 11koa, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuek izan beharreko hizkuntza eskakizun eta derrigorrezkotasunak zehazteko araubide espezifikoak ezartzen duena (2001eko abenduaren 21eko EHAA).
- 368/2001 Dekretua, abenduaren 26koa, otsailaren 13ko 25/2001 Dekretua aldatzen duena. Dekretu haren bidez, Ikerketarako eta Irakaskuntzaren Laguntzarako Zerbitzuetako (ISEI, BERRITZEGUNE eta IIHII) lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak zehazteko berariazko araubidea finkatu zen (2002ko urtarrilaren 4ko EHAA).
- 182/2002 Dekretua, uztailaren 23koa, Araubide Bereziko Irakaskuntzetako eta Helduen Hezkuntzako irakasleen lanpostuetako hizkuntza eskakizunak zehazteko irizpideak eta derrigortasun datak ezartzeko dena (2002ko abuztuaren 13ko EHAA).
- 297/2002 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena (2002ko abenduaren 31ko EHAA).
- 179/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duena (2003ko uztailaren 31ko EHAA).
- 323/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Hizkuntz Normalkuntzako Ulibarri programa arautzen duena (2003ko abenduaren 31ko EHAA).
- 66/2005 Dekretua, apirilaren 5koa, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntz eskakizunak sortu eta arautzen dituena (2005eko apirilaren 14ko EHAA).
- Agindua, 2012ko martxoaren 12koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta atzerriko hezkuntza-sistema

3. EUSKARAREN MARKO LEGALA

bateko ikasketak eta Espainiako eta Euskal Herriko hizkuntza eta kulturari buruzko ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia irakasgaiak ezartzen eta arautzen dituen (2012-04-20ko EHAA).

Unibertsitatea

- 192/1996 Dekretua, uztailaren 23koa, Euskal Herriko Unibertsitatean “Euskarako Institutua” izeneko unibertsitate-institutua sortzeko dena (1996ko abuztuaren 16ko EHAA).
- 322/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko estatutuak onartzen dituena (2004ko urtarrilaren 12ko EHAA).
- 3/2004 Legea, otsailaren 25koa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (2004ko martxoaren 12ko EHAA).
- 17/2011 DEKRETUA, otsailaren 15koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena (2011ko otsailaren 24ko EHAA).
- 2013ko abenduaren 19ko Erabakia, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarena, UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria onartzeko dena (2014ko otsailaren 19ko EHAA).

Gizarte hedabideak

- Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea (1982ko ekainaren 2ko EHAA).
- 157/1982 Dekretua, Euskal Telebista-Televisión Vasca S.A. akziokako Herri-Baltzua sortarazteari buruz (1982ko abuztuaren 16ko EHAA).
- Uztailaren 19ko 158/1982 Dekretua, Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca S.A. akziokako Herri-Baltzua sortarazteari buruz (1982ko abuztuaren 17ko EHAA).
- Azaroaren 11ko 240/1986 Dekretua, Maiztasun Modulatuak Uhin Metrikoetako Irrati hedapeneko emisorentzako baimena emateko prozedura jartzen duena (1986ko azaroaren 19ko EHAA).
- 138/1994 Dekretua, martxoaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Erakundeei frekuentzia modulatuak uhin metrikoetarako irratizabalkunde zerbitzu publikorako baimena emateko modua arautzen duena (1994ko apirilaren 7ko EHAA).
- 190/2006 Dekretua, urriaren 3koa, Lurreko uhinen bidezko tokiko telebista-zerbitzua arautzen duena (EHAA 202. zk. – 2006ko urriaren 23koa).

Osasuna

- Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena (1997ko uztailaren 21eko EHAA).
- Martxoaren 18ko 67/2003 Dekretua, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzea. Garrantzi handikoa da, eta bertan ezartzen dira

3. EUSKARAREN MARKO LEGALA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren oinarriak (2003ko martxoaren 31ko EHAA).

- 2013ko abenduaren 3ko Erabakia, Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana onartzen duena (2014ko otsailaren 11ko EHAA).

Justizia

- Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa. Lege honetako 231. artikuluan arautzen da Estatuko hizkuntzen erabilera justizia administrazioan.
- Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenaren eta Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzaren Hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa (1999ko apirilaren 9ko EHAA).
- 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari buruzkoa (EHAA 132. zk. – 2010eko uztailaren 12koa).

Halaber, Dekretu horren bidez indargabe geratzen da 117/2001 Dekretua, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari buruzkoa (EHAA 132. zk. – 2010eko uztailaren 12koa).

Ertzaintza

- Uztailaren 17ko 4/1992 Legea, Poliziari buruzkoa (1992ko abuztuaren 11ko EHAA). Lege honetako 39. artikulua xedatzen duenez, Euskal Administrazio publikoak bere menpean dauden poliziako funtzionarioek behar bezalako hizkuntza-gaitasuna lor dezaten saiatuko dira.
- Otsailaren 24ko 30/1998 Dekretua, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duena (1998ko martxoaren 6ko EHAA).
- 76/2012 DEKRETUA, maiatzaren 22koa, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen Dekretua aldatzen duena (EHAA 45. zk. – 2012ko ekainaren 5koa). Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen 30/1998 Dekretua (EHAA 45. zk. – 1998ko martxoaren 6koa), otsailaren 24koa, aldatzen du, eta euskararen ezagutzari dagokion eskakizun maila igotzen du: Ertzaintzaren 2. hizkuntza eskakizuna.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileak

- Abenduaren 22ko 6/2003 Legearen bidez Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zen. Bertan aitortutako eskubideen artean daude hizkuntza eskubideak, herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan ere baliatu ditzaketanak.
- 123/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa (EHAA 135. zk. – 2008ko uztailaren 16koa)
- 204/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko Dekretua aldatzekoa (EHAA 142. zk. – 2010eko uztailaren 26koa).

3. EUSKARAREN MARKO LEGALA

- Otsailaren 9ko 2/2012 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legea aldatzekoa.

Horiez gain:

- 53/2009 DEKRETUA, martxoaren 3koa, Bikain-Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eta Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen dituena (EHAA 52. zk. – 2009ko martxoaren 16koa).
- 88/2009 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitazioari buruzkoa (EHAA 81. zk. – 2009ko maiatzaren 4koa).
- Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena (EHAA 74. zk. – 2012ko apirilaren 16koa).
- 222/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzekoa (EHAA 232. zk. – 2012ko azaroaren 30ekoa).
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkuran onartu zen 2012ko uztailaren 18an, eta gerora baita Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordean ere, 2012ko uztailaren 24an. Eusko Legebiltzarrak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana berretsi zuen 2013ko irailean.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

“ESEP, Ildo estrategikoen AMIA proposamenak” izeneko azterlana Euskararen Aholku Batzordeak eskatuta Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elkarlanean egindako ikerketa da. AMIA prozesu sakon baten emaitza da, hainbat eragile eta adituren ikuspuntua zein ekarpenak biltzen dituena.

ESEPeko neurketaren ildo estrategikoei jarraiki, hiru ildo estrategikoen eta zehar-lerro baten AMIA analisisia egin da. Hiru ildo estrategikoen (gaitasun eta jabetasuna, erabilera eta elikadura) azterketa egiteko diagnostikoan jasotako informazioaz baliatu gara. Zehar-lerroa den motibazioen eta jarreraren azterketa egiteko, berriz, diagnostikoaz gain 2014 urtean zehar egindako diskurtsoaren lanketaz baliatu gara (foroa, delphiak, zenbait adituren ekarpenak, etab.).

Bestalde, txostenaren lanketarekin hasi aurretik azalpen pare bat. Lehenengoa, aukera eta mehatxuen atalari dagokio. Jabetuko zareten moduan, atal hauek landu ditugunean, ez dugu ohiko kanpo faktoreen azterketa egin. Kasu honetan egindako diagnostikotik eta azterketatik abiatuta etorkizunean egoera bideratzeko dauden aukeren eta mehatxuen gaineko azterketa egin dugu.

Bestetik, badira kasu batzuk non egoera jakin bat bi aldeetan koka dezakegun, bai indargune moduan zein ahulezia moduan, edo aukera eta mehatxu moduan. Kasu horiek bi modutan azter daitezke, aukera eginez zer den gehiago indargune edo ahulezia eta ñabardurekin bietako batean kokatuz, edo bi aldeak dituzenez bietan kokatuz, indarguneetan zein ahulezietan. Gure kasuan bi aldeetan kokatzea hobetsi dugu, biak ala biak aztertzerakoan aintzat har daitezzen.

1.- Euskara-gaitasuna eta jabekuntza

INDARGUNEAK

GAITASUNA ETA TRANSMISIOA

Gero eta elebidun gehiago, batez ere gazteenen artean

- Gaitasunari dagokionez, EAEko 5 urtetik gorako biztanleen %36 elebiduna da, eta %19 elebidun hartzailea. Kopuru absolutuetan, 749.182 elebidun eta 396.922 elebidun hartzaile. Elebidun hartzaileek ahalbidetzen dute, neurri batean, zenbait egoeratan euskara baliatzea.
- Euskal Herrian, 16 urtetik gorako 714.000 elebidun dago, duela hogeita hiru urte baino 185.000 gehiago; %22 izatetik %27 izatera pasa dira.
- Horretaz gain, 16 urtetik gorako biztanleen artean, lehen hizkuntza euskara dutenak nagusi dira Nafarroa Beherean/Zuberoan (%51). Gipuzkoan %34k du euskara lehen hizkuntza; gainerako lurraldeetan askoz gutxiago dira. Datu horrek indargune bat suposatzen du bi herrialde horietan.
- Gero eta elebidun gehiago dago EAEko 2. eta 3. gune soziolinguistikoetan, hau da, biztanleria gehien duten udalerrietan.

Familia bidezko transmisioa osorik bermatzen ari da

- Euskal Herrian orokorrean lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handienak bi adin tarte ezberdinetan daude: 65 urtetik gorako helduen artean eta, neurri berean, 24 urtetik beherakoengan. Beraz, joera-aldaketa dago gazteengan, eta handitu egin da bai euskara, bai euskara eta erdara, dituztenen ehunekoa.
- Guraso biak elebidunak diren kasuetan, bikote horien seme-alaba gehien-gehienek euskara (soilik ala erdararekin batera) jaso dute etxean: EAEn %92k, Nafarroan %83k eta Iparraldean %80k.
- Orokorrean, Nafarroan eta EAEn transmisio-joerak antzekoak dira, nahiz eta EAEn Nafarroan baino handiagoa den euskara hutsezko transmisioa. Iparraldean, ordea, guraso biak elebidunak izanik, asko dira euskara eta frantsesa batera transmititzen dituztenak (%33).

Elebidun gehienek euskara gorde egin dute

- EAEn lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan dituzten gehien-gehienek euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun (%88). Euskararen gainerako lurraldeetan ere gehienek euskara gorde egin dute eta elebidunak dira egun: %83k Nafarroan eta %75ek Iparraldean.
- Galera gehienak galera partzialak izan dira, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

Elebidun ez ziren batzuek ikasi egin dute

- Aldi berean, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, euskara 2. hizkuntza bezala ikasi eta gaur egun elebidun diren 250.000 pertsona daude, 1991n baino 178.000 lagun gehiago. Horiek euskararen irabaziak dira, euskaldun berriak alegia.
- Horrela, euskara ikasi dutenak 220.000 lagun dira EAEn (1991n baino 160.000 gehiago), 23.500 Nafarroan (1991n baino 17.000 gehiago) eta 7.000 Iparraldean (1991n baino 5.000 gehiago). Irabazien hazkundera eta galeren ia desagertzea EAeko eta Nafarroako gazteen artean antzematen da bereziki, baita, neurri apalagoan bada ere, Iparraldeko gazteen artean ere.

Elebidunen multzoan gero eta gehiago dira euskaldun berriak

- Elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. 1991n elebidun gehienak euskaldun zaharrak ziren. 2011n, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, 27 puntuko jaitsiera izan dute. Hazkunderik handiena euskaldun berriek izan dute, 21,3 puntuko hazkundera hain zuzen. Gazte elebidunen arteko euskaldun berrien nagusitasuna argia da EAEn eta Nafarroan, eta Iparraldean ere gero eta gehiago dira.

IRAKASKUNTZA

Ikasle gehienak euskal eredueta unibertsitatez kanpoko ikasketetan, eta unibertsitatean gero eta gehiago euskal adarretan

- EAeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako ikasleen %63k D ereduari ikasten zuten 2011-2012 ikasturtean, eta %20k B ereduari. %16k baino ez zuten ikasten A ereduari.
- Irakasleen artean ere, 2011-2012 ikasturtean, unibertsitate aurreko irakaskuntzan zebiltzanetatik %84k irakaskuntzako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatua zuen (C1 maila edo EGA mailaren baliokidea) eta goranzko joera etengabekoa da. %4k 1. hizkuntza eskakizuna (B2 maila) du.
- Unibertsitatean, soilik EHUko datuak kontuan hartuta, 2010-2011 ikasturtean lehen matrikula egiterakoan, euskal adarra aukeratu zuten ikasleen proportzioa (%43) azken hamar ikasturteetan baino zazpi puntu handiagoa da (2001-2002 ikasturtean %36 izan ziren).

Selektibitate frogetan ere euskara nagusi

- Selektibitateko frogetan, gainditzen dituzten ikasleen portzentajeak handiagoak dira D ereduarekin A ereduarekin baino.
- 2010ean selektibitate gaitu zuten hamar ikasletatik seik azterketa euskaraz egin zuten eta lauk gaztelaniaz. 1999an hamar ikasletatik seik baino gehiagok gaztelaniaz egin zuten froga eta hiru inguruk euskaraz.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Euskara ikasten ari direnak dezente dira

- 2012-2013 ikasturtean 104 euskaltegi ziren EAEn eta 32.739 ikasle. 2013-2014 ikasturtean eten da aurreko urteetan izandako beherakada.
- Iparraldean eta Nafarroan, azken urteetan izandako ikasleen beherakadari aurre hartu zaio eta azken ikasturtean hazkundea eman da.

Ikasleen galera eten egin da

- Azken ikasturteetan euskara ikasleak galtzen ari direla esan dugu. Hala ere, 2013-2014 ikasturtean beheranzko joera jarraitu horri galga jarri zaio. Aurreko hiru urteetan batez beste %6,3 izan zen jaitsiera %1,2ra murriztu da urte batean.
- Autoikaskuntzako ikastaroek indarra hartu dute sortu zirenetik, azkenaldian lortutakoan mantentzen ari badira ere.

Euskara ikastea merkeago

- Euskara ikastea beste hizkuntzak ikastea baino askoz merkeagoa da.

Mintzapraktika programaren arrakasta

- Mintzapraktika programa euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohitura ez duten pertsonekin elkartzean datza. EAEn 64 egitasmo burutu ziren 2008-2009 ikasturtean: 562 talde, eta 2.840 lagun.
- 2009an, Mintzapraktika egitasmoaren balorazio orokorrari (0-10 eskalan), bidelagun zein bidelariak eman zioten batez besteko puntuazio oso altua izan zen: 8,6koa bidelagunek eta 8,5koa bidelariak; hortaz, parte hartzaileen asebetetze maila oso altua izan zen.
- Mintzapraktika programak elkarlanerako aukerak zabaldu ditu. Izan ere, euskaltegiak, hizkuntza eskolak, eskolak, euskara taldeak, udalak eta Eusko Jaurlaritza biltzen dira egitasmo honen bueltan.

AHULEZIAK

GAITASUNA ETA TRANSMISIOA

Gaitasunari dagokionez lurralde batetik bestera dagoen aldea

- EAEko hiru lurraldeak kontuan hartuz, euskararen gaitasunari dagokionez, lurralde batetik bestera dauden aldeak handiak dira. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 urtetik gorako gipuzkoarren erdiak elebidunak dira, bizkaitarren laurdenak, Iparraldeko 16 urtetik gorakoen bostenak, arabarren %17 eta nafarren %12.

Gune geografiko euskaldunenetan, azken 20 urteetan elebidunen kopuruak behera egin du

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Euskal Herriko gune euskaldunenean, elebidunak gehiengo garbia izanagatik, azken 20 urteetan horien kopuruak behera egin du: 1991n biztanleen %90 zen elebiduna 4. gunean eta 2011. urtean %83.

Elebidunen gorakada ez da lurralde guztietan gertatzen ari

- Iparraldean, galerak daude oraindik elebidunen proportzioetan; 1996. urtean %26 ziren, eta 2011. urtean, berriz, %21 dira.

Badira seme-alabei euskara transmititzen ez dietenak

- Bi gurasoak elebidunak direnean, oso gutxi dira euskara transmititzen ez dutenak; hala ere, badira gutxi batzuk oraindik ere euskara transmititzen ez dutenak bikote elebidunen artean (EAEn %3 eta %4 Nafarroan). Iparraldean, ordea, handiagoa da ehuneko hori (%13).
- Gurasoetako bat baino elebiduna (bikote mistoak) ez den bikoteen kopurua gorantz doa eta kasu horietan euskararen transmisioa ahuldu ohi da: Iparraldean gehiago dira euskara transmititzen ez dutenak (%44), EAEn eta Nafarroan baino (%29 eta %33, hurrenez hurren).
- Hala ere, esan beharra dago euskararen transmisioan desberdintasun handiak daudela adinaren arabera; EAEn adinean behera egin ahala euskararen transmisioa gero eta handiagoa da, eta 2-15 urte bitarteko seme-alabak dituztenetan euskara eta erdara transmititu dituzte bikote mistoen %71k.

Biztanle gehienek gaztelania soilik jaso dute etxean

- EAeko biztanleetatik, hamarretik zazpi (%73) gaztelania soilik jaso dute etxean. Gainerakoetatik, %4k euskara ez den beste hizkuntza bat dute.
- EAeko hiru lurraldeetan nagusi dira lehen hizkuntza erdara dutenak, baina alde handia dago lurralde batetik bestera: Gipuzkoak du portzentajerik txikiena lehen hizkuntza erdara dutenen artean, eta gainerako bi lurraldeetan nagusitasun osoa du erdarak.
- Euskararen lurralde guztiei erreparatuz, soilik Nafarroa Beherea/Zuberoan dira nagusi lehen hizkuntza euskara dutenak. Hala ere, gainontzeko lurraldeetan ez bezala, Iparraldean, 24 urtetik beherako artean gero eta txikiagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa.

Elebidunen multzoan gero eta gehiago dira erdal elebidunak, hegoaldean elebidunen multzorik zabalena osatuz

- Elebidunen erraztasun erlatiboari dagokionez, erdal elebidunek, hau da, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnek osatzen dute multzorik handiena EAEn eta Nafarroan, eta gero eta gehiago dira Iparraldean. Zehatzago, EAeko 16 urte edo gehiagoko elebidunen %27 dira euskal elebidunak, %30 elebidun orekatuak eta %43 erdal elebidunak. Nafarroan ia elebidunen erdia erdal elebiduna da (%48). Iparraldean, gehienak elebidun orekatuak badira ere (%43), elebidunen herena da erdal elebiduna (%31).

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Azken 20 urteotako EAEko bilakaerari dagokionez, gaur egun euskal elebidunak 1991n baino gutxiago dira. Gero eta gehiago dira, ordea, elebidun orekatuak eta erdal elebidunak. Nafarroan, aldiz, 1991n dezente gehiago ziren euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen ziren elebidunak, eta azken datuen arabera, dezente handitu da erdaraz hobeto moldatzen direnen portzentajea. Iparraldean, azkenik, gutxiago dira euskaraz hobeto moldatzen direnak, eta gehiago bi hizkuntzetan berdin moldatzen direnak 1996ean baino.

Elebidun hartzaileak gero eta gehiago dira, erraztasunean duen eraginarekin

- EAEko 5 urtetik gorako biztanleen %19 elebidun hartzaileak dira. Kopuru absolutuetan, 396.922 elebidun hartzaile. Alegia, euskara zertxobait ikasi, bai, baina euskalduntzat jotzeko behar besteko mailarik ez dutenak.

IRAKASKUNTZA

Eskoletan lortzen den euskara maila ez da behar adinako kasu askotan

- EAEn, Lehen Hezkuntza 6. mailako ikasleei egindako frogetan, euskara B1 maila gainditzen ez dutenen kopurua %51 da. Hiru ereduaren arteko aldeak esanguratsuak dira: eskatzen den maila A ereduaren %2k baino ez du lortzen; B ereduaren %39k eta D ereduaren %67k.

Unibertsitate aurreko irakaskuntzan, euskarazko ereduaren banaketa oso ezberdina da lurralde batetik bestera

- EAEn ikasle gehienak D ereduaren ari dira (%63, 2011-2012 ikasturtean), baina desberdintasunak azpimarragarriak dira hiru lurraldeen artean: Gipuzkoako ikasleen %78k D ereduaren ikasi zuten, Bizkaiko ikasleen %58k eta Arabakoaren %44k.

Oraindik ere Lanbide Heziketan A ereduaren nagusi

- Lanbide Heziketan eta Hezkuntza Berezian ia hiru laurden A ereduaren zebiltzan 2011-2012 ikasturtean, eta soilik laurdena D ereduaren. Hori oztopo handia izan daiteke lan-munduko euskararen normalkuntzarako.

Ikasle gehienek gaztelaniaz ikasten dute unibertsitatean

- 2009-2010 ikasturtean unibertsitateetan matrikulatutako ikasleetatik (Deusto, EHU eta Mondragon unibertsitateetan) %61 gaztelaniaz eta %39 euskaraz aritu ziren. Aldea, beraz, oso handia da araubide orokorreko irakaskuntzarekin alderatuta.
- EHUko datuak soilik kontuan hartuta, 2010-2011 ikasturtean, zientzia eremuaren araberrako banaketan erdia baino gutxiago dira alor guztietan euskal adarra aukeratu zuten matrikulatutako ikasle berriak: arte eta giza zientzietan (%49), zientzietan (%48), ingeniari eta arkitekturako ikasleak (%32).

Gradu-ondoko eskaintza gehiena ez da euskaraz

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Gradu-ondoko master ofizialen kasuan gehienak ez dira euskaraz eskaintzen: 2010-2011 ikasturtean eskaini ziren 100 masterretatik 81 gaztelaniaz edo euskara ez den beste hizkuntza batean eskaini ziren. Euskara hutsez soilik 2 izan ziren eta ele bietan 17.

Doktorego tesietatik oso gutxi aurkezten dira euskaraz

- 2010-2011 ikasturtean EHUn aurkeztu ziren 328 doktorego tesietatik %9 baino ez ziren euskaraz aurkeztu; %73 gaztelaniaz eta %18 ingelesez aurkeztu ziren.

Unibertsitatean euskararen normalkuntza motel

- EHUn 2010-2011 ikasturtean unibertsitateko irakasleen %36 baino ez zen elebiduna, eta %64 ez elebiduna.
- Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren artean (AZP), postuen %64k 2. hizkuntza eskakizuna dute; %25ek hirugarrena, %10ek lehena eta %1ek laugarrena.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Euskaltegi kopurua apur bat gutxitu da

- 2000-2001 eta 2012-2013 ikasturteen artean euskaltegi kopurua apur bat gutxitu egin da: 8 euskaltegi gutxiago.

Ikasle kopuruak behera egin du azken ikasturteetan

- Helduen euskalduntzean, 2010etik 2012ra bitartean, ikasturte hasieran euskara ikasten hasi ziren ikasle kopuruaren jaitsiera izan da, jaitsiera nabarmena gainera (-%19koa guztira) eta jarraitua (-%6,3, -%5,5, -%7,1, urtez urte).

Ikastaroek gero eta trinkotasun gutxiago

- Ikastaroen trinkotasunari dagokionez, nabarmena da, ikasturtez ikasturte, gero eta trinkotasun gutxiagoko erritmoak ari direla indartzen.

EGA azterketara aurkeztu direnen %22k gainditu dute soilik

- 2013 urtean 11.977 pertsona aurkeztu ziren EGA azterketara. Horietatik, 2.656k baino ez zuten gainditu froga, aurkeztutakoen %22k.

AUKERAK

GAITASUNA ETA TRANSMISIOA

Euskarazko gaitasuna gazteenengandik hedatzen jarraitzea

- EAEn eta Nafarroan 24 urtetik behera dago elebidunen ehunekorik handiena. Iparraldean, aldiz, 65 urtetik gorakoan artean dago elebidunen proportziorik

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

handiena, baina 24 urtetik beherakoen artean gora egiten hasi da, eta horrek beheranzko joera aldatzen ari dela erakusten du.

Familia bidezko transmisioa osorik bermatzea

- Gurasoak elebidunak edo mistoak izanik, gero eta txikiagoa da familiako euskararen transmisio eza. EAEn eta Nafarroan oso gutxi dira –gero eta gutxiago– euskara transmititu ez duten bikote elebidunak (%3 eta %4 hurrenez hurren).
- Euskararen familia bidezko transmisioan aldaketarik handiena bikote mistoen artean gertatu da. Adinaren arabera bilakaeran ikus daitekeenez, lehen gehienek ez zuten euskararik transmititzen, eta orain herena baino ez da transmititzen ez duena EAEn zein Nafarroan, eta %44 Iparraldean. Aukera dago, batez ere bikote mistoen kasuan, transmisioa proportzio handiagoetan bermatzeko.

Familiaz kanpoko transmisioaren garrantzia

- Elebidunen multzoan azken 20 urteetan emandako hazkunderik handiena da, jatorriz etxean euskara jaso gabe ere, euskara hezkuntza sistemaren zein helduen euskalduntzearen bidez ikasi dutenena. Badago tartea oraindik transmisio aukerak zabaldu eta hobetzeko.

IRAKASKUNTZA

Euskarazko ikastereduen transmisio ahalmena bermatzea (unibertsitate aurreko ikasketetan)

- 1983-1984 ikasturtetik gaur egun arte D ereduak etengabeko goranzko joera izan badu ere, eta B ereduak apur bat handitu bada ere, euskara B1 maila gainditzen duten ikasleen proportzio mugatuak erakusten dute badagoela hobetzeko tartea.
- Aukera dago, egungo neurriak sendotuz eta orokortuz gero, unibertsitate-eremuan ere aurrerapausoak ematen jarraitzeko euskalduntze bidean.

Graduatu elebidunen gorakadak ondo prestatutako giza-baliabideak eskaintzen dizkio euskarari

- Indarguneen atalean esan dugu unibertsitatean gero eta ikasle gehiago matrikulatzen direla euskal adarretan. Hauek etorkizunean ongi prestatutako giza-baliabidea izango dira euskararen aurrerabiderako sektore guztietan.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Irakasleen esperientzia handiagoa, transmisioaren mesedetan

- Irakasleriari dagokionez, 2000-2001 ikasturtean, hamar irakasletatik bederatzik 40 urte edo gutxiago zituzten (%89), eta 2012-2013 ikasturtean, berriz, 40 urte edo gutxiago zituztenak %35 baino ez ziren. Pentsatzekoa da euskalduntze esperientzia eta eskarmentu handiagoa izango dutela irakasle hauek. Gainera, gehien-gehienek

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

unibertsitate ikasketak dituzte. Horrek guztiak irakas-ahaleginen efizientzia areagotu dezake.

Gero eta jende gehiago Mintzapraktika programetan parte hartzen

- Mintzapraktika programan, bost ikasturteetan izugarri handitu zen parte hartzaileen kopurua: 2008-2009 ikasturteko datuak ia hirukoiztu egin zuen bost urte lehenagokoa. Programa horrezaz erabiltzaile edo parte hartzaile mota ezberdinek egiten duten balorazio oso onak azpimarratzen du ekimena hobetzeko eta gizartean gehiago hedatzeko egokitasuna.

MEHATXUAK

GAITASUNA ETA TRANSMISIOA

Elebidun askoren euskarazko gaitasun mugatuak ez du erabilera bermatzen

- Euskara familia bidez jaso ezean, hezkuntza sisteman zein helduen euskalduntze-sisteman euskalduntzen diren elebidunek zailagoa dute gaitasun osora edota erdaraz duten maila berberera iristea. Multzo hori gero eta handiagoa da lurralde guztietan.
- Elebidunen gehiengoa erdal elebidunek osatzen dute eta beren gaitasuna desorekatua da erdaren (gaztelania edo frantsesaren) mesedetan. Hortaz, elebidun horiek euskaraz jarduteko duten erraztasuna murriztuagoa da erdarazkoa baino eta, horren ondorioz, euskara erabiltzeko joera ahuldua suertatuko da.
- EAEko 5 urtetik gorako bost biztanleetatik bat (396.922 herritar) elebidun hartzailea da. Alegia, euskara zertxobait ikasi, bai, baina euskal hiztuntzat jotzeko behar besteko mailarik ez duena. Kasu horietan asko areagotzen dira erdal elebidunek erabilerarako dituzten mugak eta, hori ez ezik, euskarari buruzko frustrazio sentimendua eta ezkutuko erresistentzia ere sor litezke, hizkuntza hori ikasteko bidea burutzeko izan duten ezintasuna tarteko.

Seme-alabei euskara ez transmititzearen arriskua

- Bi gurasoak elebidunak direnean oso gutxi dira, egun, euskara transmititzen ez dutenak; erdal elebidunen kopuruak gora egin ahala areagotzen da eten horren arriskua mota horretako elebidunak diren gurasoen artean.
- Gurasoetako bat baino elebiduna ez den bikote mistoen kopurua gorantz doala aintzat hartuta, eta kasu horietan euskararen transmisioa ahulagoa izan ohi dela jakinda, familia bidezko transmisiorik eza handitu liteke.

IRAKASKUNTZA

Eskoletako transmisio mugatua, frustrazio eta bazterketaren iturri

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Euskararen transmisioa jasotzeko aukera hezkuntza sistemara mugatua dutenen ume eta gaztetxoaren artean B1 maila gainditzen ez dutenen kopurua ugaria denez, haiengan euskarari buruzko frustrazio sentimendua eta ezkutuko erresistentzia ere sor litezke.
- Euskararen transmisioa are mugatuago bihurtzea irakas-eredu hirueledunaren hedapen desegoki baten ondorioz.

Unibertsitateak, aldeak alde, nahi baino mantsago ari dira euskalduntzen

- 2009-2010 ikasturtean unibertsitateetan matrikulatutako ikasleetatik gehienak gaztelaniaz ari ziren, eta gainera, datuak eskuratu ditugun lau ikasturteetan (2006-2007 / 2009-2011) apenas egon da bilakaerarik. Hortaz, goi-mailako ikasketak dituen gehiengoak, eremu profesionalean erdaraz trebatuagoa bada, zaila izango du etorkizunean lan-munduko jardunean euskararen alde egitea. Gainera, hainbat kasutan erantzukizun handiko ardura profesionalak kolektibo horren gain izango dira, baina euskararen aldeko hizkuntza lidergoa betetzeko ezintasun nabarmena izango dute. Horrek guztiak lan-munduko euskalduntzea oztopa dezake.

Unibertsitatean euskararen normalkuntza urruti

- Unibertsitateetako irakasleriaren eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren (AZPren) gehiengoa erdalduna bada, zaila izango da euskaraz jarduteko eta trebatzeko aukera osoa ikasleei eskaintzea.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Ikasle kopuruaren beherakada

- Aztertutako 13 ikasturteetako azkenengoan (2012-2013) ikasle kopuruaren beheranzko joera txikiak irautea edo areagotzea. Hala ere, 2013-2014ko ikasturtean kopurua egonkortu egin da.

Zabaldua dagoen iritzia da euskaraz jabetzeko prozesua zaila eta nekeza dela

- Gizartean zabaldua dagoen iritzia da, helduak izanik euskaraz jabetzeko prozesua zaila, luzea eta garestia dela.

EGA azterketaren zalantzarako emaitzak

- EGA azterketara aurkeztutako kopuruak behera egiten badu eta, aldi berean, laurdenak baino ez badu froga gainditzen, EGA froga edota figura desegokia izan liteke.

Titulu bat lortzearekin euskalduntzea eman den iritzia

- Zabaldua dago euskara gaitasun maila C-1 / EGAn bukatzen delako ustea.

Euskara ikasteko ordaindu beharreko matrikula

- Krisi garai honetan euskara ikasteagatik ordaindu beharreko matrikula gehiegizkoa da.

2.- Euskararen erabilera

INDARGUNEAK

Erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobeak dira

- Txillardegia 1984an lantzen hasi zen eredu matematikoaren arabera, euskaldunen euskarazko erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobeak dira. Inkesta Soziolinguistikoaren (euskara erdara beste edo gehiago %61ek erabiltzen dute) zein Kale Neurketaren arabera.

Euskara erabiltzeko aukerak handitu egin dira

- Hizkuntza-gaitasuna handitzearekin batera handitu egiten dira euskara erabiltzeko aukerak ere.
- EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %29k euskara erabiltzen dute neurri batean edo bestean: %20k erdara baino gehiago, eta %9k erdara baino gutxiago. Kale Neurketaren arabera, berriz, Euskal Herrian kale-erabilera %14koa da.
- Zenbat eta gazteago orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Hogeita bi urteko bilakaera aztertuz gero: oro har, haurren, gazteen eta helduen artean erabilerak gora egin du; ez, ordea, adinekoen artean.

Erabilerak gora egin du azken 20 urteetan

- Azken 20 urteotan euskararen erabilerak gora egin du, bai euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak baita euskara erdara beste erabiltzen dutenenak ere (4,5 puntu egin dute gora bi talde horietakoek).
- Gora egin dute, batez ere, eremu hurbilean eta eremu formalean egiten diren erabilerak, bereziki azken horretan.
- Klean egiten den neurketaren arabera ere (adin tarte guztiarentzat), 22 urteko epean, gora egin du euskararen kale-erabilerak Euskal Herriko batez bestekoan (2,5 puntu).

Elebidunek euskara erabili egiten dute

- Horretaz gain, EAEko 16 urtetik gorako elebidunak kontuan hartuz, %62k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du.
- Datuok aldatu egiten dira elebitasun motaren arabera, eta hori indargune bat eta ahulezia bat da aldi berean: aukera bat da, euskal elebidunek eta elebidun orekatuek dezenteko erabilera egiten dutelako (euskal elebidunen %98k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute, eta elebidun orekatuen %81ek).

Eskola giroko hizkuntza erabilera: dezentekoa ikasleek irakasleekin eta irakasleek euren artean

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- EAEn aztertutako bi ikasmailetan joera nagusia da ikasleek irakasleari euskaraz egitea gela barruan. Irakasleekin, gela barruan, LMH4ko ikasleen gehiengoak (%74) beti edo gehienetan euskaraz egiten die irakasleei eta DBH2n %61ek.
- Gelatik kanpo ere erdiek baino gehiagok egiten dute euskaraz irakasleekin: LMH4ko ikasleen %64k euskaraz egiten die beti edo gehienetan irakasleei. DBH2n, aldiz, %52 dira.
- Irakasleen artean ere, bi ikasmailetan, irakasle gehienen arteko elkarrizketak euskaraz dira: LMH4n elkarrizketen %71 beti edo gehienetan euskaraz dira; DBH2n, berriz, %60. Datu hauek irakurtzean, gogoan izan ez dela berdina bi ikasmailetan A, B eta D ereduaren dauden ikasleen proportzioa: DBH2n A ereduko taldeen proportzioa LMH4n baino 6 puntu handiagoa da.

ERABILERA ADMINISTRAZIOAN

➤ HERRI ADMINISTRAZIOA

Herri administrazio gehienek badute euskara plana

- Herri administrazioko erakunde gehienek indarrean dute euskararen erabilera normalizatzeko plana: udalen %85ek, hiru foru aldundiek eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek badute. Eusko Jaurlaritzak ere badu, eta gainera sailez sail plan espezifikoak diseinatu eta onartzen ditu. Gutxiago dira mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoetan plana dutenak (%51).
- III. Plangintzaldiko datuak IV.ekoekin alderatuta, gaur egun gehiago dira erabilera plana duten erakundeak: laurden bat gehiago gutxi gorabehera.

Derrigortasun data ezarria duten lanpostuen egiaztatze maila handia da

- Derrigortasun data ezarrita duten langile titular edo okupatzaileen %83k egiaztatua du dagokion hizkuntza eskakizuna.

Langileen prestakuntzan euskarazko eskaintza gero eta handiagoa da

- Prestakuntza orokorra nagusiki gaztelaniaz ematen bada ere, azken urteetan langileen prestakuntzarako euskarazko eskaintza handitu egin da. Zentzu honetan esanguratsua da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAPek) egindako lana.

Erakunde-ordezkarien gehiengoak euskara badaki

- Hamar erakunde-ordezkaritatik sei inguruk euskara badakitela adierazi dute. III. plangintzaldiaren ebaluazioaren datuen arabera erdiek bazekiten. Beraz, egoera hobetu egin da. Erakunde-ordezkarien erdiak baino gehiagok badauka euskaraz lan egiteko gaitasuna.

3. eta 4. tipologietako udal gehienek zerbitzu hizkuntzan euskararen erabilera bermatzen dute

- Euskararen erabilerari dagokionez, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntzaren artean desberdintasunak daude. Normalizaziorako eremu batzuetan euskara lan

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

hizkuntza bihurtzea ezinbestekoa da: bai euskararen erabilerari bultzada bat emateko eta bai euskararen aldeko jarrerak hobetzeko.

- Kokatuta dauden ingurunearen arabera, 3. eta 4. tipologietako udal gehienek (euskaldun proportzio handiagoa duten horiek) zerbitzu hizkuntzan euskararen erabilera bermatzen dutela esan daiteke.

Erabilera oso ezberdina da administrazio batetik bestera, baina telefonoz egiten den arreta gehiena euskaraz da, eta idatzizko harremanetan eta hizkuntza paisaian ere elebitasuna da nagusi

- Ahozko erabilera: telefonoz egiten den arreta gehiena euskaraz egiten da. Harreman informalen eta lan bileren erdiak egiten dira euskaraz.
- Idatzizko erabilera: araututa dagoenez, administrazioen arteko harremanetan elebitasuna da nagusi (%63), eta herritarrei igorritako idatzizko komunikazioan ere euskara erabiltzen da gehienbat (euskara hutsez edo ele bietan).
- Hizkuntza paisaia: bai errotulazio eta noizbehinkako oharretan, bai paper-gazetan ere euskarak oso presentzia esanguratsua du; orokorrean, elebitasuna nagusi da.
- Iragarki, publizitate eta kanpainetan, oro har, elebitasuna nagusitzen da, eta euskara hutsaren presentzia oso esanguratsua da.

Hizkuntza paisaian euskararen presentzia handia da

- Bai errotulazio eta noizbehinkako oharretan, bai paper-gazetan ere euskarak oso presentzia esanguratsua du; orokorrean, elebitasuna nagusi izateaz gain, euskara hutsezko datuek gaztelania hutsezko datuak modu esanguratsuan gainditzen dituzte bi kasuetan.
- Bestalde, iragarki, publizitate eta kanpainetan, oro har, elebitasuna nagusitzen da, eta euskara hutsaren presentzia oso esanguratsua da.

Hizkuntza irizpideak diru-laguntzetan eta kontratazioetan

- Diru-laguntzetan, hizkuntza irizpideak %50 inguruan arautzen dira.
- Kontratazio administratiboak arautzeko garaian, %49an arautzen dira hizkuntza irizpideak.

➤ SOZIESTATE PUBLIKOAK

Euskara planak indarrean dituzten sozietate publikoak

- Aztertutako 83 sozietate publikoetatik laurdenek dute euskara plana indarrean, ez da asko baina aukera bat da horietan behintzat.
- Sozietate publikoetan euskaraz lan egiteko gai diren langileak %45 dira.

Euskararen erabilera mugatua da, baina badira esparru batzuk bestek baino garatuago

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Ahozko eta idatzizko komunikazioaren inguruan, batik bat herritarrekiko harremanei begira, bermatzen da euskararen erabilera. Badirudi arlo hau dela lehentasunezkoa euskararen normalizaziorako neurriak hartzen ari diren sozietate publikoentzat.
- Ahozko komunikazioa: telefonozko harreran euskara %63 erabiltzen da.
- Idatzizko komunikazioa: herritarrei bidalitako komunikazioak elebidunak izaten dira batik bat: %59.
- Sozietate publikoen web orrien edukien %65 euskaraz da.
- Langileek euskara ikasteko egiten dituzten ikastaroetatik ia erdiak diruz laguntzen dira: %45.
- Paper-gauzak, errotuluak eta oharra eta argitalpenen kasuan elebitasuna da nabarmen gailentzen den aukera. Baita, megafonia, publizitate, iragarki eta prentsa oharretan.

GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK

Gune hauetan euskararen erabilera nahikoa handia da

- EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %85ek euskara erabiltzen dutela adierazi dute neurri batean ala bestean, euren bizitzako esparru ezberdinetan: hamarretik ia zortzik euskararen erabilera trinkoa egiten dute eta beste %6k erabiltzen du erdara baino gutxiago.
- Klean, biztanle gehienek (%75 edo gehiagok) euskaraz dakiten EAEko eta Nafarroako zonaldeetan ikerketa garaian entzundako hitzunen %66 inguru euskaraz ari ziren (adin guztietako hitzunen kontuan hartuta).

Gazteenak eta helduenak dira gehienbat erabiltzen dutenak

- Gune euskaldunenetan, adin tarte guztietako biztanleek aitortu dute euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutela, batez ere gazteenek eta helduenek.

Elebidunak errazago aritzen dira euskaraz gune hauetan, gune erdaldunenetan gertatzen ez dena

- Euskal Herriko gune euskaldunenetan, 16 urtetik gorako elebidunek errazago egiten dute euskaraz erdaraz baino.

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Instituzioen politika eta legeriak erabilera bultzatzen dute

- Instituzio ezberdinek onartutako hainbat lege eta arauak eta banatutako diru-laguntzek, enpresetan euskara erabiltzea bultzatzen dute: hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, kontrataziorako baldintzak, euskara planetarako eta errotulazioak euskalduntzeko emandako diru-laguntza, besteak beste.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

Zenbait enpresak parte hartzen dute lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko

- 1997-2013 urte bitartean 363 enpresak parte hartu zuten LanHitz programan, lan-munduan euskararen erabilera sustatzea helburu duena.
- 500 langiletik gorako 112 enpresa daude, eta horietatik 37k parte hartu dute noizbait LanHitz deialdian (%33). 50 eta 500 langileko 1.799 enpresa daude, eta 162k parte hartu dute LanHitzen (%9).
- LanHitz programan parte hartzen duten enpresetan 84.981 langilek lan egiten dute.
- LanHitz deialdian parte hartzeko arrazoi aipatuak: langileen eskaerari erantzutea, erakundearen irudi korporatiboa hobetzea, eta aurretik ildo horretan lan egin izana. Bezeroen satisfazioa handitu nahi izatea ere galdekatutakoen erdiek aipatu dute.

Parte hartzen duten enpresek konpromisoa berritu ez ezik, enpresa berri gehiago gehitu dira

- LanHitzen parte hartu duten enpresen %52k izena eman zuten 2003-2008 urteetan.
- 2013 urtean inoiz baino enpresa gehiagok parte hartu dute LanHitz deialdian.

Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresek balorazio positiboa egiten dute

- Erakundeen ustez, orokorrean, normalizazio planen bidez lortutako emaitza esanguratsuen *euskararen erabilera handitzea* izan da. Era berean, *langile euskaldunen proportzioa handitzea* ere lortu dute (%27k).
- Hamar erakundetatik lautan *bezeroen satisfazioa handitzea* ere lortu da. Azkenik, erakundearen *emaitza ekonomikoetan* eragina izan du kasuen %11n.
- Gauzak horrela, erakundeen hiru laurdenek adierazi dute euskara plana izatea errentagarria izan zaiela.

Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresetako langileek lortutako emaitzen balorazio positiboa egiten dute

- Langileen iritziaren arabera, berriz, LanHitz deialdiaren helburuak lortzeko duten egokitasun, eraginkortasun eta gailentasuna %50ek egokitzen jo dute eta %29k oso egokitzen.
- Orokorrean, euskara plana garatzearen ondorioz, langileen satisfazioa erakundearen handitu egin da.
- Erakundeetako arduradunek duten inpresio bera erakutsi dute langileek ere; hots, euskara planak lagundu duela langile euskaldunak maiztasun handiagoz euskaraz aritzeko (%84), gutxi dakitenek hobetzeko interesa erakusteko (%80) edo ez dakitenek ikasteko interesa izateko (%72).

Erabilera planak sustatzeko diru-laguntzek gorantz egin dute

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Erakunde pribatuetarako jarduna euskalduntzeko egitasmoetarako, urte hauetan zehar 332 entitatek jaso dute diru-laguntza lantokietako euskararen erabilera planak garatzeko.
- Erabilera planak garatzeko bideratutako diru-laguntzak hazkundera izan zuen 1997tik 2009. urtera arte.

Enpresek euskara planetarako aurkeztutako aurrekontuek gehiago egin dute gora

- 1997. urtetik aurrera ebatzitako diru-laguntzak handitu egin dira, baina dezente gehiago handitu dira diru-laguntzak eskatzeko aurkeztutako aurrekontuak, ia 14.000.000 eurotaraino.

Gero eta enpresa gehiago dira hizkuntza egiaztagiriak dituztenak

- Bost urtetan, 2008tik 2012ra, banatu diren Bikain Euskararen Kalitatearen ziurtagiriak 121 izan dira: 39 urrezkoak, 50 tartekoak eta 32 oinarrizkoak.
- 2000. urtetik gaur egun arte 1.387 Bai Euskarari Ziurtagiri banatu dira: %14k zerbitzua euskaraz eskaintzeaz gain lana ere euskaraz egiten dutelako, %41ek zerbitzua euskaraz eskaintzen dutelako eta beste %45ek bide horretan lanean ari direlako.

AHULEZIAK

Erabilerako goranzko joera apaldu egin da, eta egonkortzera jo du

- Inkesta Soziolinguistikoak eta Kale Neurketak erakusten dute azken hamar urteko epean erabilerak egonkortzera jo duela: apur bat (1,3 puntu) handitu da Inkestaren arabera, eta Kale Neurketaren arabera egonkortu (0,4 puntu gora) egin da.

Haurren erabilera altuaren prekarietatea

- Kale-erabileran haurren presentziak eragin handia du, eta haurrak eta nagusiak (gazte, heldu eta adineko) elkarrekin daudenean jasotzen dira erabilera-datu altuenak. Baina haurrak nagusien presentziarik gabe ari direla, edo nagusiak haurren presentziarik gabe, erabilera baxuagoa da nabarmenki.

Erabilera oso apala da lurralde batzuetan

- Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %39 dira Gipuzkoan, %13 Bizkaian, %10 Iparraldean, %6 Nafarroan eta %4 Araban.
- Kale Neurketaren arabera ere, lurraldeen arteko ezberdintasunak nabariak dira: Gipuzkoan %33; Bizkaian %9; Iparraldea eta Nafarroan %6; eta Araban %4.

Erabileraren gorazko joera ez da eremu guztietan gertatu

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Erabileraren bilakaera ez da berdina izan eremu ezberdinetan, eta eremu hurbilean zein formalean gorakada eman bada ere, etxean erabilera mantendu egin da.

Elebitasun mota guztiek ez dute erabilera bermatzen

- Gehien hazten ari diren erdal elebidunen (erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnen) %26k soilik erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, euskal elebidunek eta elebidun orekatuek baino dezente gutxiago.

Eskola giroan ikasleen erabilera jolaslekuan eta maila altuagoetan jaitsi egiten da

- Ikaskideen artean, euskaraz gela barruan beti edo gehienetan egiten dutenen pisua jaisten da LMH4tik (%60) DBH2ko %28ra.
- Jolaslekuan, bi ikasmailetan, beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten duten ikasleek gehiengo zabala osatzen dute: DBH2n beti edo gehienetan gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleen proportzioa LMH4koa baino 16 puntu handiagoa da (%59-%75).

Interneteko gizarte sareetako euskararen erabilera mugatua da

- EAEko inkestaturen herenak (%35) gizarte sareak erabiltzen dituzte. Erabiltzaileen %5ek euskara erdara beste erabiltzen dute gizarte sareetan eta %10ek euskara erdara baino gehiago. Gazteen artean (16-24 urte), euskara erdara beste %10ek erabiltzen dute eta %24k euskara erdara baino gehiago.

ERABILERA ADMINISTRAZIOAN

➤ HERRI ADMINISTRAZIOA

Abian diren erabilera planak xumeegiak dira hainbatetan

- Administrazio gehienek erabilera plana badute ere, plan horietako asko oso xumeak dira, eta batzuetan, “espedientea betetzeko” sortuak direla ematen du.

Lanpostuen erdiek baino ez dute derrigortasun datarik

- Postuen %54k dute derrigortasun data ezarria.
- Gainera, derrigortasunak, berez eta besterik gabe, ez du erabilera bermatzen.

Erakunde-ordezkarien euskararen ezagutza tokiko egoeraren menpe

- Erakunde-ordezkarien euskararen ezagutza tokiko egoera soziolinguistikoari lotuta dago.

Kanpoko eskaeretan, idatziz zein ahoz gaztelaniazko presentzia handiagoa da, herritarrak oraindik ere gaztelaniaz komunikatzen dira administrazioarekin

- Kanpo harremanen eskaeretan euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen da.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Erakundeetatik kanpoko idatzizko eskaeretan gaztelania erabiltzen da, batez ere, tramitazio telematikoen ia erdietan eta herritarrek bidalitako idatzizko eskaeren %61ean.

Erabilerari dagokionez, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntzaren artean desberdintasunak daude

- Udalen kasuan, 1. eta 2. tipologietako zenbait udaletan euskararen erabilera zerbitzu hizkuntzan ez dago bermatuta (udal hauetan elebidunen portzentajeak %25etik behera eta %25-45 dira, hurrenez hurren).
- 3. eta 4. tipologietako udaletan zerbitzu hizkuntza bezala euskararen presentzia bermatua badago ere, hizkuntza eskakizunik egiaztatu gabeko langile multzo bat egoteak zailtzen du udal barneko edo kanpoko idatzizko komunikazioa euskaraz izango dela bermatzea (udal hauetan elebidunen portzentajeak %45-70 artekoa, eta %70etik gorakoak dira, hurrenez hurren).

Ahozko erabileran badira hobetu beharreko hainbat kontu

- Kanpo harremanen eskaeretan euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen da; udalen kasuan izan ezik, horietan eskaeren ia erdia euskaraz izan ohi da.
- Harreman informalen eta lan bileren erdia baino ez da egiten euskaraz.
- Erakundeen artean aldea dago barne harremanetan euskararen erabilerari dagokionez. Batetik, batez ere euskara erabiltzen duten erakundeak daude, eta bestetik, nagusiki gaztelania erabiltzen dutenak.

Idatzizko erabilerari dagokionez ere oraindik hutsuneak nabarmenak dira

- Erakundeetatik kanpoko idatzizko eskaeretan gaztelania erabiltzen da, batez ere, tramitazio telematikoen ia erdietan eta herritarrek bidalitako idatzizko eskaeren %61ean.
- Sortze hizkuntzari erreparatuta: sortze hizkuntza euskara dutenak %37 dira eta gaztelaniatik itzulpena egiten dutenak %58.
- Itzulpen arloarekin zerikusi duen beste elementu bat: testuen itzulpenaren kalitatearekin hainbat arazo ageri dira herri administrazio eta erakunde guztietan.
- Idatzizko barne harreman ez-ofizialetan euskara dokumentuen erdietan erabiltzen da. Badira erakunde motaka hainbat ezberdintasun: euskara hutsean batere harremanik ez duten erakundeak, eta harreman horien erdiak edo gehiago euskaraz egiten dituztenak.
- Itzulpen-irizpide argirik ez badago (eta erakunde askotan ez da horrelakorik egoten), itzuli beharko ez lirakeen hainbat dokumentu itzuli egiten zaizkio langileari (nahiz eta horrek gaitasuna izan idazkia egiteko).
- Elebitasuna, maiz, oso modu zurrunean ulertzen da, eta horrek eramaten gaitu bi zutabeko dokumentuak sistematikoki egitera (langileak kexu agertu ohi dira horrelakoetan, lan bikoitza egin behar dutelako).
- Oro har, euskara ez da behar adina erabiltzen administrazioan, langileek ez dutelako horren beharrik sumatzen. Gehienetan, herritarrek, beste

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

administrazioek eta lankideek erdaraz (ere) jotzen dute haiengana; eta euskaraz egiten dutenean itzultzaileetara jotzen da.

Hizkuntza paisaiari dagokionez, tresneria oraindik ere gaztelania hutsez leku askotan

- Erakundeka, tresneriaren kasuan euskararen presentzia oso baxua da. Asko dira tresneria %100 edo inguru gaztelaniaz dutenak, beste batzuek ele bitan dituzten arren.
- Kanpo irudiari dagokionez, erabilera oso desberdina da ingurune soziolinguistikoaren arabera, eta oraindik ere gune erdaldunenetako zenbait herri administrazio eta erakundetan euskararen presentzia ez da ziurtatzen.

Langileen etengabeko prestakuntza nagusiki gaztelaniaz egiten da

- Prestakuntza orokorra nagusiki gaztelaniaz ematen da. Euskaraz eskaintzen denean jendeak ez du eskatzen, eta taldeak osatu gabe gelditzen dira.
- Ez datoz bat proportzioan euskaraz ematen diren prestakuntza saioak eta derrigortasun indizearen arabera euskarak izan beharko lukeen presentzia, multzo guztietan azpitik baitago.
- Prestakuntza euskaraz jasotzeko gaitasuna duten langileen kasuetan, bi ahulgune multzo nabarmendu dira: batetik, langileen eta prestakuntza antolatzen dutenen jarrerarekin zerikusia dutenak; bestetik, baliabideen optimizazioarekin lotura dutenak.

Diru-laguntza eta kontratazioetan ezarritako hizkuntza irizpideak ez dira beti betetzen

- Diru-laguntzetan, hizkuntza irizpideak %50 inguruan arautzen dira. Alabaina, ez dira kasu guztietan kontuan hartzen, aplikazio maila %60 ingurukoa baita. Gainera, hizkuntza irizpideak diru-laguntzen araudian arautu eta exekuzioan kontuan hartu diren kasuen erdietan ere ez zaio irizpide horien aplikazio mailari jarraipenik egiten.
- Kontratazio administratiboen %49an arautzen dira hizkuntza irizpideak. Horietatik %60an izaten dira kontuan kontratua aplikatzerakoan. Azkenik, kontuan izan diren horien %43ri egiten zaie jarraipena.

➤ SOZIESTATE PUBLIKOAK

Sozietate publiko gehienek ez dute euskara planik indarrean

- Sozietate publikoek lanpostuen hizkuntza eskakizuna legez ezartzeko derrigortasunik ez dute.
- Aztertutako 83 sozietate publikoetatik %24k dute euskara plana indarrean.
- Gehienek ez dute hizkuntza irizpiderik onartu, eta onartu duten gehienak arlo batzuk arautzera mugatu dira; batez ere, herritarrekin harremana duten arloak.
- Hizkuntza irizpideak zehaztuta dauden kasuetan ere, adibidez, zerbitzuen kontratazioetan, ez ohi da horrelako irizpiderik jasotzen dokumentazioan.

Euskararen erabilera oso mugatua da hainbat esparrutan

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Ahozko kanpo harremanetan, herritarrekin edo beste administrazio batekin, euskara %30 inguru erabiltzen da eta gaztelania %70 inguru.
- Telefonozko harreran euskara %63 erabiltzen bada ere, euskarazko elkarrizketak %30 baino ez dira. Aurrez aurreko harreran euskararen erabilerak 10 puntu egiten du behera telefonoz egindakoarekin alderatuz gero eta elkarrizketen %27 da euskaraz.
- Jendaurreko ekitaldietan, %35 inguruko presentzia izaten du euskarak.
- Idatzizko komunikazioa: herritarrak, oro har, gaztelaniaz zuzentzen dira sozietate publikoetara (%76).
- Erakunde barruko idatzizko harreman ofizialetan gaztelaniak nagusi izaten jarraitzen du (%55).
- Langileek euskara ikasteko ikastaroetatik erdia baino gutxiago laguntzen dira: %45.
- Aplikazio informatikoak gaztelaniaz erabiltzen dira nagusiki (%87). Horretaz gain, langileek ez dituzte herri administrazioetako langileek eskura dauzkaten ereduak, datu-baseak, baliabideak... idatzizko euskararen erabileran aurrerapausoak emateko.
- Kontratazioetako hizkuntza irizpideen arautze maila baxua da (%26), eta horietatik %31n soilik aplikatzen da.

Langileen joera nabarmena gaztelaniaz lan egitekoa da

- Euskara plana onartuta duten sozietate publikoetako langileek gaztelaniaz lan egiteko joera dute, bai idatzizkoan bai ahozkoan. Idatzizko komunikazioari dagokionez, gehienek sortze hizkuntza euskara izatetik urrun dago.
- Oro har, euskararen idatzizko erabilera itzulpen bidez egiten da, horrek dakarren kostu ekonomikoa handituz.

GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK

Adin tarte guztietan egin du behera erabilerak, gazteenen artean izan ezik

- 4. gune soziolinguistikoko azken 20 urteotako erabilerari dagokionez, adin tarte guztietan egin du behera erabilera aitortuak gazteenen (16-24 urtekoen) artean izan ezik.
- Zehatzago, behera egin du bai euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak (3 puntu), eta baita euskara erdara beste erabiltzen dutenenak ere (2 puntu). Seguruenik bilakaera demografikoei (auzo berriak eraikitzea, gune horietatik kanpoko immigrazioa, etab.) eta komunikabideen eraginari (telebista eta Internet) so egin beharko litzaieke gainbehera horiek ulertzeko. Merkatu linguistiko orokorra ere kontuan hartu behar da eta alderdi psikolinguistikoa ere bai.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Enpresetako egoeraren azterketa sakonaren falta

- LanHitz programak eskaintzen dituen emaitzetatik harago ez dago bestelako daturik; alegia, ez da berariazko ikerlanik egin euskara plana abian duten enpresei buruz.

Instituzioen ekimenak ez du hainbatetan euskara kontuan hartzen

- Alde batetik, enpresak kexatzen dira ez direlako administrazioaren lehentasunik ezagutzen.
- Ez da lortzen ari hizkuntzaren gaia zeharkakotasunez lantzea. Gainera, enpresentzat diseinatutako plan gehienek ez dute euskara eta hizkuntza kudeaketa aipatzen.
- Enpresek hizkuntza eskubideak ez betetzeak ez du inolako ondorio legalik.

Enpresak dabilzan foroetan euskararen presentzia urria da

- Enpresek haiek diharduten foroetan (kalitatearen astea, Euskadi Innova, Bienalak...) presentzia apala du hizkuntza kudeaketak.

Euskara erabilera planetan ere lurraldeen arteko desorekak

- 1997-2013 urte bitartean 363 enpresak parte hartu zuten LanHitz programan, lan-munduan euskararen erabilera sustatzea helburu duena: 24 Arabakoak (%7), 136 Bizkaikoak (%37) eta 203 Gipuzkoakoak (%56).
- Langileei dagokionez, ia erdi eta erdi banatzen dira Gipuzkoa eta Bizkaia artean; %3 ari dira Araban.

Euskara planak aurrera eramateko zailtasunak

- Euskara plana duten enpresei kosta egiten zaie euskararen presentzia bermatzetik nagusiki euskaraz lan egitera pasatzea.
- Enpresa txikiek zaila dute denbora eskaintzea gai honi. Formazioaz gain, itzulpeni eta aholkularitzari dagokienez ere premiak dituzte. Gaur egun, udal batzuek eskaintzen dituzte horrelako zerbitzuak, baina askotan ez da bisita sistematikorik egiten eta bezeroek ez dute premia sumatzen. Komunikazio, pertsuasio eta hurbileko lana egin daiteke.
- Enpresek zailtasunak dituzte aldibereko itzulpen sistemak erabiltzeko.
- Erabilera planak garatzeko bideratutako diru-laguntzak ia etenik gabeko hazkundea izan zuen 1997tik 2009 urtera arte. Azken hiru urteetan, berriz, apur bat txikitu da diru-laguntza horien kopurua.

Langileen prestakuntza gaztelaniaz egiten da batez ere

- Lanbide Heziketan eta Hezkuntza Berezian ikasleen ia hiru laurden A eremuan zebiltzan 2011-2012 ikasturtean, eta soilik laurdena D eremuan.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Enpresak ez dira oraindik jabetu euskarak egin ditzakeen ekarpenez eta ez dute ulertzen horretarako ezinbestekoa dela langileak euskalduntzearen kostua asumitzea.

Hizkuntza egiaztagirien balioa argi ez izatea

- Ziurtagiria ateratzeak denbora eta dirua eskatzen ditu, eta enpresek ez dute argi zer den haiekin lortzen dutena.

AUKERAK

- Euskaldunen arteko harremanak trinkotzeko plangintzari ekitea, besteak beste euskarazko bilgune berrien sorrera bultzatuz.
- Aldeko baldintza soziolinguistikoek hobetzera jotzea era nabarmenean: euskal hiztunen kopuruak nabarmenki gora egitea eta, aldi berean, hiztun berri horiei euskarazko harremanetan txertatzeko aukera eskaintzea.
- Dena den, gizarte elebidunetan (eleanitzetan) hizkuntza bat erabiltzeko gutxieneko gaitasun bat edukitzea ezinbesteko baldintza da baina ez bakarria. Beste baldintza batzuk ere kontuan hartu behar dira, bereziki testuinguru soziala eta soziolinguistikoa: norbanakoen baldintzak (motibazioak eta jarrerak), dimentsio mikrosoziala eta dimentsio makrosoziala.

Umeen eta gazteen erabilera handiagoa suspertzea, baita helduarora igaro ahala ere

- Zenbat eta gazteago orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Hogeita bi urteko bilakaera aztertuz gero, oro har, haurren, gazteen eta helduen artean erabilerak gora egin du; ez, ordea, adinekoen artean.
- Euskarazko gaitasunak gazteengan zabaltzen segituz gero euskara gehiago erabiltzeko oinarrizko baldintza bat beteko da eta erabilerarako aukerak gero eta handiagoak izango dira.

Gaiaren inguruko ikerketek erabileran eragiten duten faktoreak identifikatzea ahalbidetu dute, eta era horretan eragiteko aukerak handiagoak dira

- Faktore nagusiak bi dira: euskaldunen dentsitatea harreman-sarean, eta erraztasuna euskaraz egiteko. Badira beste faktore batzuk ere, hala nola, lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa edo motibazioa. Horietan eragitean datza erabilera areagotzeko aukerak.
- Eskola eremuan ere detektatu dira erabileran eragina duten aldagaiak. Hala nola, hizkuntza eredu, eskolaz kanpoko ekintzetako hizkuntza, herriko euskaldun proportzioa eta ikasleen lehen hizkuntza. Faktore hauek erakusten digute badaudela ikasleen eskolako euskararen erabilera areagotu ahal izateko kontuan har daitezkeen hainbat interbentzio aukera hizkuntza eredutik harago. Batzuetan eskolaren baitakoak eta besteetan dimentsio zabalagoa dute familia/gizartea binomioa ere barne hartuz.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

ERABILERA ADMINISTRAZIOAN

➤ HERRI ADMINISTRAZIOA

Erabilera planak hedatzea eta sendotzea

- Herri administrazio gehienek badute euskara plana, eta gakoa da horietan sakontzea eta falta direnetan plana ezartzea.
- Erakunde-ordezkarien artean gero eta gehiago direnez euskara dakitenak, aukera dago interbentzio planak eraginkortasunez lideratu ditzaten.

Ahozko eta idatzizko harremanetan euskaraz egiteko aukerak gehituz doaz

- Ahozko barne harremanetan euskaraz egiteko aukerak gehituz doaz.
- 3. eta 4. tipologietako udaletan idatzizko komunikazioa bermatzeko gaitasuna duen langile multzo handia dago, eta, ondorioz, salbuespenak salbuespen, euskararen erabilera zerbitzu hizkuntza gisa bermatuta dagoela esan dezakegu.
- Herritarren euskararen erabilerak gora egin dezan dauden aukerak gero eta zabalagoak dira.

Legeek ahalbidetzen dute idatzizko harremanak euskaraz izatea

- Araututa dagoenez, administrazioen arteko harremanetan elebitasuna da nagusi (%63), eta herritarrei igorritako idatzizko komunikazioan ere euskara erabiltzen da gehienbat (euskara hutsez edo ele bietan).
- Horrez gain, erabileraren aldeko konpromisoa duten erakundeen arteko hitzarmenek areagotu egin ditzakete euskara hutsezko harremanak.

Hizkuntza paisaia, inprimakiak eta publizitatea euskararen erabileraren lagungarri

- Hizkuntza paisaian, inprimakietan eta publizitatean euskararen presentzia nabarmenak, hizkuntza horren aldeko hautu horri zilegitasuna emanez, herritarren euskararen erabilera errazten eta bultzatzen du. Era berean, aurrez aurreko zein telefono bitarteko harremanetan euskaraz egitea ongi etorria dela jakinarazteak erabilerarako aukerak zabalduko lituzke.

Hizkuntza irizpideak diru-laguntzetan eta kontratazioetan pizgarri

- Diru-laguntzetan eta kontratazio administratiboetan hizkuntza irizpideak ezartzeak pizgarri izaten dira horietan parte hartzen dutenek euskara kontuan har dezaten. Halako neurrien aplikazioa hedatzeko aukera handia da oraindik.

➤ SOZIESTATE PUBLIKOAK

Legeak nolabait behartzen ditu herritarrekin euskararen erabilera bermatzera

- Sozietate publikoek lanpostuen hizkuntza eskakizuna legez ezartzeko derrigortasuna ez duten arren, herri administrazioan ezarrita dauden hizkuntza-araudia eta -irizpideak sozietate publikoetara ere zabaltzeak lagunduko luke,

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

batetik, bertan euskaraz lan egiten eta, bestetik, herritarrei legeak aitortzen dien hizkuntza eskubideak gordetzen.

GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK

Erabilera aitortuak adin tarte guztietan behera egin badu ere, ez gazteen artean

- Inkesta Soziolinguistikoa, 4. gune soziolinguistikoko azken 20 urteotako erabilerari dagokionez, adin tarte guztietan egin du behera euskararen erabilerak gazteen artean izan ezik (16-24 urte bitarteko artean) eta 25-34 urte arteko artean ere 2001 urtetik apur bat handitu egin da.

Erabilera behatua oraindik ez da hori atzeman

- Kale Neurketan, 1993. urteko datuekin alderatuta, erabilerak hiru puntuko igoera izan du. Azken urteekin alderatuta berriz, erabilerari bere horretan eusten zaio.

Gune hauetako biztanle gehienak euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera baliatzea

- 4. gunean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %87 euskararen erabilera sustatzearen alde dago eta 1991ean baino handiagoa da egun. Jarrera orokor horrek atea zabaltzen dio neurriak hartzeari erabilera aitortuak azken urteotan izan duen higadura iraultzeko (1991. urtean gune horretan euskararen erabilera aitortua %83koa zen eta 2011n %78koa, 5 puntu txikiagoa beraz).

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Erabilera planetan parte hartzen duten enpresen kopurua areagotzeko aukera

- LanHitz programan parte hartzeko enpresek aitortzen dituzten arazoietan eragitea; alegia, batetik, langileen eskaera aintzat hartzea, eta, bestetik, erakundearen irudi korporatiborako zein bezeroen satisfazioa handitzeko lagungarria dela zabaltzean.
- LanHitz programan parte hartu duten enpresek enpresa-ikuspegitik aitortzen dituzten onuren berri zabaltzea: *bezeroen satisfazioa handitzea* eta *emaitza ekonomikoetan* aldeko eragina izatea.
- Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresetako langileek lortutako emaitzez egiten duten balorazio positiboaren berri zabaltzea.
- Eremu ekonomikoko zenbait ekimenetan (Kalitatearen Astea, Euskadi InnoBardunaldietan, Bienaldietan...) hizkuntza irizpideak sartu eta horiek eragina izatea.
- Administrazioek enprekin egin beharreko kontratuen baldintzetan ziurtagirien aldeko irizpideak sartzeak enpresa gehiago ziurtagirien dinamikara biltzea eta halakoen eskaerak gehitzea ekar ditzake.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Langileen kontratazioan hizkuntza irizpideak sartzeak euskararen normalkuntzari lagun diezaioke.
- Kalitatearen kudeaketarako planetan hizkuntza irizpideak sartzeak euskararen normalkuntzari lagun diezaioke.

MEHATXUAK

Baldintza soziolinguistikoek sabaia jo omen dute, erabilerak aurrera egin dezan

- Egungo elebidunak euskararako aktiba daitezen behar diren baldintza berririk ez sortzea.
- Euskal hiztunen kopuruak nabarmenki gora egiten jarraitu arren, aldi berean hiztun berri horiei euskarazko harremanetan txertatzeko aukerarik ez eskaintzea.

Ume eta gazteen euskararen oraingo erabilerak behera egitea, helduarora iritsi ahala

- Umeen eta gazteen gizarte ingurune soziolinguistikoa euskararen aldekoagoa da helduen gizartearena baino. Hortaz, egungo baldintza orokorrak euskaldundu ezean, belaunaldi berriek egun duten erabilera maila altuagoa helduarora iritsi ahala higa
- daiteke.

Familia bidezko transmisioan aurrerapausorik ez ematea

- Erabileraren zenbait eremu hurbiletan zein formaletan gorakada eman bada ere, etxeko erabilera mantendu baino ez da egin. Hortaz, hezkuntza sisteman euskaldundu diren belaunaldi berriek aukera gutxi izan dezakete elebitasun orekatua eskuratzeko.

Haurren erabilera altuaren prekarietatea

- Pertsona nagusiak tartean egon ezean, haurrek haien artean duten gaztelaniara jotzeko joerak erdarazko harreman iraunkorrak finka ditzake.

Gorabeherak elebidunen euskararen erabileran

- Elebidunen euskararen erabilerak azken 20 urteetan bilakaera gorabeheratsua izan du: lehen hamar urteetan behera egin zuen eta azken hamar urteetan gora. Beraz, hor badago erabilera hori baldintza dezaketen faktoreak identifikatu beharra.

Espazioak erdaldunak izateak euskararen erabilera eragozten du

- Jendea euskaldundu arren, espazioak erdaldunak dira, eta *une honetan euskara erabiltzea espazio erdaldunek eragozten dute nagusiki.*
- Lotura zuzena dago gaitasunaren eta erabileraren artean. Maila batetik aurrera erabili ezean gaitasuna garatzea zaila da. Horregatik gizarte sare erabat erdalduna duten euskaldunentzat erabilera eremuak sortzea ezinbestekoa da.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

Internet bidezko gizarte sareetan euskara baztertzea

- Internet bidezko gizarte sareetan ehuntzen diren harreman mota berrietan erdara nagusitzea, eta hautu horrek irautea.

ERABILERA ADMINISTRAZIOAN

➤ HERRI ADMINISTRAZIOA

Krisiak irauten badu, euskararen aurrekontuen “doiketa”

- Krisiaren iraupenak, edo ekonomiaren hobekuntza motela izateak, euskararen aurrekontuen doiketa ekar lezake berarekin, eta hori mehatxua izango da aurrera egiteko eta lortutakoa mantentzeko.

Erakunde-ordezkariek izan beharko luketen lidergoari ez eustea

- Erakunde-ordezkariek euskararen normalkuntzan izan beharko luketen lidergoari ez eustea.
- Alderdi politiko gehienek ez dute hizkuntza konpromisorik hartzen, beren ordezkari publikoak aukeratzeko orduan.

Erakunde batzuk euskararen normalkuntzatik kanpo gelditzea

- Erakundeen artean aldea dago barne harremanetan euskararen erabilerari dagokionez. Batetik, barne harremanetan batez ere euskara erabiltzen duten erakundeak daude, eta bestetik, nagusiki gaztelania erabiltzen dutenak.
- Harremanak gaztelaniaz izateko joeraz aipatzen diren arrazoiak ez gainditzea; alegia, nagusiki, hizkuntza ohitura, erdaldunen presentzia eta euskal hiztunen hizkuntza kontzientzia falta.

Langileen prestakuntzan hizkuntza normalkuntza ez izatea zehar-lerroko planteamendua

- Langileen prestakuntza antolatzen dutenek hizkuntza normalkuntza aintzat ez hartzea.
- Baliabideen optimizazioaren argudioarekin, euskarazko ikastaroen aukera baztertzea.

Hizkuntza irizpideak “paper bustitzat” jotzea

- Diru-laguntza eta kontratazioetako hizkuntza irizpideak ezartzen diren kasuetan, irizpide horiek kontuan ez hartzea. Hizkuntza irizpideak diru-laguntzen araudian arautu eta exekuzioan kontuan hartu diren kasuetan ezarritakoa ez betearaztea.

➤ SOZIJETATE PUBLIKOAK

Herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan hizkuntza ofizialen erabilera ez bermatzea

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Sozietate publikoek lanpostuen hizkuntza eskakizuna legez ezartzeko derrigortasuna ez dutenez, herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan euskara eta gaztelaniaren erabilera ez bermatzea.
- Hizkuntza irizpideak onartu dituzten sozietate gehienak arlo batzuk arautzera mugatu dira; batez ere, herritarrekin harremana duten arloak.
- Hizkuntza irizpideak zehaztuta dauden kasuetan ere, zerbitzuen kontratazioetan, ez ohi da horrelako irizpiderik jaso dokumentazioan.
- Indarrean dagoen legediaren arabera, sozietate publikoetako langileak ez daude behartuta euskalduntzearen eta normalizazioaren aldeko hainbat ekintzatan parte hartzera (euskarazko klaseak, hizkuntza eskakizunetako deialdiak, ikastaroak...).

Euskara plana onartuta duten sozietate publikoetan, plana azalekoa baino ez izatea

- Euskara plana onartuta duten sozietate publikoetan barne funtzionamendu osoa erdaraz izatea eta euskararen idatzizko erabilera itzulpen bidez gauzatzea.

GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK

Euskararen arnaguneak arriskuan egotera iristea

- Hizkuntza orok, iraun ahal izateko, behar dituzte gune (ia) eksklusiboak non funtzio (ia) guztiak hizkuntza horretan betetzen diren.
- Euskararen kasuan gune horiek ahultzeko bidea hartzea mehatxua izan daiteke. Besteak beste, gune soziolinguistiko batetik besterako biztanleriaren barne-mugimenduak eraginda.

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Hizkuntza normalkuntzarako arlo ekonomikoak duen garrantzia aintzat zinez ez hartzea

- Hizkuntza normalkuntzan eremu ekonomikoak duen garrantziaz jabetuta, larria litzateke edozein plangintzaren abiapuntua behar duen enpresetako hizkuntza egoera eta bilakaerari buruzko ezagutza zehatzik gabe jarraitzea.

Euskara planak erdibidean gelditzea eta frustraziorako motibo bihurtzea

- Enpresei kosta egiten zaie euskararen presentzia bermatetik euskaraz lan egitera pasatzea eta, egoera horretan, abiatutako prozesuak atzera egin dezake.

Lanbide Heziketan euskararen presentzia ez bermatzea

- Lanbide Heziketan eta Hezkuntza Berezian euskararen presentzia ez bermatzeak enpresetako hizkuntza normalkuntza porrotera eraman dezake.
- Langileak euskalduntzearen kostua enpresek gehiegizkotzat jotzea, batez ere hizkuntza normalkuntzak ekar litzakeen onuren berri garbirik izan ezean.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

Hizkuntza egiaztagirien nahasmena, oztopo

- Bi egiaztagiri mota egoteak sortzen duen nahasmenduak enpresak desmotibatu ditzake bide horri ekin diezaioten.

3.- Euskararen elikadura

Jarraian euskararen elikaduren ataleko AMIA egiten saiatu gara. Dena den, ariketarekin hasi aurretik, argi utzi nahi dugu, atal hau osatzeko aurreko biek baino zailtasun handiagoak izan ditugula. Arrazoia argia da, atal honetako esparru ezberdinak aztertzeko dagoen informazioa mugatua da, edo zaharkitua eta sakabanatua aurkitzen da.

Beraz, ahalegin berezia egin beharko dugu esparru honetan adierazle sistema osatzerako garaian.

INDARGUNEAK

LIBURUGINTZA

Argitaratutako liburu asko euskaraz argitaratzen dira

- Euskarazko liburugintzak guztira 37,6 milioiko fakturazioa izan zuen 2011n. Hiru laurden baino gehiago unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako liburugintzaren esparrukoa izan zen; ondoren, haur eta gazteen literatura, 5 milioi ingurarekin.

Oso heterogeneoa da euskarazko argitaratzaileen unibertsoa

- Euskarazko liburuen argitaratzaileen unibertsoa oso heterogeneoa da. Bertoko argitaratzaile pribatu txikiek ekoizpenaren zati on bat (%40,2) sortzen dute.

Produkzioa, batez ere, nobedadeez hornitzen da, eta hezkuntzako liburuez eta haur literaturaz

- Euskarazko liburuaren produkzio osoa batez ere nobedadeez hornitzen da. Berrargitalpena, aldiz, azpitik doa; produkzioan esku-hartze apala du.

KULTURGINTZA

Kultur ekoizpenean produkzioaren zati handi bat euskaraz da

- Ekoizpenari dagokionez, industria diskografikoak euskaraz egindako produkzioa %54koa da.
- 2011. urtean antzerki-ikuskizunen bi heren inguru euskaraz eskaini ziren (euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz), eta %21 gaztelania hutsez.

Merkatu txikia izanagatik, elebidunen euskarazko produktuen kontsumoa handia dela dirudi

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Euskal Herriko datu demolinguistikoak kontuan harturik, eta hizkuntza nagusiek (bai bertakoek eta bai globalek) nolako pisua duten, esan liteke baldintza horietan euskal kulturgintzak erakusten dituen ekoizpen eta kontsumo datuak positiboak direla.
- Bi gauza baieztatu behar dira: a) Euskal kulturgintzaren errealitateak hazkuntza handia izan du azken hamarraldietan, eta b) egoera demolinguistikoa eta errealitate kultural globalizatuaren baitan erakusten duen bizi-indarra aipagarria da. Bereziki azpimarratzekoak dira euskal musikagintzak eta bertsolaritzak duten eragina eta jarraipena, bai literaturak duen hedapena ere.
- Hori neurtzeko azterketa berriak egitea beharrezkoa izango den arren, 2007-2008 urteetan egin zen inkestaren arabera, EAEn ekintza kultural hauek egiten dituzten elebidunetatik: antzerkia euskaraz ikusten dute %47k, %18 bertsolaritza-emanaldietara joan dira, herenek euskaraz irakurtzen dute (%36k euskarazko liburuak eta prentsan euskarazko albisteak %34k), musika euskaraz entzuteko ohitura dute %79k, euskal musikako kontzertuetara joan dira %65 eta euskal musika erosi dute %62k, telebista euskaraz ikusi dute %32k eta irratia euskaraz entzun dute %36k. Azkenik, jarduera kulturalak egiteko Internet erabiltzen duten EAEko herritar elebidunen erdiek (%50) euskarazko edukietara jotzen dute nahiko maiz.

PUBLIZITATEA

Publizitatea ele bitan egiteko joeraren areagotzea

- Publizitatea ele bietan egiteko joera zabaltzen ari da EAEn, batez ere, erakunde publiko eta hainbat enpresa handitan; ondorioz, elebidunak dira EAEko publizitate kanpaina asko.
- Eremu horretako zenbait profesional kezkatuta daude euskarak sektorean pairatzen duen zokoratze-egoeraz.

HEDABIDEAK

Elebidunen artean euskal hedabideen kontsumoa zabaldua dago

- Elebidunen artean euskal hedabideen kontsumoa zabaldua dagoen arren, ezin dugu ahaztu erdal hedabideen ondoan euskal hedabideek badutela bere zailtasuna burua ateratzeko. Batez ere, telebista eta prentsa idatzi orokorraren kasuan. Hor daude ETB1en audientzia datuak, esaterako. Irratia izan daiteke salbuespen bat eta irratiarekin batera tokiko prentsa.
- Hala ere, euskarazko kontsumitzaile errealek guzuz egonkorra osatu da, noizbehinkako kontsumitzaileen geruza zabala dagoelarik.

Euskarazko hedabideek babes soziala eta ekimenerako gaitasuna dute

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Euskarazko hedabideen azpian eta inguruan badago babes soziala eta ekimenerako gaitasuna.

Eragiteko irakurle eta ikus-entzuleen profilak zehaztuak daude

- Euskarazko hedabideen eskaintza zabala da 3. gune soziolinguistikoan.
- Euskarazko medioen kontsumitzaileen profil nagusia hauxe da: familian ikasi dute euskara, baina etxeko hizkuntza gaztelania izan dutenen kopurua ere nabarmentzekoa da (%20 / %30 bitartekoa). Gehienbat euskaraz egiten dute, batez ere etxean, eta baita lagunekin zein lankideekin ere. Ezaugarri horiek partekatzen dituzte euskarazko hedabideen zein irrati eta telebistako kontsumitzaileek, baina badaude zenbait ezberdintasun bi hedabide mota horietakoen artean:
 - Euskarazko hedabide idatziak irakurtzen dituztenen profil nagusia: gazteak (16-34 urte), gizonezkoak (nahiz eta emakumezkoak ere %40tik gora izan), goi mailako ikasketak dituztenak (tokiko aldizkari batzuen kasuan izan ezik), gipuzkoarrak eta 3. gune soziolinguistikoan bizi direnak.
 - Irratien eta telebisten ikus-entzuleen batez besteko profila zertxobait aldatzen da. Adinari erreparatuz gero, irratiaren entzulea pertsona heldua da, hau da, 50 urtetik gorakoa askotan. Salbuespenen artean aipagarria da *Euskadi Gaztea*, gazteen artean arrakasta handia izan duen formula irrati. Telebistaren ikus-entzuleen adinari dagokionez, ordea, edo oso gaztea edo oso heldua da, gutxiengoa bitarteko adina duena da.

Profileko datuak hedabideak orokorrean hartuta egindako ikerketa batetik atera ditugu; gero, noski, hedabide zehatz bakoitzeko irakurleen profila ezberdina izango da.

Euskararen presentzia nabarmena tokiko hedabideetan

- Tokiko aldizkarietan euskarak esparru bat hartu du erdarek baino lehenago. Herriko informazioa jasotzeko euskara hutsean dauden hedabideetara jo behar da. Horrek eragin handia izango du ia euskaldunengan, eta euskaltzale izanagatik euskaraz hala moduz dakitenengan. Ez da horrela irratiaren ezta telebistaren ere; esan nahi da paperekoak erreferentzialtasuna duela toki askotan.

Irratiak oinarri egokiak dira beste hedabideak bultzatzeko

- Lortu dituzten entzule kopuru esanguratsuengatik euskarazko hedabideen artean irratiak sendotasun berezia erakusten dute, eta oinarri egokia dira beste hedabideak bultzatzeko.

Euskarazko hedabideen industria sektorea osatua dago

- Ahula izan arren, euskarazko hedabideek industria sektore bat osatzen dutela esan daiteke.
- Euskal Herri osora hedaturiko sarea da euskarazko hedabideena, maila nazionala nahiz lokaleko medioak ditugularik, orokorrak nahiz espezializatuagoak.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Interneten dabilzanek euskaraz egiten dute sarean ere

- Eustatek emandako datuen arabera, Interneten euskara darabilte EAEko erabiltzaileen laurdenek. Gipuzkoan ia erdiek, Bizkaian hamarretik ia bik eta hamarretik batek Araban.

Sare sozialetan dabilzanek euskarari freskotasuna eta erabilgarritasuna ematen diote

- Tuentin dabilzan gaztetxoentzat, freskotasunak, kolokialtasunak eta hizkuntzaren bat-batekotasunak garrantzia berezia du. Euskara bere interesen arabera erabiltzen dute, hitzak laburtuz, kodeak nahastuz, eta abar.

Sareetan euskaraz aritzeko argudioak eta bereziki euskaraz lantzen diren gaiak

- Euskaraz egiteko argudioak: euskararen presentzia bermatzea, euskal audientziara iristeko nahia, eta lagun euskaltzaileen presioa.
- Bereziki euskaraz jorratzen diren gaiak; euskara, euskalgintza edo gatazka politikoa, esaterako.

Nahikoa zabala da euskarazko baliabideen eskaintza Interneten

- Euskarazko IKTen inbentarioan, 475 produkturen erreferentzia biltzen da.
- Horietatik, gehienak (276) Euskarazko Softwarea dira. Ondoren datoz hizkuntzari berari dagozkion tresnak (81) eta informazioaren eta jakintzaren kudeaketari dagozkionak (35), etab.

AHULEZIAK

LIBURUGINTZA

Aspaldiko euskal liburu gutxien argitaratu dira 2012an

- 2.005 titulu argitaratu dira 2012an euskaraz, horietatik %95 liburu analogiko moduan (paperean, alegia). 2.005 titulu horiek aspaldiko gutxienak dira. 2006 arte jo behar da atzera 2012ko kopuruak baino baxuagoak ikusteko.

Berrargitalpen gutxi egiten dira, liburu horien arrakasta eskasaren seinale?

- Euskarazko liburuaren produkzio osoa batez ere nobedadeez hornitzen da. Berrargitalpena, aldiz, azpitik doa; produkzioan esku-hartze apala du.

KULTURGINTZA

Tamaina txikiko merkatua

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- EAE bi hizkuntza ofizial, euskara eta gaztelania, dituen erkidegoa da eta hizkuntza-errealitate hori bi hizkuntzen presentzia-maila desberdinekin islatzen da kultura-sektore desberdinetan. Datuak aztertzeke, EAEko hizkuntza-errealitate horren ezaugarriak hartu behar dira kontuan, euskarazko kultura-produktuen tamaina txikiko merkatua eskaintzen baitu.

Kontsumo ohiturak aldatzen ari dira

- Kulturaren kontsumoaren ohiturei dagokienez, euskararen kasua kultura kontsumoaren marko orokorraren testuinguruan kokatu behar da. Ohiturak aldatzen ari dira hizkuntza guztietan: liburu gutxiago irakurtzen da (paperean behintzat), gutxiago joaten da antzezlanak ikustera, egunkarien paperezko kontsumoa gutxitzen ari da Europa osoan (digitalen kontsumoa handitzen ari da, baina Internetekin askotan gertatzen den moduan izenburuak baino ez dira irakurtzen; beraz, kontsumitzeko forma ere aldatu egin da) etab.

Ikus-entzunezko produkzioan gaztelania nagusi

- Ikus-entzunezko produkzioan hamar produkzioetik lautan euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak eskaintzen dira. Soilik gaztelaniazko bertsioan egindakoak gutzitzekoaren %48 ziren, eta hizkuntza hori nagusi izan zen dokumentalen eta publizitatearen arloko produkzio-etxeen ekoizpenetan.

Aurkezten diren antzezlanen kopurua jaisten ari da

- Azken urteetan produkzio kantitate orokorra beherantz doa. Datuak begiratu ez dirudi horrek kalte egin dionik euskaraz egiten den produkzio kantitateari baina agian bai kalitateari.
- Euskal Herrian lan egiten duten ekoizle guztiek garbi daukate antzezlanak bi hizkuntzetan aurkezteak inbertsioa gehitzen badu ere, diru laguntzak eskuratzeko hobe dela eta era berean ikuslego zabalago batengana hurbiltzeko aukera ere bikoiztu egiten dela.

Ordu onenetan erdarazko produkzioak aurkezten dira

- Hiriburuetakako antzoki nagusienetan bereziki, oraindik ere askotan, egun onenetan erdarazko produkzioak aurkezten dira.
- Euskaraz egiten diren ekoizpen eta emanaldiak askotan nekez topatzen dira komunikabideetan, batez ere, jakina, erdarazko hedabideetan.

Antzerkia ikustera joaten den ikuslegoaren gutxitzea

- Arrazoi ekonomikoak medio, antzerkiari ezarri zaion BEZ igoera jasanezina da, eta beste ikuskizunekin gertatu den bezala ikuslegoak sarreretan sumatu du igoera.
- Haurrak gurasoen eskutik joaten dira antzerkia ikustera, baina gero adinean gora egin ahala ez dute antzerkira beraien kasa joateko ohiturarik, eta hor badago euskara erabili, gozatu eta aberasteko bidea. Haurrentzat egiten den ikuskizun kopurua altua da, baina gazteentzat bereziki egiten dena, uztartutako gai eta molde aproposekin eta kalitate onekoa bada ere, oso urria.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

Antzoki Publikoek (Euskal Herrian gehienak hala dira) eta kultur etxeek programatzen duten emanaldi kopurua jaitsi egin da eta emanaldi bakoitzeko aktore kopurua ere bai

- Ekoizleei beraien lana erakusteko aukerak murrizten bazaizkie, beraien inbertsioak parekatzeko eta ekipo artistikoak mantentzeko aukera ere jaitsi egiten da.
- Gastuak jaisteko orduan ekoizleek kasu gehienetan aktore kopuru txikiagoa duten antzeztan aukeratu dituzte. 3-4 aktorek egindako antzeztan dira nagusi.
- Azken bi urteetan bakarrizketa eta mikroteatro formula nabarmen zabandu da. Diru laguntzarik gabe sortutako lanak dira gehienetan, autoinbertsio gisa.

PUBLIZITATEA

Publizitate munduan elebitasunari ematen zaion garrantzi eskasa

- Elebitasunari eta hizkuntzaren gaiari garrantzi handirik ez zaio ematen publizitatearen munduan.
- Orokorrean, lantzeke dagoen esparrua dela esan daiteke.

Agentziek gaztelaniaz lan egiten dute, eta itzulpenetara jo, horrek sortzen dituen arazoekin

- Agentzietan gaztelaniaz lan egiteko erraztasun handiagoa dago; publizitatearen munduan gaztelania nagusi da. Ondorioz, agentzia guztiek lan egiten dute itzulpen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batekin.
- Oraindik ere asko dira EAEn –eta zer esanik ez gainontzeko euskal lurraldeetan– publizitatea erdaraz soilik egiten duten markak (bereziki kanpokoak).

Eragile guztiek dute zeresanik publizitateak hizkuntzaren ikuspegitik bizi duen egoeraren gainean

- Markak edo iragarleak: askotan ez dutelako uste euskaraz egitea merezi dienik, eta egiten dutenean kalitatea ez dutelako behar bezala zaintzen.
- Publizitate agentziak: iragarleek askorik ez dituztelako estutzen-edo, askotan beren bezeroei kanpainak gaztelania hutsean aurkezten dizkiete, eta are okerragoa dena, gero itzulgarriak izango ote diren kontuan izan gabe maiz.
- Media zentralak: medioen plangintzak egin eta proposatzerakoan audientzia datuetan oinarritzen dira batik bat, eta euskarazko publizitatea ez dute –oso kasu berezietan ez bada– inpaktu kualitatiboak lortzeko bide gisa proposatzen.
- Publizitatearen hartzaileak: akatsak egiten direnean hori zigortu beharko luketelako, bereziki elebidunek.

Esparru honetan ez da aurreratu beste esparru batzuetan adina

- EAEko Legebiltzarrak Euskararen Normalizaziorako Legea onartu zuela 30 urte bete diren honetan, publizitatearen esparruan, alor pribatuan bereziki, ez da beste eremu batzuetan bezainbeste aurreratu.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Iñigo Fernandez publizistaren ustetan, azken hiru hamarkadatan eremu honetan gainerakoetan baino gutxiago aurreratu denez, garaia da euskara publizitatearen eremuan normalizatzeko helburua izango lukeen lehen ahalegin planifikatua egiteko.
- EABren Euskara 21 taldeko adituen ekarpenetan ere esparru honetan dagoen informazio faltaz kontziente izanik, ikerketa berezi bat egiteko eskatzea proposatzen da.

Hedabideek ez dute lan bateraturik egiten publizitatearen esparruan

- Hedabideek ez dute lan bateraturik egiten publizitatearen esparruan, eta publizitate agentziak horretan lanean ez jartzea ahulezia da. Modu honetan erakunde handiek ez dituzte euskarazko hedabideak publizitarioki aintzat hartzen.

HEDABIDEAK

Hedabideen behategia ez izatea

- Errealitatea neurtzeko ez dago datu propiorik. Ez da nahikoa CIES etxeak egiten dituen neurketekin. Hedabideen errealitatea ezagutzeko neurketa modu bakarra eta adostua behar da. Hori ez izateak eguneroko kudeaketa zailtzen die hedabideei.

Euskarazko hedabideen sustapen eta hedapenerako mugak

- Euskarazko hedabideek eta edukiek oso oihartzun sozial murrizta lortzen dute. Sustapen eta hedapenerako mugak handiak dira.
- Finantziarazko arazoak eta publizitatea edo babesletzak lortzeko zailtasunak ziurgabetasun ekonomikoa eragiten die.

Elebidun askok euskaraz irakurtzeko dituzten zailtasunak

- Euskarazko hedabideak irakurtzeko zailtasun handia dute euskaldun askok eta horrek ondorio nabarmena du euskarazko hedabide idatzien audientzian.
- Euskarazko ikus-entzunezko kontsumitzaileek erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz irakurtzeko, baina errazago hitz egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino. Kontuan hartzekoa da *Euskal Telebistaren* eta *Euskadi Gaztearen* entzuleen kopuru handi batek erraztasun handiagoa duela gaztelaniaz egiteko euskaraz baino, %38k hain zuzen ere.
- Nahikoa handia da oraindik alfabetatu gabeen edo erdi alfabetatutako euskaldunen kopurua, batez ere adin batetik aurrera (2006ko datuen arabera ia %24koa 40 urtetik aurrerakoan artean eta %40koa 65 urtetik aurrerakoetan).
- Euskarazko hedabideen kontsumoa ez da ezagupenaren hazkundera adina handitu.

Telebistan ikusleagoaren kopurua jaisten ari da

- Kasu honetan eskura ditugun datuak zaharkituak daude baina euskal telebistako audientzia datuen arabera beherakada nabarmena da. Eta itxura denez geldiezina.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Telebista kateen aukera asko zabaldu da eta horrek txikitu egin du ETB1ek izan dezakeen indarra.
- Euskaldun askok ez dute ETB bere mandoaren lehen zenbakietan ere. Beraien ohitura eta egunerokotasunetik kanpo geratu da. Saio berezi edota kirol ekintza puntualak salbu.

Kate gehiago, ikusle gutxiago

- EITB berak egindako apustuak ez du ildo guztietan behintzat emaitza onik ekarri. ETB3ren sorrerak umeak, gazteak eta helduak kate ezberdinetan kokatzera eraman ditu eta egoera berri honek ez du ikusle kopurua indartu.
- Orain kate-dantza honetan, askotan haurrek ere ez dute kate euskalduna aukeratzen (batez ere adinean gorantz egin ahala) eta helduek ere hala moduz jokatzeko dute.

ETB1 kateak arazo nabarmenak ditu

- ETB1en audientzia kuotak minimo historikoetara iritsi dira (%1,8ko sharea). Beste euskarazko telebisten eragina ere oso murriztu da, ditugun datuen arabera.
- ETB1 kateak ez du irudi propio bereizturik, eta bere prestigio maila ere baxua da euskal iritzi-emaileen artean. ETB1ek marka-irudi propioa eta komunikazio plangintza propioa behar ditu.
- EITBk EAetik kanpo eragiteko dituen zailtasunak, bai legezkoak Nafarroan, bai egiturazkoak eta sozialak Iparraldean.

Tokiko telebista euskaldunak eta telebista publikoek harreman sendoagorik ez izatea

- Tokiko telebista euskaldunak eta telebista publikoek harreman sendoagoa izan beharko lukete. Telebista publikoak bete behar lukeen funtzioen artean programak tokikoei bideratzea izan beharko luke. Ez dira kompetentzia.

Helduak eta umeak elkarrekin ez bada ez dute beti euskara erabiltzen edota aukeratzen

- Euskarazko kateak ez baditu bere baitan balio erakargarri eta positiboak, ez dira askotan aukeratuko. Elkarrekin egonda, batzuetan behintzat, egingo da euskarazko kateen aldeko hautua baina ez helduak, gazteak edo haurrak banandu orduko.

17-24 urtekoek telebista ikusten dute baina askotan Internetez

- Adin honetako gazteek egunerokoan telebista Internetez baliatzen dute. Bideoak, jokoak, sare sozialak eta interaktibitatea bilatzen badute ere, kasu askotan serieak ikusten dituzte. Ondorioz, eskaintza are eta gehiago zabaltzen zaie.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Euskara menperatu arren, badira nagusiki sareetan gaztelaniaz aritzen direnak

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Bestalde, metodologia kualitatiboa erabiliz egindako lan baten arabera, euskaraz ondo egin arren, badira sareetan nagusiki gaztelaniaz aritzen diren pertsonak: euskaraz zailtasunez egiten duten guztiek egiten dute sarean gaztelaniaz. Eta euskaraz ondo egiten dutenetatik hirutik batek darabil euskara.

Euskaraz ez aritzeko argudioetan ohitura eta euskarazko komunikazioaren mugak nabarmenduko genituzke

- Euskaraz ez egiteko argudioak: ohitura eta erosotasuna, audientzia, euskarazko komunikazioaren mugak, gaizki egiteari beldurra, hizkuntzaren konplexutasuna, gaztelaniaren indarra eta freskotasuna.

AUKERAK

Globalizazio ekonomikoa eta kulturala euskal produktuak munduratzeko

- Globalizazio ekonomiko eta kulturala aukera bezala uler dezakegu, euskal produktuen munduratzeari ekar dezakeelako, betiere marko global horretara egokitzeko gai bagara.

Euskararen aldeko herri-elkarteen eta herri-mugimenduen kemena eta eskarmentua

- Euskararen garabideari aukera ematen dioten faktoreen artean ezin aipatu gabe utzi herri-elkarteen eta herri-mugimenduen kemena eta eskarmentua euskararen aldeko lanean. Euskararen eremu estrategiko guztietan eman diote elkarte hauek hauspoa euskarari, eta elikaduran ere bai.

LIBURUGINTZA

Itzulpenen goranzko joera atzeman da

- Nobedadeen ibilbidea jatorrizko tituluek markatzen badute ere, itzulpenek gorakada dezentea izan dute: 2012an, %38 da itzulpena nobedadeen artean, azken hamahiru urteetako bigarren proportzio handiena.

KULTURGINTZA

Eduki interesgarriak euskaraz soilik jartzeak kontsumoa handitu dezake

- Euskaraz irakurtzeak suposatzen duen gain-esfortzuari aurre egiteko, interes gehigarria duten edukiak bultzatu behar dira. Normalean aisialdiarekin lotzen direnak. Adibidez: arrakastatsua izan zen “tropela” ziklismoko porra egiteko webgunea. Webgune hori euskaraz baino ez zegoen eta erdal elebidun (eta erdaldun huts) batzuek esfortzua egiten zuten erabiltzeko, nahiz eta euskaraz bakarrik egon. Orain gaztelaniaz ere jarri dute eta hizkuntzaren ikuspuntutik interes asko galdu du. Euskaraz eskaintzen den informazio interesgarri hori euskaraz baino ez da egon

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

behar printzipioz edo behintzat euskarazko bertsioak erdarazkoa(k) baino interes osagarri bat gehiago eduki behar du.

PUBLIZITATEA

Esparru garrantzitsua da, eta dagokion garrantzia eman behar zaio

- Gizarteko xede-talde zabalei zuzendutako ekimena izanik eta, horregatik, euskara gizarteratzeko ahalmen handia duenez, lehen-lehen mailako garrantzia du publizitateak euskararen normalizazio bidean.
- Euskarazko publizitatea eraginkorra izateko euskaraz pentsatu behar da: hitz-jokoak darabiltzanez, erdarazko leloak, batzuetan, itzulezinak izan daitezke. Eta sarri askotan, zoriaren menpe geratzen da bigarren hizkuntzaren (euskara izan ohi dena) eraginkortasuna.

Euskara gaztelania bezain baliagarria suerta liteke publiziterako

- Publizista guztiak ados ez badaude ere, beste batzuek, eta batez ere itzultzaileek, berriz, uste dute euskara gaztelania bezain baliagarri dela publiziterako.

Pentsa liteke publizitatea gaztelania hutsean egiteak kalteak ekar diezazkiokeela marka bati

- Zantzu sendoak daude pentsatzeko gaur egun EAEn publizitatea gaztelania hutsean egiteak kalteak ekar diezazkiokeela marka bati.

Legeak publizitatearen inguruan dabilzan eragileak ahalegin bat egitea behartzen ditu

- EAEko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Normalizaziorako Legea kasu.
- Zentzu horretan, adierazpen publikoetan euskara behar den bezala erabiltzeko protokoloa zehaztu beharko litzateke.

HEDABIDEAK

Elebidunen kopuruak gora egin du

- Elebidunen kopuruak gora egin duela aipatu dugu aurreko atalean, hori litzateke aukera nagusia euskal hedabideentzako. Hartzaile potentzialak gero eta gehiago izatea sekulako aukera da.
- Gazteak elebidun dira gutxienez eta intereseko gaiak emateko gai bagara, kontsumitzeko aukerak handitu daitezke. Aplikazioak, sare sozialak...
- Ikus-entzunezko kontsumitzaile askok, nahiz eta irakurtzeko erdaraz erraztasun handiagoa izan, hitz egin euskaraz errazago egiten dute.

Profesional gero eta prestatuagoak euskarazko hedabideetan

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Euskarazko hedabideen inguruan, zaildutako profesional sare zabala dago, hedabideen esparrua bizitzen ari den etengabeko eraldaketa prozesuari aurre egiteko gaitua. Euskara oso ongi menderatzen duen eta unibertsitateak lanerako ongi prestaturiko belaunaldi berriak ari zaizkigu kaleratzen, gainera.

Euskal prentsan batasunaren aldeko bideak ematen ari dira

- Euskal prentsan batasunaren aldeko bideak ematen ari dira zorionez (esaterako, Tokikom eta Hekimen bezalako egitasmoak). Izan baditugu, urte askotako esperientzia duten ereduak, kalitatezko zerbitzua eskaintzen dutenak eta etorkizuna izan dezaketenak testuinguru aldagarri honetan. Beraz, eredu krisia dugula azpimarratu behar da lehenengo eta behin.
- Garrantzitsua da txikiegi diren proiektuak elkartzea eta sendotzea. Aukerak badaude, esaterako, eskualdeka antolatuz.

Euskalgintza instituzional eta sozialarekin ere bila daitezkeen sinergiak

- EITBren eta euskalgintza instituzional nahiz sozialaren arteko inplikazioa eta konplizitatea handitzea. Sinergiak lortuz gero, eta elkarlanean sakonduz gero, aukerak biderkatu egingo dira.
- Nabarmenezkoa da maila instituzionalean euskarazko hedabideak sustatzeko dauden aukerak.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek leku egin diezaiokete euskarari

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak indarra hartzen eta hedatzen ari dira izugarri azken hamarkadetan. Teknologia hauek leku egin diezaiokete euskarari orain arte iristen ez zen espazio eta sektoreetara iristeko.

Lagunekin sarera aurrez aurreko hizkuntza dinamika eramaten dute gazteek, aurrez aurrekoan eraginda beraz, sarean ere eragin daiteke

- Orokorrean, pertsonak Interneteko sareetan sartu direnean, aurrez aurreko harremanak eta hauekin duten hizkuntz dinamika eraman dituzte sarera.

Euskara ondo kokatua dago Interneten

- Euskara ondo kokatua dago Interneten. Duen hiztun kopurua kontuan hartuta, mundu mailako hizkuntzetan aurrean kokatzen da. Horrek aukerak sortzen ditu.

Internet gune erdaldunetako euskaldunentzat helduleku izan daiteke

- Euskaldun gehienak (normalean gaitasun mugatuena dutenak) gune erdaldunenetan bizi dira. Erdararen itsasoan Internetek helduleku euskaldun bat izateko aukera ematen du. Egunerokotasunean gizarte sare erdalduna baino ez duten elebidunentzat txoko euskalduna izateko aukera ematen du Interneteko sareak.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Itsaso erdaldunean euskararen babesleku trinko xamarrak sortzea ezinbestekoa dirudi; Interneteko sarea aukera bat izan daiteke, Bilboko Kafe antzokia, mintzalaguna etab.eko egitasmoak bezala. Jarrera eta erabilera pro-aktiboak bultzatuko dutenak. Gune-eremu-egitasmo horiek adin talde guztientzat existitu beharko liriateke (16 urteko gaztearen interesak askotan ez dira 60 urteko heldu batenak) eta toki guztiak kontuan hartu beharko liriateke, bereziki gizarte sare erdaldun handienak dituzten eremuak. Internet aukera bat izan daiteke, gainera, gune euskaldunenek sarrera izan dezaten gune erdaldunenetan.

MEHATXUAK

Globalizazio ekonomikoa eta kulturala euskal produktuentzat mehatxu ere izan daiteke

- Globalizazioa, kulturalki aberasteko aukerak eskaintzearekin batera, beren baldintzetara egokitu ezean, marko berri hori mehatxu izan daiteke euskararentzat, baina batez ere, euskararen elikadurarentzat; adibidez, liburugintzan, kulturgintzan, publizitatean, hedabideen munduan eta IKTetan.

LIBURUGINTZA

Kanpoko argitaratzaileak gero eta leku gehiago hartzen ari dira

- Bertoko argitaratzaile pribatuek ekoizpenaren zati on bat (%40,2) sortzen badute ere, hauen ekoizpen indarra jaitsi egin da zenbaki absolutuetan, eta are gehiago besteekiko proportzioaren ikuspegitik, kanpoko argitaletxeen indartzearekin batera. Ondo-ondoan dauzkate espainiar enpresak, bi puntutara (%38).

Etorkizunean indarra izango duen IKTen eremuak euskarazko publikazioan ez du indarririk erakusten

- Edizio digitalak ez du aurrera egiten euskal edizioan. Aurrera egin ordez atzera doala ere esan genezake, azken urteotako zifra absolutuei begiraturaz.
- Liburuaren etorkizuna digitalean izango dela pentsatuta ere, gaur gaurkoz abiatu gabe gaude hegaldi horretan.

Itzulpenen gorakada, jatorrizko tituluaren beharakadaren gainean izan da hein handi batean

- Itzulpenen proportzioaren gorakada ez dator bere merituz, nolabait esan, baizik eta jatorrizkoaren jaitziera nabarmenaren erruz.
- Ekoizpenaren gaikako bilakaerari dagokionez, esan dezakegu tematika guztietako tituluaren kopuruek egin dutela behera 2008tik 2012ra. Batez ere, giza / gizarte zientzietakoak eta zientzia eta teknologikoak: %40tik gorako titulu gutxiago bi kasuetan.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

KULTURGINTZA

Tamaina txikiko merkatua izatea

- Tamaina txikiko merkatua izateari erantsi behar zaio eskaintza mota eta, sarri, irisgarritasuna ere erdarazkoak baino mugatuagoa izatea.
- Euskarazko produktu kulturalen kontsumoan, indar eta erakargarritasun handia duten beste hizkuntza batzuetan eskainitakoa (ingelesa, gaztelania eta frantsesa, esaterako) konpetentzia zuzena da.
- Euskaraz egiten den kultura euskararen normalizazioaren izenean eskaintzen da eta erdaraz egiten den inbertsioa, aldiz, kulturaren aldekoak bezala kontatzen dira, ez erdararen sustapenaren alorrean.

Euskal Kulturgintzaren zaugarritasuna

- Aldi berean, kulturgintza honen zaugarritasunaz ere ohartu behar da diagnostikoa egiterakoan, eta hori datuetan islatzeko baliabiderik ez daukagu une honetan.
- Kultur ekoizpenaren eta bereziki kultur kontsumoaren bilakaerak abiadura handia du munduan eta gurean. Abiadura horretan, elementu ahulak ditu euskal kulturgintzak. Belaunaldi gazteenen kontsumo zappinga, sortzaileek kulturgintzari emanak bizitzeko dituzten zailtasun berriak, eskaintza-uholde hazkorrean bertakoaren kontsumo kuotak etorkizunera begira dituen inkognitak... hainbat elementu adi egotera deitzen gaituzte.

Antzezlanen aukeraketa murriztagoa

- Prestatzen diren antzezlanen aukeraketa murriztean, euskal idazleen antzezlan gutxi ikusiko ditugu oholtzan, eta antzerki klasiko eta kontenporaneo ugari ere filtro ekonomiko edota komertzial honetatik kanpo geratzen dira.

Lehen muntaketa erdaraz izateak euskarazkoa eskasagoa izatea dakar maiz

- Antzezlana bi hizkuntzetan prestatzen denean, normalean erdara erabiltzen da muntaketako lehen hizkuntza bezala, eta ondoren bigarren bertsioa edo euskarazko muntaketa egiten da. Ahal den denbora laburren erabiliz. Ondorioz, euskarazko muntaketa eskasagoa izan ohi da.

Egoera ekonomikoaren ondorioz, antzezlanen kalitatea txikitzen ari da

- Profesionalek, ekipo txikiagotan lan egiteaz gain, askoz denbora gutxiago dute entseguetarako, ikerketa eta bilatze lanerako. Ondorioz, kasu gehienetan emaitza apalagoa izango da.
- Ahal den denbora gutxienean muntaketa berri bat atera behar da, eta hori kaleratu orduko, emanaldi kopuru txiki baten ostera produktua aldatu beharra dago ekipoak ezin baitira airean mantendu.
- Gaur egun Aktore eta Interpretuen Kudeaketa Elkartearen arabera aktore profesionalak %75an ezin dira beraien lanaz bizi.

Bakarrizketa eta mikroteatroko produkzio asko erdara hutsean plazaratzea

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Autofinantzaketa sisteman sortutako proiektu txikietan euskararen presentzia desager daiteke, Araban eta Bizkaian ekoiztutakoen artean bereziki.
- Salbuespenak badaude, eta kasu positiboki deigarriak ere bai.

PUBLIZITATEA

- Ez da saiakera berezirik egin esparru horretan, eta azterketa sakon bat egiteko beharra azpimarratzen da.
- Euskarazko hedabide eskaintza zabala dago, baina haietatik oso gutxi biltzen dituzte audientzia kopuru zabalak.

Elebitasunak zaildu egiten du sormen langintza

- Elebitasunak zaildu egiten du publizitate agentzien sormen langintza: aurrekontua handiagoa da eta prozedura luzatu beharra dago. Denbora eskasiak are eragin handiagoa du euskarazko bertsioan, askotan, ez baitzaio behar beste arreta jartzen.

Itzulpenetan komunikazio publizitarioaren kodeak ez betetzea

- Gaztelania eta euskararen arteko itzulpenetan zailtasun handiak izaten dira, hizkuntzen egitura morfosintaktikoak oso ezberdinak direlako.
- Publizitate iturri-marka askok oraindik ere hala moduz, intuizioz edo soziolinguistikak eskainitako arrasto orokor eta bakan batzuei jarraiki zehazten dituzte beren hizkuntza irizpideak.
- Ondorioz, askoz eraginkorragoa da erdarazko mezua euskarazkoa baino, nagusiki euskarazko publizitate ia guztia jatorrizkotik itzulia delako. Batzuetan itzulpen literalak eta okerrak, baina gehienetan euskara zuzena erabilia ere, ez da euskara egokia erabiltzen (publizitate irizpidea).
- Denbora aldetik larri ibiltzen dira sarri; ondorioz, zaila da egokia iruditzen zaien gaztelaniazko publizitate kanpaina bat atzera botatzea euskaraz (hain) ondo funtzionatzen ez duelako.
- Hitzun elebidunak ohituta daude erdarazko publizitatearekin eta ez dute eskatzen euskarazko publizitaterik.

Euskaraz sortzeko gai diren profesional gutxi dago

- Agentzia gehien-gehienek langile euskaldun gutxi dituzte, eta are gutxiago goikarguetan.
- Euskaraz ere sortzeko gai diren profesional oso gutxi dago publizitate agentzietan, publizitatean adituak eta euskal sena dutenak.
- Publizitatean espezializatutako itzulpen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresarik ez dago.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

HEDABIDEAK

Hedabideen krisia

- Hedabideen mundua krisi sakonean dago murgilduta nagusiki Interneten hedapenak ekarri duen eredu aldaketarengatik. Informazioa kanal desberdinetatik isurtzen da orain; papera, irratia eta telebistaren monopolioa bukatu da eta hedabideen mundua negozio eredu egonkorren eta arrakastatsuen bila ari da azken urteotan.
- Gure hizkuntza komunitatea bizia baina txikia den neurrian zailtasunak ditugu sostengua eta iraunkortasuna emateko indarrean dauden proiektuei.
- Gure tamaina dela eta “formatu handietara” iristeko zailtasunak. Telebistari dagokionez, belaunaldi gazteek ingelesezko kontsumoetara zenbat eta gehiago jo, orduan eta zailagoa izango da euskarazko edukiekin lehiatzea.

Elebidunen irakurtzeko eta, oro har, euskaraz egiteko zailtasunak mehatxu nabarmena dira

- Euskarazko hedabide idatzien irakurleek, oro har, erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz irakurtzeko, batez ere tokiko aldizkarien eta egunkarien irakurleek. Hala ere, errazago hitz egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino.

Kontsumitzailea doako produktua jasotzera ohitu da

- Hedabideak doan kontsumitzeko joera gero eta zabalagoak eragin zuzena izan dezake euskarazko hainbat hedabideren biziraupenean, paperezkoetan batez ere.
- Bereziki, tokiko hedabideen irakurlea ohitu egin da doako produktua jasotzera. Ohitura hori bera mehatxua izan daiteke egoera aldatu beharrean aurkitzen badira.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Elebidunen harreman-sarea asko handitzean, harremanetan euskaldunen dentsitatea txikitzen da

- “Eguneroko” harreman hauez gain euren sareak bestelako jendearekin osatu dituztenean (unibertsitateko lagunak, kanpoan bizi direnak, kanpoan bizi den familia, eta abar), sarean dituzten euskaldunen dentsitatea nabarmen jaisten da eta honek eragin ezkorra du euskararen erabileran.

Sarean maiz gertatzen den kode-nahasketak euskararen presentzia anekdotikoa izatera kondena lezake?

- Kode-nahasketa: *codeswitching* edo kode aldaketaren fenomeno oso ohikoa da bi hizkuntza elkarrekin bizi direnean: euskara eta gaztelania/frantsesa edo baita ingeleza ere.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Euskarazko keinuak: amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea jarduna gaztelaniazkoa izan arren, ia berriemaile guztiek dituztela euskarazko keinutxoak. Anekdotikoak diren arren.

Hilabeteak dira Twitterreko euskarazko jarduna neurtzen dela. Behera egiten ari da?

- Bestalde, aipagarria da Twitterreko euskarazko jarduna jarraitzen dutenetik (duela sei hilabetetik), abuztura arte euskarazko mezuen proportzioak behera egin zuen etengabe hilerok-hilerok. Azken hilabeteetan, ordea, berriz ere gora egin du euskarazko jardunak, %48raino.

4.- Motibazioak eta jarrerak

Motibazio-jarrera-pertzepzioen azterketa funtsezkoa da, horiek moldatzen baitute errealitatea ikusteko eta ulertzeko dugun modua, besteak beste hizkuntza. Hala ere, motibazioak, jarrerak eta pertzepzioak ez dira gauza bera nahiz eta oso lotuta dauden. Hemen lehenengo biak, motibazioak eta jarrerak, hartuko dira kontuan, nahas-mahas.

INDARGUNEAK

Euskararen aldeko oinarrizko jarrera aitortuak

- Motibazio handia izan da hamarkadetan zehar, eta Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoa (%55) euskara sustatzearen alde dago.
- Motibazio naturala eta motibazio kulturala (Txepetxen terminologian), biak ditu euskarak, eta biek elkar elikatzen dute.
- Ez dago adin taldeen arteko alde nabarmenik euskararen aldeko begikotasunari dagokionez, EAEn bederen, eta gazteek ere euskara gustukoa dute, nahiz eta hainbat kasutan eskola izan den euskara eskuratzeko bide bakarra.
- Azken urteetan jarrera aitortuak gero eta baikorragoak izaten ari dira. EAE eta Nafarroako biztanleriaren ehuneko gero eta handiagoa da euskara sustatzearen aldekoa.
- Orokorrean erdaldunen jarrera aitortuak nahiko baikorrak dira euskararekiko, eta batzuek horren normalizazioak instituzioen laguntza eta plangintza behar duela diote. Hala ere, beste batzuk nahiko epelak dira ekintzetara pasatzeko eta zenbaitek oso kontrako jarrera dute.
- Euskal Herritik kanpo jaiotakoek aitortutako jarrerak nahiko baikorrak dira euskararekiko.

Aldeko motibazioak jabekuntza eta transmisioaren mesedetan

- Motibazio naturalaren eraginez transmisio edo iraupen naturala gertatu da gehienbat. Motibazio eta transmisio naturalak motibazio kulturalarentzako erreferentziak dira: batzuek motibazio naturala dute, beste batzuek kulturala dute, edo biak batera.
- Motibazio kulturalaren eraginez euskaltzaletasun kontzientea garatu da. Hiztun berriak masiboki irabazi ditu euskarak (oso gutxi dira munduan hiztun berriak masiboki irabazten dituzten hizkuntzak).
- Gero eta euskaldun gehiago dago, EAEn batez ere, eta euskararen hedapenarekin batera aldeko jarrerak ere igotzen ari dira, Iparraldean izan ezik (1991tik 2011ra: %9ko igoera Euskal Herri osoan; %10eko igoera EAEn; %16ko igoera Nafarroan; eta %6ko jaitsiera Iparraldean). Adibideak: euskara galtzea arazoa litzateke EAeko

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

biztanleen %82rentzat; EAeko 16 urtetik gorako biztanleen %66k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahiko lukete, eta %25ek B ereduan.

- Koherentzia handia dago EAEn aldeko jarrera eta portaera batzuen artean: jarreretan, %62 daude euskara sustatzearen alde edo oso alde, eta, hezkuntza ez unibertsitarioan, D ereduko matrikulazioak %61 dira, gehi %21 B ereduan.

Adostasun soziopolitiko instituzionala aldeko

- Euskara sustatzeko adostasun soziopolitiko instituzionalaren sendotasuna. Horri esker, LOMCetik kanpo geratu omen da euskarazko irakaskuntzaren eredia EAEn.
- Euskara sustatzeko adostasun soziopolitiko instituzionalaren malgutasunak: batetik, herritarren erabakimenari toki handia ematen dio; bestetik, malgutasun horri esker euskararen hizkuntza politikak ez ditu Kataluniakoak jaso dituen eraso diskurtsiboak jaso.

Euskararen balioak: jakitea praktikoa da, integratzailea, positiboa...

- Balio pragmatikoa aitortzen zaio euskarari. Adibidez, gaur egun, Euskadin, “euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen duela” dio biztanleriaren %85k.
- Motibazio integratzailea indartsua da zenbait gune soziolinguistikotan, euskara integratzaile laguntza handia dela askotan azpimarratu egiten dute integratu egin diren pertsonen, bereziki kanpotarrek.
- Euskararen aldeko hainbat kanpaina egin dira eta egiten ari dira lurralde gehienetan. Horietako batzuek nazioarteko ereduaren berrikuntzaren bidea jarraitzen dute, hizkuntza emozioekin lotuz (pozikibitate, adibidez).

Badira euskararen garabiderako positiboak izan diren estrategia diskurtsiboak ere

- Diskurtso aldarrikatzaileak duen indarra aldekoak motibatze eta bide horretan jarraitze.
- Diskurtso integratzailearen (eta antzekoen: demokratiko-pluralista, diskurtso instituzionala: euskararen legea, Euskara 21...) indarra eta besteak permeabilizatzeko gaitasuna.

AHULEZIAK

Euskararen aldeko jarrerak, mugatuta

- Kontrajarriak diren bi iritzi talde nagusi daude, euskaltzalea, bata, eta euskararekin mesfidatia, bestea. Joera horiek indartu edo ahultzen dira testuinguru soziolinguistikotik, hizkuntza-gaitasun, jaioterri edota ideologia politikoaren arabera.
- Motibazio mota bakoitza (identitarioak, motibazio pragmatikoak, integratzaileak) gizarte sektore mugatu batengana baino ez da iristen.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Hitzunen hizkuntza-gaitasun eta erabileraren arabera aldeak daude motibazio-jarrereri dagokienez. Joera horrekin bat eginez, jarrera mesfidatia duten gazteen proportzioa handiagoa da ingurune erdaldunetan, ingurune euskaldunagoetan baino.
- Euskal Herrian, oro har, euskararen gaineko jarrera aitortuak gehienbat euskararen aldekoak badira ere, herritarren portzentaje esanguratsu bat (%45) ez dago euskara sustatzearen alde (%28 ez alde, ez aurka; eta %17 aurka). EAEn ere herritar asko (%38) ez daude euskara sustatzearen alde; %26 ez alde, ez aurka; eta %12 aurka.
- Motibaziotik portaerara dagoen jauzia handia da. Jarrera teorikoen eta hizkuntzaren erabileran eragina duten jarreraren artean –jarrera aitortuen eta ezkutuen artean– jauzi handia dago.

Gehiengoaren eskubideen diskurtsoa egituratuago dago ekintza positiboarena baino

- Gehiengoaren eskubideen aldeko diskurtsoaren interpretazio batzuen arabera gehiengoaren eskubideak bermatu behar dira beste ezeren gainera, gutxiengoaren eskubideak edo beharrak kontuan hartu gabe ere. Interpretazio horien arabera, adibidez, euskara bultzatzea edo euskararen ezagutza kontuan hartzea lanpostu bat bereganatzeko gehiengoarekiko diskriminazioa litzateke. Diskurtso hori, historikoki ainguratuta dago alderdi diferenteetan Iparraldean (bereziki ezker nazionallean), eta Hegoaldeko (bereziki Nafarroako) alderdi batzuetan.
- Ekintza positiboaren aldeko diskurtsoa ahula da, jendeak ez baita ongi zer den eta zertan datzan. Aurreiritziei lotutako pentsamendu-markoak indarrean daude; adibidez: inposizioa, euskara zaila, euskara ez da erabiltzen.

Euskararen irudi politizatua

- Euskararen irudi politizatua. Euskara ideologia eta alderdi jakinekin lotzen da, eta irudi hori alderdien ohiko jokamoldeek areagotzen dute. Hala ere, badirudi gazteen artean aldagai horrek ez duela hainbesteko eraginik.
- Integraziorako edo hibridaziorako estiloen ohitura txikia dago euskararen munduan.
- Zenbait erdaldunek jarrera itxia erakusten dute euskararen erabileraren aurrean.

Euskara praktikoa ez den diskurtsoa

- Jarrera aitortuei erreparatuz euskararen balio intrintsekoaren aurkako iritziak (euskarak balio ez izatea fisika nuklearra egiteko, hizkuntza pobrea izatea, etab.) gero eta gutxiago agertzen diren arren, sarri agertzen dira maila praktikora igarotzean; adib.: plangintza bat burutzean.

Ziurtasun falta euskara erabiltzeko

- Ziurtasun falta euskara erabiltzerakoan, euskal hitzun askorengan. Euskara “ona” eta “zuzena”ren eta euskara “egokia” eta “bizia”ren arteko lehia dago jarreraren ikuspuntutik. Oraindik gizartean ez da bereizten eredu formalaren eta informalaren arteko aldea.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Hiper-zuzentasuna: ondo hitz egin behar da (askok ondo hitz egiten dute, baina asko dira ondo ez hitz egitearen ustea dutenak: euskaldun berriek, batua, euskara berria, eskolakoa; euskaldun zaharrek, etxekoa, landu gabekoa, alfabetatugabea; gazteek, euskñol).

Badira euskararen garabidea ahultzen duten estrategia diskurtsiboak

- Ohiko diskurtso aldarrikatzaileak mugak ditu hedatzeko (bakarrik konbentzitzen segmentuan funtzionatzen du) eta uzkurak uzkurrago bihurtzeko erraztasuna du.
- Hegemoniaren kontzeptua eta ametsak “tortillari buelta ematea” moduko esanahia ekar dezake funtsean (“Nire ametsak zure amesgaiztoak dira; zure ametsak nire amesgaiztoak”).
- Nazionalismo linguistiko euskaltzaletik eraturako diskurtsoak (herri bat, nazio bat, hizkuntza bat) nazionalismo linguistiko erdaltzalea areagotzen du.
- Bada alderdi politikorik euskara sustatzeko adostasun soziopolitiko instituzionaletik kanpo dagoenik.

Interbentzio ahaleginek ez dute beti asmatzen

- Jarreretan eragiteko kanpainetan sakabanaketa handiegia dago eta, motibazioetan eta portaeretan eragiteko helburua duten euskararen aldeko mezu ezberdinak biderkatuz, hiztunak nahastu egiten dira.
- Portaeretan eragiteko mezuak derrigortasunari eta emozio ezkorrei lotuta izatea: (“euskara erabili”, “euskaraz eta kitto”, “Ez baduzu euskararik erabiltzen hil egingo da”). Mezu baikorrak behar dira: “euskararekin gozatzen dugu” bezalakoak, eraginkorragoak direlako eta, are gehiago, portaeraren bitartez gozamen hori erakusten bada.
- Nahiz eta elebidunak izan, hiztunentzat erreferente diren pertsona asko batez ere erdaraz hitz egiten agertzen dira hedabideetan. Horrek prestigioa kentzen dio euskarari, erdararen mesedetan.

Ikerketetan hutsuneak motibazio eta jarreraren esparruan

- Orokorrean, motibazioak eta jarrerak gutxi aztertuta daude. Euskal soziolinguistikak normalean ez die motibazioei eta jarrerei behar besteko garrantzia eskaintzen, ez dizkie euren motibo eta behar linguistikoak galdetzen herritarrei, eta, beraz, ez da jakiten benetan eta sakonean zein diren. Adibidez, euskal soziolinguistikaren adierazpen nagusietakoa den Inkesta Soziolinguistikokoan motibazioak ez dira gaitasunarekin eta erabilerarekin harremanetan jartzen.
- Herritarren motibo eta behar linguistikoak egiatan jakin gabe, motibazio jarduerak maiz euskalgintzaren ohiko nahietatik egiten dira, ez herritarren nahi eta beharretatik, eta hortik zenbait arrisku: herritarrengan erresonantzia positiborik ez lortzea edota erreakzio uzkurak eragitea.
- Soziolinguistikaren nazioarteko ereduak gutxitan erabiltzen dira euskararen esparruan.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Ikerketetan, askotan ez dira ondo bereizten eta ez da gogoeta sakonik egiten jarrera motez: 1) axaleko jarrera aitortuak; 2) portaeretatik inferitzen diren jarrerak, ezkutuzko jarrerak.

AUKERAK

Gizarte joera orokorra, integratzaileagoa

- Gizarte integratzailea egiteko joera handitzen ari da (eta horrekin batera, diskurtso integratzailean oinarritutako motibazioa garatzeko aukerak).
- Indarkeria gainditu ahala, aukera berriak zabaltzen dira Euskal Herriko identitate eta kulturaren inguruan gizarteak antzematen duen krisia hobeto bideratzeko.
- Egoera politiko berriak eta aniztasunaren balioaren zabalpenak euskarari buruzko balio-sorta berri eta erakargarria osatzeko aukera zabaltzen dute, eta horrela motibazio identitario ezberdinak, pragmatikoak eta integratzaileak elkarrekin existitzeko aukera agertzen da. Adibidez, Euskara 21 Batzorde-atalak abian jarri duen “Euskararen gaineko diskurtsoen lanketa”.
- Hizkuntza politika alderdikieratik ateratzea, kontsentsu zabaletan oinarritutako planteamendu politiko eta instituzionalen bidez.

Hizkuntzen inguruko balio eta hautemate mota berriak eta anitzagoak

- Diskurtso ekolinguistikoaren eskutik zabaltzen ari den kultura eta hizkuntza aniztasunaren balioa hedatzea. Adibidez, EAEko biztanleriaren %86k uste du hizkuntza guztiek garrantzi bera dutela eta biziraun dezaten neurriak hartu behar direla.
- Identitate partekatuetan oinarritzen den gizarte anitz poliedrikoan erraz txerta daiteke euskararen aldeko motibazioa, gainerako identitateak edo motibazioak ukatu beharrik izan gabe.

Euskararekiko jarreraren bilakaera

- Euskararekiko jarrera mesfidatia ahulagoa da gazteen artean, EAEko biztanleria osoan baino.
- Gizartean, oro har, euskarazko gaitasuna eta erabilerarako aukerak zabaltzearekin batera, aldeko jarrera ere zabaltzen jarraitzea.
- Euskara ezagutzeak dakarren sari sozialaren aitortzak motibazio instrumentala areagotzen du.
- Gizarte sektore zabal batean, jarrera teoriko edo ideologikoen eta portaeren arteko jauzi handiaren eraginez sortzen den disonantzia kognitiboa ere gaindi daiteke erabilerarako aukerak areagotuz.
- Portaera arrakastatsu eta eredugarriak ezagutaraziz, jarreretan eragitea. Adibidez, enpresetako normalizazio plan arrakastatsuak eta euskararen aurrerapausoen testigantza ematen duten egoerak (pertsona erreferenteak, eremu formaletako

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

erabilera normalizatua, argitalpen zientifikoak, jendaurreko bilerak, prentsaurrekoak eta abarrak) agerian jarri.

- Gizarte erreferente diren euskaldunek erdarazko hedabideetan euskara erabiltzea. Era horretan euskarari prestigioa emango zaio.

IKTen aukera berriak euskararentzat

- Gizarte sareen (Internet, etab.) bidez euskararen presentzia eta irudi baikorra zabaltzeko aukera, eta horrela eginez euskaratik aski urruti (eremu erdaldunenetara, atzerrira, zenbait gizarte sektoretara, etab.) dauden gune berrietara heltzeko aukera dago.
- Jarrera aitortuek Interneteko sareetako euskararen erabileran eragiten dute. Sare sozialetan euskaraz aritzeko argudioen artean jasotzen dira “euskararen presentzia bermatzea, euskal audientziara iristeko nahia eta lagun euskaltzaileen presioa”.

Motibazio eta jarreraren ezagutzan sakontzea

- Motibazio eta jarreraren inguruko ikerketak gero eta ugariagoak dira, eta ezagutza gero eta handiagoa lortzen ari dira. Bertako ikerketa berriek egoera hobeto ezagutzeko eta horretan egokiago eragiteko aukera ematen dute. Adibidez: erdaldunen kasuan badirudi ohiko bi motibazio nagusiei (instrumentala eta integratzailea) barne-motibazioa vs kanpo-motibazioa gainezartzen ari zaiela.
- Arnasgune kontzeptua hartzen ari den indarra.
- Motibazioen inguruko nazioarteko ezagutzak egin duen salto kualitatiboa baliatzea. Izan ere, horien bidez portaeretan eragiteko aukera handiagoa sortzen ari da: adibidez, sozioemozionalak, emozioak eta kognizioa lotuz, jarrera aitortuak eta ezkutukoak bereizteko ezagutzan sakonduz...

MEHATXUAK

Hezkuntza sistema bidezko transmisioak mugak ditu

- Gizarte eta familia ingurune euskaldunik ezean, euskararen irudikapena eskola eremuari soilik lotzeko arriskua dute ikasleek.
- Zenbait testuinguru soziolinguistikotako eskoletako transmisio hutsez, erdal elebidunak sortzen dira gehienbat; euskarazko gaitasun mugatu horrek esfortzu bat eskatzen du, eta frustrazioa zein jarrera ezkorrek sor ditzake erdaraz askoz erosoago sentitzen diren horiengan.

Hainbat faktorek eragin ezkorra izan dezakete euskararen bilakaeran

- Gizarte sektore zabal batean, jarrera teoriko edo ideologikoen eta portaeraren artean jauzi handia dago. Hortik sortzen den disonantzia kognitiboa gainditzeko jarrera teorikoak jardun erdaltzale errealerara egokitzeko mekanismoa aktiba daiteke, horren ondorioz euskararen aldekatasuna lausotuz.

4. ESEP: Ildo estrategikoen AMIA

- Krisiak areagotuta, ikuspuntu ekonomikoa nagusitzen ari da gizartean edozein gai tratatzeko. Hortaz, dirua gutxiengo hizkuntzetan inbertitzea, dirua xahutzea litzateke. Hala ere, oraindik EAEko biztanleriaren gehiengoarentzat ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea.
- Euskararen arnasmuneetan hizkuntza horrek azken urteotan izan duen erabileraren jaitsiera ikusita, euskararen aldeko jarrera pragmatikoak ahuldu eta balio integratzailea jaitsi litezke leku horietan.
- Euskara, euskal identitatearen –euskaldun sentitzearen– ikurtzat hartzeko sentimendua jaisten ari da EAEn, nahiz oraindik nagusi den; Iparraldean zein Nafarroan euskara Euskal Herriko nortasunarekin ezinbestean lotzen da.
- Etorkinen hiztun taldeak neurri handi batean jarrera-motibazioak zehaztu gabe ditu. Ez alde eta ez aurka daude. Hala ere, talde hori aukera ere izan liteke.
- Komunikazioaren teknologia berriek identitateak aldatzen dituen neurrian, identitate anizkoitza eta plurala gero eta ohikoagoak izango dira. Aldaketa hori islatzen da hizkuntzarekiko jarreraren bilakaeran ere, eta EAEko gizartearen ehuneko handi batek (%49k) argi zehaztu gabe ditu hizkuntzarekiko jarrerak, oinarrizko aldeketasun batetik harago.
- Motibazio instrumentalak: ingelesa gero eta onarpen handiagoa ari da bereganatzen eta errealitate hori era desegokian kudeatuz gero euskararentzat ahulgarri izan daiteke.
- Diskurtso euskaltzale desegokiaren eraginez kontrako jarrera aktibatzea sektore axolagabeengan.

Etorkizunerako ikuspuntu pasiboa

- Oro har: herritarren %68k uste dute euskararen garapena denborarekin konponduko dela, neska-mutilek eskolan dagoeneko ikasten dutelako.

Eranskina:

AMIAren laburpen taulak

EUSKARA-GAITASUNA ETA JABEKUNTZA

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<p>GAITASUNA ETA TRANSMISIOA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none">• Gero eta elebidun gehiago, batez ere gazteen artean• Familia bidezko transmisioa osorik bermatzen ari da• Elebidun gehienek euskara gorde egin dute• Elebidun ez ziren batzuek ikasi egin dute• Elebidunen multzoan gero eta gehiago dira euskaldun berriak <p>IRAKASKUNTZA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none">• Ikasle gehienak euskal eredueta unibertsitatez kanpoko ikasketetan, eta unibertsitatean gero eta gehiago euskal adarretan• Selektibitate frogetan ere euskara nagusi <p>EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none">• Euskara ikasten ari direnak dezente dira• Ikasleen galera eten egin da• Euskara ikastea merkeago• Mintzapraktika programaren arrakasta	<p>GAITASUNA ETA TRANSMISIOA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none">• Gaitasunari dagokionez lurralde batetik bestera dagoen aldea• Gune geografiko euskaldunenetan, azken 20 urteetan elebidunen kopuruak behera egin du• Elebidunen gorakada ez da lurralde guztietan gertatzen ari• Badira seme-alabei euskara transmititzen ez dietenak• Biztanle gehienek gaztelania soilik jaso dute etxean• Elebidunen multzoan gero eta gehiago dira erdal elebidunak, hegoaldean elebidunen multzorik zabalena osatuz• Elebidun hartzaileak gero eta gehiago dira, erraztasunean duen eraginarekin <p>IRAKASKUNTZA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none">• Eskoletan lortzen den euskara maila ez da behar adinakoa kasu askotan• Unibertsitate aurreko irakaskuntzan, euskarazko eredu banaketa oso ezberdina da lurralde batetik bestera• Oraindik ere Lanbide Heziketan A eredu da nagusi• Ikasle gehienek gaztelaniaz ikasten dute unibertsitatean• Gradu-ondoko eskaintza gehiena ez da euskaraz• Doktorego tesietatik oso gutxi aurkezten dira euskaraz• Unibertsitatean euskararen normalkuntza motel <p>EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none">• Euskaltegi kopurua apur bat gutxitu da• Ikasle kopuruak behera egin du azken ikasturteetan• Ikastaroek gero eta trinkotasun gutxiago• EGA azterketa aurkeztu direnen %22k gainditu dute soilik

AUKERAK

GAITASUNA ETA TRANSMISIOA

- Euskarazko gaitasuna gazteenengandik hedatzen jarraitzea
- Familia bidezko transmisioa osorik bermatzea
- Familiaz kanpoko transmisioaren garrantzia

IRAKASKUNTZA

- Euskarazko ikastereduen transmisio ahalmena bermatzea (unibertsitate aurreko ikasketetan)
- Graduatu elebidunen gorakadak ondo prestaturiko giza-baliabideak eskaintzen dizkio euskarari

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

- Irakasleen esperientzia handiagoa, transmisioaren mesedetan
- Gero eta jende gehiago Mintzapraktika programetan parte hartzen

MEHATXUAK

GAITASUNA ETA TRANSMISIOA

- Elebidun askoren euskarazko gaitasun mugatuak ez du erabilera bermatzen
- Seme-alabei euskara ez transmititzearen arriskua

IRAKASKUNTZA

- Eskoletako transmisio mugatua, frustrazio eta bazterketaren iturri
- Unibertsitateak, aldeak alde, nahi baino mantsago ari dira euskalduntzen
- Unibertsitatean euskararen normalkuntza urruti

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

- Ikasle kopuruaren beherakada
- Zabaldua dagoen iritzia da euskaraz jabetzeko prozesua zaila eta nekeza dela
- EGA azterketaren zalantzarako emaitzak
- Titulu bat lortzearekin euskalduntzea eman den iritzia
- Euskara ikasteko ordaindu beharreko matrikula

EUSKARAREN ERABILERA

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none">• Erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobeak dira• Euskara erabiltzeko aukerak handitu egin dira• Erabilera gora egin du azken 20 urteetan• Elebidunek euskara erabili egiten dute• Eskola giroko hizkuntza erabilera: dezentekoa ikasleek irakasleekin eta irakasleek euren artean <p>ERABILERA ADMINISTRAZIOAN</p> <p>➤ HERRI ADMINISTRAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none">• Herri administrazio gehienek badute euskara plana• Derrigortasun data ezarria duten lanpostuen egiaztatze maila handia da• Langileen prestakuntzan euskarazko eskaintza gero eta handiagoa da• Erakunde-ordezkariei gehiengoak euskara badaki• 3. eta 4. tipologietako udal gehienek zerbitzu hizkuntzan euskararen erabilera bermatzeko dute• Erabilera oso ezberdina da administrazio batetik bestera, baina telefonoz egiten den arreta gehiena euskaraz da, eta idatzizko harremanetan eta hizkuntza paisaian ere elebitasuna da nagusi• Hizkuntza paisaian euskararen presentzia handia da• Hizkuntza irizpideak diru-laguntzetan eta kontratazioetan <p>➤ SOZIALIZAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none">• Euskara planak indarrean dituzten sozietate publikoak• Euskararen erabilera mugatua da, baina badira esparru batzuk besteak baino garatuago <p>GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Gune hauetan euskararen erabilera nahikoa handia da• Gazteenak eta helduenak dira gehienbat erabiltzen dutenak• Elebidunak errazago aritzen dira euskaraz gune hauetan, gune erdaldunenetan gertatzen ez dena <p>ARLO SOZIOEKONOMIKOA</p> <ul style="list-style-type: none">• Instituzioen politika eta legeriak erabilera bultzatzen dute• Zenbait enpresak parte hartzen dute lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko• Parte hartzen duten enpresek konpromisoa berritu ez ezik, enpresa berri gehiago gehitu dira• Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresek balorazio positiboa egiten dute• Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresetako langileek lortutako emaitzen balorazio positiboa egiten dute• Erabilera planak sustatzeko diru-laguntzek gorantz egin dute• Enpresek euskara planetarako aurkeztutako aurrekontuek gehiago egin dute gora• Gero eta enpresa gehiago dira hizkuntza egiaztagiriak dituztenak	<ul style="list-style-type: none">• Erabilera goranzko joera apaldu egin da, eta egonkortzera jo du• Haurren erabilera altuaren prekaritatea• Erabilera oso apala da lurralde batzuetan• Erabilera goranzko joera ez da eremu guztietan gertatu• Elebitasun mota guztiek ez dute erabilera bermatzen• Eskola giroan ikasleek erabilera jolaslekuan eta maila altuagoetan jaitsi egiten da• Interneteko gizarte sareetako euskararen erabilera mugatua da <p>ERABILERA ADMINISTRAZIOAN</p> <p>➤ HERRI ADMINISTRAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none">• Abian diren erabilera planak xumeegiak dira hainbatetan• Lanpostuen erdiek baino ez dute derrigortasun datarik• Erakunde-ordezkariei euskararen ezagutza tokiko egoeraren menpe• Kanpoko eskaeretan, idatziz zein ahoz gaztelaniazko presentzia handiagoa da, herritarrak oraindik ere gaztelaniaz komunikatzen dira administrazioarekin• Erabilera dagokionez, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntzaren artean desberdintasunak daude• Ahozko erabilera badira hobetu beharreko hainbat kontu• Idatzizko erabilera dagokionez ere oraindik hutsuneak nabarmenak dira• Hizkuntza paisaiari dagokionez, tresneria oraindik ere gaztelania hutsez leku askotan• Langileen etengabeko prestakuntza nagusiki gaztelaniaz egiten da• Diru-laguntza eta kontratazioetan ezarritako hizkuntza irizpideak ez dira beti betetzen <p>➤ SOZIALIZAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none">• Sozietate publiko gehienek ez dute euskara planik indarrean• Euskararen erabilera oso mugatua da hainbat esparrutan• Langileen joera nabarmena gaztelaniaz lan egitekoa da <p>GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Adin tarte guztietan egin du behera erabilera, gazteen artean izan ezik <p>ARLO SOZIOEKONOMIKOA</p> <ul style="list-style-type: none">• Enpresetako egoeraren azterketa sakonaren falta• Instituzioen ekimenak ez du hainbatetan euskara kontuan hartzen• Enpresak dabilzan foroetan euskararen presentzia urria da• Euskara erabilera planetan ere lurraldeen arteko desorekak• Euskara planak aurrera eramateko zailtasunak• Langileen prestakuntza gaztelaniaz egiten da batez ere• Hizkuntza egiaztagiriaren balioa argi ez izatea

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Umeen eta gazteen erabilera handiagoa suspertzea, baita helduarora igaro ahala ere • Gaiaren inguruko ikerketek erabileran eragiten duten faktoreak identifikatzea ahalbidetu dute, eta era horretan eragiteko aukerak handiagoak dira <p>ERABILERA ADMINISTRAZIOAN</p> <p>➤ HERRI ADMINISTRAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabilera planak hedatzea eta sendotzea • Ahozko eta idatzizko harremanetan euskaraz egiteko aukerak gehituz doaz • Legeek ahalbidetzen dute idatzizko harremanak euskaraz izatea • Hizkuntza paisaia, inprimakiak eta publizitatea euskararen erabileraren lagungarri • Hizkuntza irizpideak diru-laguntzetan eta kontratazioetan pizgarri <p>➤ SOZIJETATE PUBLIKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Legeak nolabait behartzen ditu herritarrekin euskararen erabilera bermatzera <p>GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabilera aitortuak adin tarte guztietan behera egin badu ere, ez gazteen artean • Erabilera behatua oraindik ez da hori atzeman • Gune hauetako biztanle gehienak euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera baliatzea <p>ARLO SOZIOEKONOMIKOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabilera planetan parte hartzen duten enpresen kopurua areagotzeko aukera 	<ul style="list-style-type: none"> • Baldintza soziolinguistikoei sabaia jo omen dute, erabilerak aurrera egin dezan • Ume eta gazteen euskararen oraingo erabilerak behera egitea, helduarora iritsi ahala • Familia bidezko transmisioan aurrerapausorik ez ematea • Haurren erabilera altuaren prekaritatea • Gorabeherak elebidunen euskararen erabileran • Espazioak erdaldunak izateak euskararen erabilera eragozten du • Internet bidezko gizarte sareetan euskara baztertzea <p>ERABILERA ADMINISTRAZIOAN</p> <p>➤ HERRI ADMINISTRAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Krisiak irauten badu, euskararen aurrekontuen “doiketa” • Erakunde-ordezkariek izan beharko luketen lidergoari ez eustea • Erakunde batzuk euskararen normalkuntzatik kanpo gelditzea • Langileen prestakuntzan hizkuntza normalkuntza ez izatea zehar-lerroko planteamendua • Hizkuntza irizpideak “<i>paper bustitza</i>” jotzea <p>➤ SOZIJETATE PUBLIKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan hizkuntza ofizialen erabilera ez bermatzea • Euskara plana onartuta duten sozietate publikoetan, plana azalekoa baino ez izatea <p>GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskararen arnaguneak arriskuan egotera iristea <p>ARLO SOZIOEKONOMIKOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza normalkuntzarako arlo ekonomikoak duen garrantzia aintzat zinez ez hartzea • Euskara planak erdibidean gelditzea eta frustraziorako motibo bihurtzea • Lanbide Heziketan euskararen presentzia ez bermatzea • Hizkuntza egiaztagirien nahasmena, oztopo

EUSKARAREN ELIKADURA

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<p>LIBURUGINTZA</p> <ul style="list-style-type: none">• Argitaratutako liburu asko euskaraz argitaratzen dira• Oso heterogeneoa da euskarazko argitaratzaileen unibertsoa• Produzioa, batez ere, nobedadez hornitzen da, eta hezkuntzako liburuez eta haur literaturaz <p>KULTURGINTZA</p> <ul style="list-style-type: none">• Kultur ekoizpenean produkzioaren zati handi bat euskaraz da• Merkatu txikia izanagatik, elebidunen euskarazko produktuen kontsumoa handia dela dirudi <p>PUBLIZITATEA</p> <ul style="list-style-type: none">• Publizitatea ele bitan egiteko joeraren areagotzea <p>HEDABIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Elebidunen artean euskal hedabideen kontsumoa zabaldua dago• Euskarazko hedabideek babes soziala eta ekimenerako gaitasuna dute• Eragiteko irakurle eta ikus-entzuleen profilak zehaztuak daude• Euskararen presentzia nabarmena tokiko hedabideetan• Irratiak oinarri egokiak dira beste hedabideak bultzatzeko• Euskarazko hedabideen industria sektorea osatua dago <p>INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Interneten dabiltzanek euskaraz egiten dute sarean ere• Sare sozialetan dabiltzanek euskarari freskotasuna eta erabilgarritasuna ematen diote• Sareetan euskaraz aritzeko argudioak eta bereziki euskaraz lantzen diren gaiak• Nahikoa zabala da euskarazko baliabideen eskaintza Interneten	<p>LIBURUGINTZA</p> <ul style="list-style-type: none">• Aspaldiko euskal liburu gutxien argitaratu dira 2012an• Berrargitalpen gutxi egiten dira, liburu horien arrakasta eskasaren seinale? <p>KULTURGINTZA</p> <ul style="list-style-type: none">• Tamaina txikiko merkatua• Kontsumo ohiturak aldatzen ari dira• Ikus-entzunezko produkzioan gaztelania nagusi• Aurkezten diren antzezlanen kopurua jaisten ari da• Ordu onenetan erdarazko produkzioak aurkezten dira• Antzerkia ikustera joaten den ikuslearen gutxitzea• Antzoki Publikoek (Euskal Herrian gehienak hala dira) eta kultur etxeek programatzen duten emanaldi kopurua jaitsi egiten da eta emanaldi bakoitzeko aktore kopurua ere bai <p>PUBLIZITATEA</p> <ul style="list-style-type: none">• Publizitate munduan elebitasunari ematen zaion garrantzi eskasa• Agentziek gaztelaniaz lan egiten dute, eta itzulpenetara jo, horrek sortzen dituen arazoekin• Eragile guztiek dute zeresanik publizitateak hizkuntzaren ikuspegitik bizi duen egoeraren gainean• Esparru honetan ez da aurreratu beste esparru batzuetan adina• Hedabideek ez dute lan bateraturik egiten publizitatearen esparruan <p>HEDABIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Hedabideen behategia ez izatea• Euskarazko hedabideen sustapen eta hedapenerako mugak• Elebidun askok euskaraz irakurtzeko dituzten zailtasunak• Telebistan ikuslearen kopurua jaisten ari da• Kate gehiago, ikusle gutxiago• ETB1 kateak arazo nabarmenak ditu• Tokiko telebista euskaldunak eta telebista publikoek harreman sendoagorik ez izatea• Helduak eta umeak elkarrekin ez bada ez dute beti euskara erabiltzen edota aukeratzen• 17-24 urtekoek telebista ikusten dute baina askotan Internetez <p>INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Euskara menperatu arren, badira nagusiki sareetan gaztelaniaz aritzen direnak• Euskaraz ez aritzeko argudioetan ohitura eta euskarazko komunikazioaren mugak nabarmenduko genituzke

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Globalizazio ekonomikoa eta kulturala euskal produktuak munduratzeko • Euskararen aldeko herri-elkarteen eta herri-mugimenduen kemena eta eskarmentua <p>LIBURUGINTZA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Itzulpenen goranzko joera atzeman da <p>KULTURGINTZA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Eduki interesgarriak euskaraz soilik jartzeak kontsumoa handitu dezake <p>PUBLIZITATEA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Esparru garrantzitsua da, eta dagokion garrantzia eman behar zaio • Euskara gaztelania bezain baliagarria suerta liteke publizitaterako • Pentsa liteke publizitatea gaztelania hutsean egiteak kalteak ekar diezazkiokeela marka bati • Legeak publizitatearen inguruan dabilzan eragileak ahalegin bat egitera behartzen ditu <p>HEDABIDEAK</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Elebidunen kopuruak gora egin du • Profesional gero eta prestatuagoak euskarazko hedabideetan • Euskal prentsan batasunaren aldeko bideak ematen ari dira • Euskalgintza instituzional eta sozialarekin ere bila daitezkeen sinergiak <p>INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek leku egin diezaiokete euskarari • Lagunekin sarera aurrez aurreko hizkuntza dinamika eramaten dute gazteek; aurrez aurrekoan eraginda beraz, sarean ere eragin daiteke • Euskara ondo kokatua dago Interneten • Internet gune erdaldunetako euskaldunentzat helduleku izan daiteke 	<ul style="list-style-type: none"> • Globalizazio ekonomikoa eta kulturala euskal produktuentzat mehatxu ere izan daiteke <p>LIBURUGINTZA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Kanpoko argitaratzaileak gero eta leku gehiago hartzen ari dira • Etorbizunean indarra izango duen IKTen eremuak euskarazko publikazioan ez du indarrak erakusten • Itzulpenen gorakada, jatorrizko titulu beharakadaren gainean izan da hein handi batean <p>KULTURGINTZA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Tamaina txikiko merkatua izatea • Euskal Kulturgintzaren zaugarritasuna • Antzezlanen aukeraketa murriztagoa • Lehen muntaketa erdaraz izateak euskarazkoa eskasagoa izatea dakar maiz • Egoera ekonomikoaren ondorioz, antzezlanen kalitatea txikitzen ari da • Bakarrizketa eta mikroteatroko produkzio asko erdara hutsean plazaratzea <p>PUBLIZITATEA</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Elebitasunak zaildu egiten du sormen langintza • Itzulpenetan komunikazio publizitarioaren kodeak ez betetzea • Euskaraz sortzeko gai diren profesional gutxi dago <p>HEDABIDEAK</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Hedabideen krisia • Elebidunen irakurtzeko eta, oro har, euskaraz egiteko zailtasunak mehatxu nabarmena dira • Kontsumitzailea doako produktua jasotzera ohitu da <p>INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK</p> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Elebidunen harreman-sarea asko handitzean, harremanetan euskaldunen dentsitatea txikitzen da • Sarean maiz gertatzen den kode-nahasketak euskararen presentzia anekdotikoa izatera kondena lezake? • Hilabeteak dira Twitterreko euskarazko jarduna neurtzen dela. Behera egiten ari da?

MOTIBAZIOAK ETA JARRERAK

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen aldeko oinarritzko jarrera aitortuak • Aldeko motibazioak jabekuntza eta transmisioaren mesedetan • Adostasun soziopolitiko instituzionala aldeko • Euskararen balioak: jakitea praktikoa da, integratzailea, positiboa... • Badira euskararen garabiderako positiboak izan diren estrategia diskurtsiboak ere 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen aldeko jarrerak, mugatuta • Gehiengoaren eskubideen diskurtsoa egituratuago dago ekintza positiboarena baino • Euskararen irudi politizatua • Euskara praktikoa ez den diskurtsoa • Ziurtasun falta euskara erabiltzeko • Badira euskararen garabidea ahultzen duten estrategia diskurtsiboak • Interbentzio ahaleginak ez dute beti asmatzen • Ikerketetan hutsuneak motibazio eta jarreraren esparruan

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte joera orokorra, integratzaileagoa • Hizkuntzen inguruko balio eta hautemate mota berriak eta anitzagoak • Euskararekiko jarreraren bilakaera • IKTen aukera berriak euskararentzat • Motibazio eta jarreraren ezagutzan sakontzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza sistema bidezko transmisioak mugak ditu • Hainbat faktorek eragin ezkorra izan dezakete euskararen bilakaeran • Etorkizunerako ikuspuntu pasiboa

5. HIZKUNTZA PLANGINTZAREN ILDOAK

Sarreran adierazi bezala bi dira gaur egun Eusko Jaurlaritzak hizkuntza plangintzaren alorrean dituen tresna estrategikoak: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) eta Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016).

Autonomia Estatutuaren bidez (EAE, 1979), euskarari ofizialtasuna aitortzearekin batera, euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortu zitzaion herritar guztiei Euskal Autonomia Erkidegoan. 1979tik hona, hainbat arau egin dira eta hainbat erakunde eratu dira euskararen gaitasuna, erabilera eta estatusa berreskuratzeko. Neurririk garrantzitsuenetako bat, zalantzarik gabe, azaroaren 24ko 10/1982 Legea izan da, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzakoa, hain zuzen ere.

Lege horrek hizkuntza politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu ez ezik, euskarari hain beharrezkoa zitzaien erakundeen babes eskaini zion gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko. Legeak, 29. artikuluan, euskararen erabileraren normalkuntza-lanean laguntzeko harreman-organoa eratzea aurreikusten du. Helburu horretarako sortu zen, hain zuzen, Euskararen Aholku Batzordea.

Euskararen Aholku Batzordea azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 29. artikuluan aurreikusitako harreman-organoa da, hizkuntza normalkuntzan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari atxikita dago, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskutik, baina bere egitura organikoan txertatu gabe. Aintzat hartu behar da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren funtzioa dela, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika artikulatzea eta haren jarraipena egitea euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez.

Euskararen Aholku Batzordeak 1998ko ekainaren 24an Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu zuen. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa izan da, hizkuntza politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagundu dien oinarritzako tresna. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 1998ko uztailaren 28an plan hori onartu eta bere egin zuen. Ondoren, Eusko Legebiltzarrak berretsi zuen 1999ko abenduaren 10ean. Hamar urte beranduago, eta egungo euskal hiztunen zein bihar-etzikoek beharrei erantzuten jarraitzeko EBPN berritza ezinbestekoa zela ikusita, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Euskararen Aholku Batzordearen bidez, Euskara 21 izeneko gogoeta prozesua bultzatu zuen. Euskara 21 ekimenak hogeita batgarren mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak finkatu zituen. Euskararen Aholku Batzordearen barruko eztabaida 2008ko lehen hilabeteetan abiatu zen eta, gizartearen parte-hartze zabal baten ondoren, 2009aren hasieran behin betiko txostena prestatu eta ezagutarazi zen, *Itun berritu baterantz* izeneko.

5. HIZKUNTZA PLANGINTZAREN ILDOAK

Dokumentuak adostasun zabala lortu zuen urte berean Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zenean. 2009ko irailaren 23ko osoko Bilkuran Eusko Legebiltzarrak Euskara 21 ekimenarekin aurrera jarraitzeari buruzko Legez besteko proposamena onartu zuen. Bertan Eusko Jaurlaritzari eskatu zion “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berrikuspena ezinbestean adosteko, eta bera Eusko Legebiltzarrean aurkezteko, EAEko errealitate soziolinguistiko anitzei arreta emanda”.

Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordearekin batera, plan berria diseinatu zuen, eta emaitza Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) izan zen. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2012-2022 epealdian garatuko den hizkuntza politikaren neurri-proposamenak jasotzera dator. Alde horretatik, Euskara 21 ekimenean adierazitako oinarri eta gidalerroen aplikazio praktikoa izan nahi du.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)⁵

Nondik norakoak

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), Euskararen Aholku Batzordeak egin eta onartu zuen (2012). Ondoren, Eusko Jaurlaritzak berak onartu eta berretsi zuen; eta, azkenik, Legebiltzarrak ere bere egin zuen, 2013ko irailaren 11n. ESEP plana “Euskara 21. Itun berritu baterantz” dokumentuaren ildo, proposamen eta lehentasunen aplikazio programatika osatzeko saioa da, eta euskara biziberritzeari begira Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien, udalen eta askotariko gizarte eragileen egitekoak eta ekarpenak sistematizatzen ditu. 1998an onartua zen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berrikuspena eta eguneratzea da ESEP, eta hainbat ekintza zehatz proposatzen ditu, 2012-2022 urtaldirako, hiru helburu nagusi hauek lortzeko:

- euskararen ezagutza zabaltzea,
- euskararen erabilera handitzea, eta
- euskararen kalitatea hobetzea.

ESEPeke izaera operatiboa du, eta, azken batean, Euskara 21ean ezarritako ildo eta helburuen garapena lantzen du: “Plan honek lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak

5

[http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana%20\(ESEP\).pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana%20(ESEP).pdf)

5. HIZKUNTZA PLANGINTZAREN ILDOAK

identifikatuko ditu, hizkuntza politikako neurriak erabaki eta aplikatuz, euskaraz bizi nahi duten hiritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko”.

Helburu orokor hori aurrera eramateko hiru helburu estrategiko ezartzen ditu, eta horien inguruan eraikitzen da ondoren azaltzen den egitura osoa. Helburu bakoitzari hainbat esparru lotzen zaizkio:

Euskararen jabekuntza edo ezagutza. Euskararen jabetze prozesu horretan hiru esparru nabarmentzen dira: familia bidezko transmisioa, irakaskuntza sistema eta helduen euskalduntzea.

Euskararen erabilera. Erabilerari eragiten dioten faktore objektiboak hauexek dira, besteak beste: hitzunen kopurua, gaitasuna eta inguruko sarea. Horiekin batera, ordea, norbanakoaren motibazioa eta borondatea ere –faktore subjektiboak, alegia– erabakigarriak dira hizkuntzaren erabileran. Hortaz, faktore horietan guztietan eragin nahi dugu Agenda honen bidez, ekintza zehatzak gauzatuz esparruotan: administrazioan eta zerbitzuetan, gune geografiko euskaldunenetan, arlo sozioekonomikoan, aisian, kiroletan eta abarretan.

Euskararen elikadura. Hizkuntza era egokian erabiltzeko, hitzunak ereduak eta edukiak behar ditu, bere hizkuntza jarduna aberasteko. Sail honetan sartzen diren esparru nagusiak hauek dira: liburugintza, kulturgintza, publizitatea, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Beraz, hauek dira atal bakoitzean lantzen diren esparruak:

- Euskararen jabekuntza edo ezagutza
 1. Familia bidezko transmisioa
 2. Irakaskuntza
 3. Euskalduntze-alfabetatzea
- Euskararen erabilera
 4. Administrazioa
 5. Gune geografiko euskaldunenak
 6. Arlo sozioekonomikoa
 7. Aisia eta kirola
- Euskararen elikadura
 8. Liburugintza
 9. Kulturgintza

5. HIZKUNTZA PLANGINTZAREN ILDOAK

10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
14. Sentsibilizazioa eta motibazioa
15. Barruko proiektzioa
16. Kanpoko proiektzioa

Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)⁶

Legealdiaren hasieran, Jaurlaritzak legealdi honetarako (2013-2016) 14 Plan Estrategiko egingo zituela iragarri zuen. Hauetako bat da, hain zuzen ere, Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Jaurlaritzak legealdi honetan euskara biziberritzearen alde egingo dituen ekintza eta jardura nagusiak jasotzen ditu Agendak, hain zuzen. Beraz, Agenda betetzea Jaurlaritza osoaren erantzukizuna da, Jaurlaritzaren sail guztiena, alegia.

Euskararen Agenda Estrategikoak hiru helburu orokor ditu:

- Euskararen ezagutza zabaltzea
- Euskararen erabilera handitzea
- Euskararen kalitatea hobetzea. (Euskararen kalitateaz hitz egiten denean, euskararen komunikagarritasuna hobetzea esan nahi du. Hizkuntza biziago eta komunikagarriago bat lortzea, hain zuzen ere)

Hala ere, dokumentu hau ez da hutsetik sortu, ezta gutxiago ere. Euskararen Agenda Estrategikoa osatzeko hiru dokumentu hauek hartu dira oinarritzat:

- Euskara 21. Itun berri baterantz
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)

⁶ http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051545&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf&_ga=1.152639229.575458129.1418121212

5. HIZKUNTZA PLANGINTZAREN ILDOAK

- Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Programa

Hiru dokumentu horietan jasotzen diren ekintzak ez ezik, legealdi hasiera honetan, euskara biziberritze aldera, Jaurlaritzak landu eta onartu dituen hainbat ekarpen gehigarri dira, beraz, Euskararen Agenda Estrategikoa.

Gainera, Agendaren parte dira, baita ere, Jaurlaritzaren jardun-esparru jakin batzuetako Euskararen Erabilera Plan espezifikokoak, dagoeneko onartuta dauden hauek:

- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia (V. Plangintzaldia 2013-2017)

- Osakidetzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2013-2019)

- EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntzen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra (2009-2017)

- EITBko Euskararen Erabilerarako Plana (2013-2016).

- Halaber, onartu berria den Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Plana ere Agendari erantsi zaio.

Euskararen Agenda Estrategikoaren helburua da euskararen bilakaera soziolinguistikoaren adierazle nagusietan aurrerapenak eragiten jarraitzea eta aurrerapauso neurgarriak ematea honako hauetan:

- Euskal biztanleriaren euskara-gaitasun orokorrean
- Euskal biztanleria elebakarraren euskarazko oinarritzko ezagutzan
- Euskal herritarren euskararen erabileran
- Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskarak lan hizkuntza gisa duen erabileran
- Euskal biztanleriaren euskararekiko atxikimenduan
- Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskara zerbitzu hizkuntza gisa orokortzera bidean
- Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoetan euskararen presentzia sendotzera bidean
- Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien eta organoen jardun publikoan euskarak duen erabilera mailan
- Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako herri-aginteen arteko harremanetan euskarak duen erabilera mailan
- Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan

5. HIZKUNTZA PLANGINTZAREN ILDOAK

- Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien hizkuntza-gaitasunean
- Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien euskararekiko atxikimenduan
- Merkataritza gune handietan eta zerbitzu unibertsalak (ura, elektrizitate, gas hornitzaileak eta beste) ematen dituzten enpresa handietan kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak duten betetze mailan
- Merkataritza eta ostalaritza orokorraren arloko euskararen erabileran
- Informazio eta komunikazioaren teknologietan euskarak dituen baliabideetan eta erabileran

Aurrerapauso hauen neurketari dagokionez, Inkesta eta Mapa Soziolinguistikoaren hainbat adierazletan oinarrituko da nagusiki betetze mailaren ebaluazioa.

Bestalde, helburuen lorpenerako 13 lan ildo, 34 ekimen eta 168 ekintza konkretu definitu dira.

Euskararen Agenda Estrategikoaren Batzorde Eragilea 2014ko abenduaren 15ean eratu zen eta Agendan jasotako ildo, ekimen eta ekintza nagusiak abian jarri eta kudeatzeko erantzukizuna du.

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

Dokumentu honen laugarren atalean jasotzen den ESEPen diagnostikoa sakontzeko lanak burutu zituen Euskararen Aholku Batzordeak 2013 eta 2014an. Lan horien ondorioekin AMIA osatu zuen, eta aipatu AMIA Euskara 21 Batzorde-atalean aurkeztu eta aztertu zen, 2014ko azaroaren 28ko bilkuran. ESEPen diagnostikoa sakontzeko lana burututzat eman zuen horrela Euskararen Aholku Batzordeak. Bilera horretan, ordea, zenbait batzordekidek hala proposatuta, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak konpromisoa hartu zuen dokumentu bat idaztekoa, besteak beste, 15-20 urteko perspektiban, hizkuntza politikaren nondik norakoa marrazteko eta etorkizunerako lehentasunen marko bat proposatzeko balioko zukeena.

“Eta hemendik aurrera zer?” izenburua du hitzemandako txostenak, eta Euskara 21 Batzorde-atalari 2015eko uztailaren 10ean eginiko bilkuran aurkeztu zitzaion. Dokumentu hori aztergai izango du aipatu Batzorde-atalak datozen hilabeteetan. Euskararen garapen iraunkorraz dihardu txostenak. Ildo horretatik, eta gaur arte urraturiko bidetik abiatuta, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskararentzat nahi/irudikatzen duen etorkizunaz gogoeta jasotzen du dokumentuak, eta, azkenik, hizkuntza hitzarmen sozial eta politikoa indarberritzeko zutabe nagusiak eta lehentasunen marko bat proposatzen ditu.

Eztabaidarako erabat irekita dagoen dokumentua da, horixe baita, berez, dokumentuaren sakoneko asmoa: eztabaida zintzorako baliagarria izatea, horretan oinarritzen baita euskararen garapen iraunkorrek ezinbestekoa duen adostasuna.

Hori horrela, gizartean sustatu nahi den eztabaidaren oinarria den “Eta hemendik aurrera zer?” dokumentua Autogobernuaren Lantaldearen eskura jartzea egokitzat ez ezik ezinbestekoa ere iruditzen zaigu. Horregatik, txostenaren azken atal honetan bere osotasunean jaso dugu Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde-atalean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2015eko uztailan aurkeztutako dokumentua.

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

Euskararen garapenaren iraunkortasuna edo “dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen”

Erabiltzen ez den Euskara
hil egiten da
mugitzen ez den bihotza
hil egiten den bezala.

Ez da ezergatik, baina
isiltzen duzun euskara
hiltzen duzun euskara da.

Bitoriano Gandiaga

Dokumentu honetako gogoetan sartu aurretik, euskarari buruz ari garela inondik ere gustukoa ez dugun arren, baina gure ikuspuntua azaltzeko lagungarri zaigunez, maiz entzuten den esamolde bat hartuko dugu hizpide: euskararen “salbazioa”.

Euskara, baina, ez da “salbatuko” –horra gustuko ez dugun hitza– Euskal Herriaren berezko hizkuntza izateagatik. Euskara ez da salbatuko euskaldunok erabiltzeko eskubidea izateagatik eta haren aldeko politikak eta askotariko ekintzak garatzeagatik. Ez behintzat horregatik bakarrik.

Euskara salbatuko da, eta hizkuntza bizia izango da, euskaldunok hala nahi dugulako, euskaldunok euskara nahi eta behar dugulako. Horrek ematen dizkio zilegitasuna eta hauspoa euskara salbatzeko jardunari.

“Nahi” izatea, “beharrezko eta gogoko” sentitzea eta halatan hartzea: horra gako nagusiak.

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

1.- Atarikoak

Euskara 21 Batzordeak ESEPen diagnostikoan sakontzea helburu hartuta osatua den AMIAren gaineko eztabaida egin zuenean, aipatu Batzordearen aurrean, kide batzuek hala proposatuta, konpromisoa hartu zuen Hizkuntza Politikarako sailburuordeak “eta orain, 15 – 20 urteko perspektiban, zer?” galderari erantzun bat emango zion txostena idazteko. Konpromiso hura betetzera dator txosten hau, eta euskararen garapen iraunkorraz dihardu.

Txosten honen abiaburutzat “ESEP Ildo estrategikoen AMIA proposamenak” (2014ko abendua) dokumentua hartu da, beste zenbaiten artean.

Eskertzen dira txosten honen idazketari ekin aurretik Euskara 21 Batzordeko hainbat kiderengandik jasotako ekarpenak.

2.- Urratu dugun bidea

Azken hogeita hamabost urtean euskarak aurrerapen eskerga izan du Euskadiko Autonomia Erkidegoan: herritarren artean 300.000 hiztunetik gora irabazi ditu eta, halaber, gizartean historikoki arrotz eta debeku izan dituen erabilera esparruetan tokia hartu du, neurri ezberdinetan.

Hala ere, egoera normalizatura iristeko bide luzea du oraindik, eta etorkizunean osteratzen atzera ere egin lezake, bere hazkundeak gizartean irrimo sendotzen jarraitzen ez badu. Izan ere, euskara eta gaztelania ofizialak dira EAEn, erabilerarako legezko berdintasuna dute biek aitortua, baina egoera soziolinguistiko desorekatua bizi dute: sendotze-bidean baina ahul dago euskara, eta sendo gaztelania.

Lau hamarkada hauetan izandako biziberritzeari esker eta euskararen hil-kanpaiak historian zehar askotan iragarri izan diren arren, esan genezake bizpahiru belaunalditarako, gutxienez, biziraupena ziurtatua duela euskarak; ez, ordea, bizi-indarra. Horregatik, gaurko eta etorkizuneko gizartean bizi-indarra hartzea eta sendotzea du orain erronka –hizkuntza subordinatua beharrean adin nagusikoa izatea–, eta erabilera da horretarako giltzarri nagusi eta erabakigarria.

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

Inoiz baino gehiago, euskararen etorkizuna herritarren esku dago. Batik bat euskal hiztunon esku, baina baita egun oraindik elebakar direnen esku ere, horiek hartzen duten euskararekiko jarrerak ere baldintzatu egingo baitu euskararen behin betiko indarberritzea.

3.- Nahia giltzarri

Euskarak lege babesa, hizkuntza politika eta herritarren borondatea izan ditu alde XX. eta XXI. mendeen arteko urtealdi honetan, eta hiru faktore horien uztardurak ahalbidetu du, neurri handi batean, gaur bizi duen pizkundea.

Administrazio, hezkuntza eta leku ofizial guztietatik kanpo egonaraztetik legezko ofizialtasunera, eta politika publikoan jazarria edo baztertua egotetik sustatua izatera igarotzeak arnasa eman dio euskarari. Baina euskararen biziraupenean faktore giltzarriak izan bada, euskaldunen borondatea izan da.

Beraz, euskarak biziraupenetik bizitzera, bizitzeko guztiz balio izatera igarotzeko daraman bide honetan bizi-indarra sendotzen jarraituko badu, nahitaezkoa izango du gizartearen borondatea hori izatea eta, horrenbestez, herritarren jarrera praktikoa eta erabilera borondate horrekin bat etortzea.

Ez da hori faktore bakarra, bai, ordea, guztiaren enborra. Batetik, euskal gizartearen nahi horrek egiten duelako zilegi euskara sustatzeko hizkuntza politika aurreragarriak bultzatzea, herri-aginteen obligazioa baita herritarren borondateari aterabidea ematea. Bestetik, hizkuntza politika demokratikoarekin herritarren borondatea bera elikatzen delako.

V Inkesta Soziolinguistikoaren aurkezpenean *laburpenaren laburpen* gisa esan genuena datorkit gogora: “inoiz ez bezala eta inoiz baino neurri handiagoan dago euskararen etorkizuna euskal herritarren esku, eta bereziki euskaldunen esku”. Izan ere, euskararentzako nahi eta beharko genukeen egoeratik urrun baldin bagaude ere, inoiz ez du izan euskarak gaur egun duen tokia gizarte bizitzan. Baina –ditxosozko baina– etorkizuna ez dago idatzita, nekez aurreikus liteke, hain zuzen ere, inoiz baino neurri handiagoan dagoelako belaunaldi berrien esku jasotakoa indartzea eta hobetzea... edo

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

atzera egitea. Belaunaldi berriek eta etorkizunekoek erabakiko dute euskara erabili edo ez, euskara besarkatu –eta zein neurritan besarkatu– edo euskarari bizkarra erakutsi.

4.- Etorkizuneko gizartea irudikatuz

Aldatu egin dira euskal gizartearen ezaugarriak, eta aldatu egin dira euskaldunen hizkuntza ezaugarriak, baita ezaugarri sozio-ekonomikoak ere. Euskal hiztun gehienak alfabetatu gabeak ziren lehen eta alfabetatuak dira orain, horietako asko eskolan eta unibertsitatean euskaraz heziak. Inoiz ez da izan gaur adina euskaraz alfabetaturik. Lau urtetik gorakoen artean jada ez dago euskaldun elebakarrik. Euskal hiztunen artean, lehen gehienak ziren euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen zirenak, eta gaur egun gehiago dira gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak: asko ugalduta dira “erdal elebidun” deituak, trebetasun hartzaileetan (ahozkoa eta idatzizkoa ulertzen) euskaraz primeran moldatzen direnak, ez ordea trebetasun ekoizleetan (hitz egiten eta idazten). Adin talde guztietako euskaldunen artean gehienak euskara lehen hizkuntza izatetik 40 urtetik beherako euskaldunik gehienak (%54,8) lehen hizkuntza gaztelania dutenak izatera pasa dira. Euskararen hazkundeak halaberrez ekarritako ezaugarriak dira. “Hiritartu” egin da euskal hiztunen komunitatea. Eta euskal gizartea bera ere, oro har, asko aldatu da denbora berean. IKTek eta Internetek erabat aldatu dute herritar askoren bizimodua, bereziki gazteena. Euskaraz hazi eta hezitako belaunaldiko gazte asko Euskal Herritik kanpora doa, urrutiko herrialdeetara, eta aldi berean etorkinak datozkigu, gehienak 40 urtez azpikoak eta gaztelaniaz badakitenak. Berezi gazteen bizi-giroan, bi hizkuntza ofizialak ez ezik, ingelesak ere toki garrantzitsu hartu du eta are garrantzitsuagoa hartuko du.

Euskararen hazkunde soziala nagusiki gazteen artean gertatu da, gertatzen ari da eta hala izaten jarraituko du, hots, era guztietako aldaketek gehien eragiten duen **adin taldeetan**.

EUSTATEk eginiko proiektzio demografikoaren arabera, datozen hamar urteei begira jarrita, zehatz esanda 2026an, EAEko biztanleak gaur egun baino ia 100.000 gutxiago izango dira. Jaiotza-heriotza arteko saldoa eta migrazio saldoa, biak, negatiboak izango dira. Gaurtik 2026ra %36 murriztuko da 35-49 urte bitarteko biztanleen kopurua, eta,

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

aldiz, %9 hazi 50-64 urte bitartekoa. Jaiotza-tasak beherakada izango du: 0-15 urteko gazteak biztanleriaren %14,3 dira gaur egun, eta %13,8 baino ez dira izango 2026an, hots, gaur egun baino 35.000 gutxiago (gaur egun baino %11,2 gutxiago, alegia). Epe ertainean, eskolako adinean dagoen biztanleria osoak beheranzko joera izango duela aurreikusten da.

Aurreikus liteke 2026an, 5 urte edo gehiagoko herritarren artean, EAEko euskaldunak %45,2 izango direla; euskaldun hartzaileak %17; eta erdaldunak %37,8. Adinari dagokionez, 40 urtetik beherako herritarren gehiengoa (%80 pasatxo) euskalduna izango da, eta 50 urtetik gorakoen artean euskaldunen portzentajea heren bat eskas izango omen da. 20 urtetik beherako gazteen artean %90etik gora izango dira euskaldunak, 20-24 urte bitartekoaren artean %84 eta 25-29 urte bitartekoaren artean euskaldunak %73,3.

Garai berriak, aukera berriak, muga berriak... erronka berriak. Ondorioz, estrategiak ere egokitu egin behar.

5.- Euskararen garapen edo hazkunde iraunkorra bermatu

Euskararen biziberritzean urte hauetan guztietan metatu dugun esperientzia ezinbestez aintzat hartuz, hauxe da aurrera begira bermatu behar duguna: egindakoa finkatzea eta sendotzea, atzera bueltarik eragozte. Ez baita gutxi.

Euskararen hazkundera eskuratutako maila berri bakoitza hurrengo hazkuntzaldi baterako berme izatea lortu behar dugu; ezarritako mugarri berri bakoitzak hurrengorako abiaburu sendoagoa ematea.

Horretarako funtsezkoa izango du euskarak gizartean esparru funtzional gutxieneko batzuk bereganatzea eta ziurtatzea, eta, aldi berean, hizkuntza nagusiarekin elkarbizitzen – gaztelaniarekin edo frantsesarekin, alegia– beste esparru batzuk ere bereganatzea.

Euskara biziberritzeko prozesuan ongi egindako gauzetan sakonduz, zuzendu beharrekoak zuzenduz eta gizartearen aldaketek dakartzaten erronka eta behar berrietara egokitzuz jarraitu behar dugu aurrera egiten euskararen normalizaziorantz, hots, euskararen adin nagusitasunerantz.

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

Horrenbestez, hurrengo bi hamarkadei begira, euskararen erabilera modu progresiboan hedatzen eta normalizatzen jarraitzea dugu erronka, helburu hartuz herritar elebidunez osatutako gizarte elebidunago batera gerturatzea, jakitun izanik ez direla denak neurri berean izango elebidun, eta oinarri hartuz bi hizkuntzen estatus-berdintasuna eta herritar guztien **hizkuntza eskubideen** berdintasuna, ezein dela ere – gaztelania nahiz euskara– bakoitzaren hizkuntza hautua.

Horiek gauzatu ahal izateko, joandako hiru hamarkadetan euskarak izan duen hazkunde soziolinguistikoa *hazkunde iraunkor* bihurtzea da, beraz, datozen urteetan ziurtatu behar dugun dema.

6.- Gure hizkuntza aniztasunaren kudeaketan, ekitatea oinarri eta bizikidetzatza helburu

Gure gizartea aniztuna da, eta aniztasun hori ezinbestez dugu aitortu eta errespetatu beharra, berez duen balio positiboarengatik ez ezik, hura aintzat ez hartzea abiapuntu ustela izango litzatekeelako euskara sustatzeko politika eraginkor baterako.

Hizkuntzari dagokionez ere, gero eta aniztunagoa da gure gizartea. Euskal gizartea gizarte elebiduna da, baina gero eta testuinguru eleaniztunago batean txertatzen ari da, batik bat belaunaldi gazteetan. Ingelesak –batez ere– eta beste hizkuntza batzuek tamaina bateko edo besteko lekua hartuko dute etorkizun hurbileko gizartean, esparru batzuetan funtzio jakin batzuk bereganatuz.

Testuinguru eleaniztun horretan ziurtatu behar du euskarak gizarte bizitzan behar besteko toki, behar besteko erabilera esparru funtzional edukitzea. Kontua ez baita izango euskara edo gaztelania, ezta euskara *edo* ingelesa ere. Aitzitik, kontua izango da euskara *eta* gaztelania (edo frantsesa) *eta* ingelesa.

Beraz, hizkuntza politikaz dihardugunean, euskara biziberritzeaz dihardugunean, elkarbizitzaz ari gara: gizartearen elkarbizitzaz eta hizkuntzen arteko elkarbizitzaz. Hizkuntza-elkarbizitzatza funtsezko osagai du gizarte-elkarbizitzak gurean.

Horregatik, hizkuntzen gaia kudeatzeari dagokionez, ekitateaz dihardugunean zuzentasunaz ari gara, justiziaz; azken batean, herritarren aukera berdintasuna aniztasunean elkarbizitzeko funtsezko elementua dela kontsideratzen badugu, ekitatezko hizkuntza politika batek euskararen aldeko politika positiboa egitea planteatzen du

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

halabeharrez. Hala, euskara sustatzeko hizkuntza politika ekitatezko politika demokratiko baten zati bereizezin gisa ikusten dugu, herritar guztien aukera-berdintasunera hurbiltzeko politika den heinean. Euskara sustatuz, euskal hiztunek euskara erabiltzeko aukerak sustatuz, hizkuntza eskubideak babesten ari gara lehenbizikoz, baina baita gizarte kohesioa sendotzen ere, gure gizartea, gizarte elebiduna, guztiontzako bizileku adeitsua eta abegikorra bihurtzen. Elkarbizitza harmoniatsurik gabe ez baita euskararen hazkundera eta garapen iraunkorra ziurtatuko, ez eta euskararen adin nagusitasun beterik gabe elkarbizitza harmoniatsurik ere.

7.- Zer etorkizun nahi dugu euskararentzat?

Goiko galderak, gutxienez, baditu bi alde, txanponaren antzera. Alde batean, galdera hauxe dugu: “zergatik euskara biziberritu?”. Eta beste aldean badira bi hari-mutur, honakook: “zer etorkizun *nahi* dugu euskararentzat?”, eta “zer etorkizun eraiki *ahal* diogu euskarari?”.

Lehenengo galderak (“zergatik zertarako euskara biziberritu?”) erantzun asko ditu, ia denak onargarriak gainera, askotarikoak baitira herritarren identitateak edo identifikazio-moduak hizkuntzarekiko: guztiak dira onargarriak, hurkoaren aukera librea errespetatzen duten neurrian. Halere, bada erantzun bat, nire ustez, askotariko erantzunekin bateragarria dena eta herritarren gehiengo zabalak partekatu lezakeena, norberaren erantzuna beste bat ere izatearen kalterik gabe, hain zuzen ere bizikidetzari zuzenean lotzen zaiona eta, agian honelatsu formulatu litekeena: “Herritar gehienek, hiztun direnek nahiz ez direnek, euskara norberaren eta gizartearen elementu propioztat hartuz bere egiten dutelako euskara biziberritzeko helburua, eta euskara herritar askoren, gero eta gehiagoren, ohiko hizkuntza delako, eta herritar askoren, gero eta gehiagoren, nahia delako euskara erabiltzea. Bizikidetzaren harmoniatsuak eskatzen du herritar guztien aukera librea bermatu egin behar dela, baita hizkuntza hautuari dagokionean ere, euskara zein gaztelania izan hautatutako hizkuntza. Exijentzia etiko eta demokratikoa da hori”.

Bigarren galderari dagokionez: “zer etorkizun *nahi* dugu euskararentzat?”, eta “zer etorkizun eraiki *ahal* diogu euskarari?”. Nolabaiteko ziurgabetasun eta ezinegon zantzuak ageri dira, bidegurutze batean bagina bezala. 15 – 20 urteko perspektiban ari garela

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

hausnarrean ahantzi gabe, zer dugu satisfazio eta lasaitasun erabatekorako helburu edo baldintza? Bi hizkuntzen arteko berdintasun sozial erabatekoa lortzea, agian? Hemendik aurrerako hainbat urte luzetan ez da hori ezagutuko –hara garbi esanda!–. Beraz, ikas dezagun nolabaiteko insatisfazio saihetsezin hori positiboki kudeatzen, etsipenean erori gabe eta errealitatea heldutasunez –den bezalako, alegia– ulertzen eta onartzen, helburutzat hartuz euskararen etorkizuna ziurtatzea, hizkuntza bizia izatea, gero eta biziagoa, gero eta erabiliagoa, gero eta bizi-indardunagoa... gaur egungo asimetria perfektutik simetria inperfekturako bidea eginez, jakinda simetria perfekturik ez dagoela.

Euskarak gero eta hiztun gehiago ditu. Izaten ari den bezala, hazkunde hori berezkoa baino handiagoa izatea ezinbestekoa da euskararen biziberritzean aurrera egiten jarraitzeko, baina horrek hiztunen tipologian ezaugarri berriak dakartza berekin. Datozen bi hamarkadetan, gero eta herritar gehiago izango ditugu euskara bigarren hizkuntza dutenak; gero eta euskaldun gehiago izango ditugu lehen hizkuntza (ama-hizkuntza edo etxeko hizkuntza) euskara ez den beste bat dutenak, gehien-gehienak gaztelania noski (jada hala da 40 urtetik beherako euskaldunen %54,8); gero eta euskaldun gehiago izango ditugu bizimodua ingurune ez hain euskaldunetan egiten dutenak; gero eta euskaldun gehiago izango ditugu legitimitate osoz gaztelaniari lehen hizkuntza gisa eutsi nahi diotenak; gero eta euskaldun gehiago izango ditugu euskaraz baino erraztasun handiagoa dutenak gaztelaniaz. Eta euskal herritarren identitate aniztasunak lotura zuzena izaten jarraituko du gero eta euskaldun gehiago izango dituen euskal gizartearen hizkuntza portaerekin. Hori guztiori ez dugu etsipenez onartu behar; aitzitik, naturaltasunez eta lotsarik eta larriminik gabe onartu behar dugun errealitatea da, gure errealitate bakarra. Hori gara.

Eraginkortasunagatik baino ez bada ere, hobe dugu pentsamendu dikotomikoa alboratzea: hau *edo* hori beharrean, hobe hau *eta* hori, ahal den guztian. Hiztun komunitatea trinkotzea ala gizarte osoa euskalduntzea ote da gure aukera? Estrategia intentsiboa ala estentsiboa? Eskola ala familia? Fishmanen mailetako hau edo hura? Ez ote da hobe modu eskluientean baino modu osagarrian planteatzea, eta –hori bai, hori nahitaez– lehentasunak ordenatzea? Adibidez, hiztun komunitatea trinkotzeari eman zaion garrantzia eta pisua baino handiagoa eman behar zaio –hori da uste duguna–, baina kontuan hartuz euskal hiztun komunitateak inoiz izan ez dituen hizkuntza ezaugarriak

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

dituela. Hain zuzen ezaugarri horiek guztiek (ez batak edo besteak bakarrik, baizik eta guztiek eta beren arteko konbinazio ezberdinek) neurri erabakigarrian eragingo dutela euskararen erabileran. Ezaugarri horiek norbanakoaren baitan eta gizartearen testuinguruan gauzatzen dira, eta besteak beste honako faktoreekin dute zerikusia: euskara etxean, kale-giroan edo eskolan eskuratua den, etxean erabiltzen den, kale-giroko eta lagunarteko hizkuntza den, eskolan irakas-hizkuntza eta beste jardueretako hizkuntza den...

Euskal hiztun praktikante izatea gaur eta hemen, eta 20 urteko perspektiban, hautua da eta izango da. Hortaz, aurreko pasartean aipatutako faktoreen ondoan, inoiz ez bezalako pisua hartzen dute euskararekiko atxikimenduak, kontsentsu sozial eta politikoak, eta euskarazko jardunaren erakargarritasunak. Atxikimendua hedatu eta sendotzeko garaia dugu datozen bi hamarkadotan, aipatu erakargarritasuna areagotzeko garaia. Alegia, motibazioak –bai, motibazioak pluralean, motibazio berriak- lantzeko garaia da. Arauak bai, zalantzarik gabe, baina motibaziorik gabe alferrik dira arauak, eta motibazioak ere ezin du izan soilik politikoa. Motibazio berriak behar ditugu, ziurrenik elkarbizitzari eta prestigioari oso lotuak, beste zenbaiten artean euskara jakin eta erabiltzearen harrotasunari lotuak. Eguneroko jarduna da benetan erabakigarria dena hizkuntzaren bizi-indarrerako, eta motibazioak ere eguneroko jardunari lotuak izan behar dira. Ahantzi gabe, eguneroko euskarazko jarduna testuinguru eleaniztunean, baliagarritasun eta prestigio handiko hizkuntzen ondoan gertatuko dela, hots, gisa horretako hizkuntzen artean egin behar dela euskararen hautua egunerokoan.

Herritar guztien aukera berdintasuna, herritar guztien hizkuntza eskubideen bermea, elebitasun igualitarioa dira elkarbizitzarako baldintza; igualitarioa ez den elebitasuna... huraxe da diskriminatzailea. Horrek guztiak oinarrian ekitatea jartzea dakar eta, beraz, elkarbizitza harmoniatsua eta ekitatiboa eskubide eta betebeharren arteko konstrukto gisa ulertzea. Erdaldunak onartu behar du euskaldunak euskara normaltasunez erabiltzeko eskubide osoa duela eta guztiz normaltzat hartu behar du milaka herritarrek euskara sentitzea lehen hizkuntzat edo hizkuntza kuttunentzat; eta euskaldunek onartu behar dute gaztelania erabiltzeko eskubide osoa dutela hala nahi duten euskal herritarrek, eta normaltzat hartu behar da milaka euskal herritarrek – euskaradun asko barne–, gaztelania izatea beren hizkuntza kuttunena. Beste horrenbeste

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

esan liteke euskara eta gaztelania biak identitate ezaugarri sendotzat dituzten herritarrei buruz ere. Guztiona da norberaren hizkuntza maitatzeko eskubidea, edozein delarik ere hizkuntza. Naturaltasuna nagusi.

Baina hori guztiek ulertu eta onartzen badute, horrek esan nahi du herritarren hizkuntza hautua errespetatzen dutela denek, norberarena bezala hurkoarena. Hori praktikan gauzatuko baldin bada, behar-beharrezkoa da herritar guztiek bi hizkuntza ofizialak gutxienez ondo ulertzea, ulertu ezean ezinezkoa baita euskaldunaren hizkuntza hautua gaztelaniaren hautua bezala bermatzea. Herritarrek ulertu beharko lukete elebitasun hartzailea ere zutabe sendoa dela elkarbizitza harmoniatsuentzako, eta elebakartasuna arazoa eta oztopoa dela hizkuntza askatasun efektiboarentzako; eta, beraz, elebakartasuna gainditzea –gutxienez ulermen mailan– elkarbizitza harmoniatsu eta ekitatezkorako baldintza dela. Hizkuntza hautuaren eskubidea errespetatzeko betebeharra da bi hizkuntzak gutxienez ulertzea. Pisua eman behar zaio honi, datozen 20 urteetako perspektiban.

8.- Hizkuntza hitzarmena indarberritzeko zutabeak

Adostasun sozial eta politiko ahalik eta zabalena izatea ez da nahikoa, baina ezinbestekoa da aurrera egiteko. Desorekaren eta berdintasunik ezaren aurkako politika publikoek arrakasta izan dezaten, nahitaezkoa da adostasuna.

30 urteotako euskararen biziberritze prozesuaren arrakasta ezin da esplikatu Euskararen Legea gabe, herri-aginteen konpromiso efektiborik gabe, gizarteko askotariko eragileen bultzadarik gabe, hizkuntza plangintza estrategiko eta hizkuntza politika aktiborik gabe, baliabiderik gabe... Baina hori guztia ezin da esplikatu –ez zen posible izango– adostasun sozial eta politiko zabalik gabe. Herritarren atxikimendua eta adostasun sozial eta politiko zabala dira zutabe erabakigarri eta nagusiak.

Adostasun sozial eta politikoa elikatu egin behar da. Gaur dugun baino adostasun handiagoa behar dugu. Behar dugu indarberritu honaino ekarri gaituen adostasuna.

Indarberritze horretarako oinarri nagusiak honakoak dira:

Lehenengo oinarria: bizikidetzeta, aukera berdintasuna, demokrazia, askatasuna... eskubide eta obligazioen dialektikan bakarrik **gara** daitezke. Euskararen kontua

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

bizikidetzak, aukera berdintasuna, demokrazia eta askatasuna sendotzeko kontua da. Gainera, printzipio horien arabera bakarrik da onargarri, eta, aldi berean, printzipio horiek aberasteko da nahitaezkoa hizkuntza gaian aukera berdintasun efektiboa sustatzea, berdintasun formal hutsetik haratagokoa dena. Bizikidetzarako baldintza nahitaezkoa da aniztasuna egiazki errespetatzea, paradigma uniformizatzaileak alboratzea, baita hizkuntza kontuetan ere. Hizkuntza aniztasunaren kudeaketa demokratiko eta iraunkorra da, hain zuzen ere, adostasun sozial eta politikoa berritzeko eta indartzeko bidea. Hizkuntzak osagarri, bateragarri ikustea. Horrek eskatzen du hizkuntzen aukera berdintasunerako politika positiboak egitea ahulenaren alde, euskararen alde. Hori ez da inposizioa, hori berdintasunaren aldeko politika da, hori demokrazia linguistikoa da, hegemonismo linguistikoaren aurrean indartu behar dena. Hori da Euskararen Legearen eta Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Agiriaren (ikus 7. artikulua) letra nahiz espiritua errespetatzea.

Inposiziorik ez, beraz. Inposizioa da hizkuntzaz aldatzera behartzea. Hori gertatuko ez bada, beharrezkoa dugu herritar elebidunez osaturiko gizartea, neurri batean bederen elebidun izango diren herritarrez osaturiko gizartea, bakoitzak erabili ahal izan dezan bere aukerako hizkuntza. Hortaz, adostasun indarberrituaren lehen oinarria litzateke etorkizuneko gizartea herritar elebidunez osaturiko gizartetzat irudikatu eta bi hizkuntza ofizialak gutxienez ulertu egiten dituzten gizarterantz progresiboki urratsak egiten jarraitzea. Beste hitz batzuetan=esanda: herritar guztiek hizkuntza hautatzeko eskubidea egiazki edukitzera iristea, hizkuntza askatasuna herritar guztientzako (euskararen hautua egiten dutenentzako gaztelaniarena egiten dutenentzako bezalaxe, berdin-berdin) efektiboa izatera iristea, herritar guztiak gutxienez bi hizkuntzak ulertzera iristea, bakoitzak nahi duen hizkuntza ofiziala erabili ahal izan dezan, eta inor ez dadin hizkuntzaz aldatzera behartuta sentitu, eta inor ez dadin *arrotz* sentitu edozein delarik ere bere hizkuntza hautua. Urrun gaude hori izatera iristetik, baina horrek behar du *euskal hizkuntza ereduaren* lehen oinarria eta datozen bi hamarkadetarako aurreikusten dugun garabidea: biak ulertu, bakoitzak gogokoen duena erabili dezan.

Bigarren oinarria: hizkuntza bizia, adin nagusiduna izatea da euskararentzako nahi dugun etorkizuna. Bihotzetik ezpainetara gehiagotan eta gehiagok eramatea nahi dugu. Guk bakarrik eraman dezakegu, euskal herritarrok, euskaldunok. Hori da gure "misio

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

unibertsala”. Eta hori erabileran jokatzen da. Beraz, erronka da euskara lehen hizkuntza dutenak hala izaten jarraitzea, hots, euskal hiztunen komunitatea trinkotzea. Eta euskarara hurbiltzen direnek funtzio batzuetarako erabiltzea. Erabilera da erronka, euskara bizitzarako hizkuntza bizia izan dadin. Harrotasunez bereganatu behar duen erronka du hori euskal gizarteak.

Bi oinarri horien arabera, denok dugu gure egitekoa: herritar euskaldunek, herritar erdaldunek, herri-aginteez, askotariko gizarte eragileek, alderdi politikoek, sindikatuek, enpresariak, hedabideak, irakasleak, unibertsitateak, administrazioko arduradun eta langileak... denek.

Euskararena auzi politikoa da, zentzurik zabalenean. Euskarak politika behar du, baina bere etsairik handienetako bat politikakeria da, bere bizkar egindako tresnakeria politikoa. Politikakeriak, edo euskara joera politiko jakin batekin identifikatzeak edo euskara joera politiko jakin batzuk indartzeko erabiltzeak euskararentzako eskenatoki guztiz hilgarria lekarke: ghettoarena. Erabat saihestu behar da hori.

Euskararentzako nahi dugun etorkizuna eraikitzeke euskara erdigune politikoan jarri behar da. Euskara adingabeko hizkuntza edo adin nagusikoa izatea, sinbolo soila edo hizkuntza bizia, gizarte zabalarena edo zati batena, inklusiboa edo ghettoa kondenatua ... hori guztia da jokoan daukaguna, eta adostasun berrituak egin beharko lukeen aukera, noski, “adin nagusiarena”, gizarte “zabalarena” eta “hizkuntza biziarena” litzateke.

Helburu horiek lortzeko bidean beharrezkoa da hizkuntza politika zehar-lerrotzat hartzea herri erakundeetan, eta hizkuntzen kudeaketa era guztietako erakunde, enpresa eta elkarten kudeaketa printzipioetan barneratzeko eta orokortzeko sustapen lana egitea.

Bide horretan garatu behar diren hizkuntza politikek progresiboak eta eraginkorrak izan behar dute, euskararen egoeran unean uneko helburu aurreragarriak ezarriz eta herri erakunde, enpresa, elkarte, gizarte-eragile eta herritarrentzat hein handi batean egingarri diren hizkuntza erabilerak eta praktikak definituz.

Adostasun zabal eta berritu horrek helburu eta giltzarri behar ditu herritarren parte-hartzea eta inplikazioa. Herritarren partaidetza sustatzeko tresnarik eraginkorrena elkarlana da; beraz, **herri-aginteen**, askotariko gizarte eragileen eta norbanakoen arteko lankidetzak etengabe bilatzeak ere izan beharko luke adostasun berrituaren ezaugarri.

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

Halaber, hizkuntza politika berri eta adostuak euskararen erabileraren prestigioa eta errekonozimendua sustatu behar ditu, herritarren atxikimendu afektibo eta sinbolikotik atxikimendu eta leialtasun praktiko eta indartsu batera igaro gaitezen. Beraz, herritarra –hizkuntza erabiltzaile gisa– jarri behar du erdigunean hizkuntza politika adostu eta berriak.

9.- Lehenetasunen marko baterantz


Gure buruari “eta hemendik aurrera zer?” galdetzen diogunean, hausnartu nahi dugu honakoaz: zer-nolako egoera irudikatzen dugu ikuspegi demolinguistikotik 20 bat urtera begira, eta zer-nolako lehenetasunak finkatuko genituzke. Irudikatzen dugun ikuspegi demolinguistikoaren berri labur eta partzialki bada ere emana dago aurreko orrialdeetan, bereziki 4. atalean.

Datozen 15-20 urteei begira lehenetasunen markoa finkatzen laguntzeko ekarpena da ondorengo proposamena. Ez da, beraz, ekintza-programa bat, ezta ere arloz arloko lan-ildoen zerrenda bat. Lehenetasunak finkatzeko lagungarri izateko asmoa duen markoa da. Hasiera beretik esana utzi dezagun honakoa: lehenetasunetan lehenetasuna gazteriarengan kokatzen da. Besteak beste arrazoiongatik: euskararen hazkundeak gazteen eskutik etortzen jarraituko duelako, gazteen artean kontzentratzen direlako euskaldunen proportziorik nabarmen altuenak, euskaraz hazi, formatu eta hezitako belaunaldiak izango ditugulako, gazte euskaldun guztiak euskaraz alfabetatuak direlako, unibertsitate ikasketadun gazteen portzentajeak Europako altuenetakoak direnez etorkizuneko gizartearen gidari eta liderrak gazteen artean daudelako.

Lehenetasunen markoa ezartzerakoan, oso lagungarria izan dakiguke Iñaki Martínez de Lunak, Fishman-en zenbait kontzeptu makulu hartuta, euskararen erabileraren azalpenerako definitu zituen hiru dimentsioak gogoratzea: dimentsio makro-soziala, dimentsio mikro-soziala eta norbanakoaren dimentsioa. Martínez de Lunaren ereduari jarraiki, hiru dimentsio horiek elkarri eragiten diote eta osotasunean hartu behar dira, ondoko irudian adierazi nahi den legez. Hala ere, esan genezake euskararen historian, zenbait kasutan, gertatu izan dela hizkuntzaren biziraupenerako nahikoa izatea dimentsio indibiduala eta mikro-soziala, dimentsio makro-soziala aldekoa ez izanik ere.

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

Euskararen erabilerarako baldintzak



Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Agenda Estrategikoaren (2013-2016) izenburuak dio “bizikidetzarako hizkuntza bizia” dela Agendaren oinarria. Eskuarlean dugun Martinez de Lunaren ereduaren abiapuntua da “hizkuntza bizia erabiltzen dena da”. “Dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen” esana utzi zigun Axularrek. Lehentasunen marko honen oinarrian dagoena ere, noski, horixe da, euskararen erabilera. Izan ere, egoera elebidun edo eleaniztun batean, ukipen egoeran dauden hizkuntzetako hiztunek, une askotan, horien arteko bat hautatu beharko dute. Euskararen alde egingo badute, grafikoko irudian jasotako hiru maila horietako baldintzak bete beharko dira, ez erabat, baina bai neurri handi batean. Bestela, hiztun elebidunek hizkuntza nagusirantz joko dute, askotan oharkabean.

Beraz, erabilera helburu eta ardatz hartuz, hiru dimentsio horietan ezarri beharko ditugu hurrengo urteetarako lehentasunak. Nolanahi dela ere, lehentasunen markorako proposamenak aletu aurretik, utzi dezagun esanda honakoa: lehentasunetan lehentasun orain arte lortutakoari eusteak izan behar du. Egindakoa handia da, eta haren iraupena ez dago berez bermatua, baditu ahuleziak, erraza da atzera egitea. Eutsi behar zaio egindakoari. Eta lehenetsi behar genukeen giza taldea gazteen taldea da, jadanik dokumentuan esanak dauden arrazoiengatik.

9.1.- Lehentasunak dimentsio makrosozialean

- **Diskurtsoa edo *framing-a***

Euskararen gaineko hainbat diskurtso dago gure artean, normala denez. Kontua ez da diskurtsoen ugaritasuna ezabatzea, ez bakarrik ezinezkoa delako, baizik eta, garrantzitsuagoa dena, halakorik nahi izatea euskal herritar izateko eta euskara bizitzeko ikuspuntu eta modu ezberdinak ezabatzea litzatekeelako. Aniztasuna ukatzea, azken batean. Baina hizkuntza bizikidetzaren muinaren parte denez, behar da euskararen gaineko diskurtso partekatua, gizartearen oso gehiengo zabal batek partekatua, hizkuntza hautu ezberdinen errespetua eta euskararen aurrerabiderako eraginkortasuna aintzat hartzen dituen diskurtso partekatua. Hizkuntza politika eraginkorra izatea nahi badugu, behar-beharrezkoa da diskurtso edo *framing* berritua gizarteratzea. Diskurtsoak adostasun ahalik eta zabalena izango du oinarri, ikuspegi kontrajarriak gainditzeko gauza izango da, helburu egingarriak izango ditu eta gizarte pluralaren nahi eta ezaugarrietara egokituko da. Hortaz, datozen urteei begira lehentasunezkoa da diskurtso edo *framing* berritua eta adostua eratzea eta gizarteratzea.

Diskurtso berritu eta bateratuaren eraikuntzari dagokionez ere, ez gara hutsetik abiatzen. Hor ditugu, besteak beste, Euskara 21 (XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak – Itun berritu baterantz) dokumentua, Euskararen Aholku Batzordeak 2009an onartua eta Eusko Legebiltzarrak ere bere egina, eta hor dugu EGOD proiektua, Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketarako prozesua, parte hartze zabala izan duena eta Euskararen Aholku Batzordearen eztabaidara jarrita dagoena.

Bistan da: unean une gailentzen diren diskurtsoek asko baldintzatzen dituzte politika publikoak. Euskarak eta gaztelaniak gaur bizi duten egoera sozial desorekatuan, euskarak nahitaez behar du ahalik eta kultura, ideologia eta joera gehienetako giza taldeek, erakundeek eta norbanakoek bere egingo duten diskurtso sustatzailea eta inklusiboa.

Diskurtso partekatua oinarri sendoa izango litzateke euskararen irudi publikoa indartzeko. Euskara jakin eta erabiltzearen ospea sendotzeaz ari gara, eta, horretarako, mesedegarri izango litzateke gizartearen eremu ezberdinetan (politika, ekonomia, kirola,

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

arteak, komunikazioa...) modu eta neurri bateko edo besteko lidergoa dutenak aipatu irudi publikoaren mesedean aktibatzea.

- **Lege estatusa**

EAEEn dugun araubidea behar besteko lege-bitartekoa izan da orain arte egindako bidea egiteko, eta etorkizunari begira ere egokia izaten segitzen du, garapenerako aukerak ematen baititu. Komenigarria izango litzateke araubideari buruzko eztabaidak ika-mika interesatuetatik salbu uztea, era bateko edo besteko ika-miketarik salbu. Nolanahi ere, euskara biziberritzeko prozesuak aurrera egin ahala, eta gizartearen ezaugarrien bilakaera aintzat hartuz, hizkuntza-araudian egon litezkeen mugak edo egokitu beharrekoak antzemateko gogoetak eta azterketak egitea beti izango da komenigarri, kasua balitz, bidezkoak diren egokitzapenak egiteko, betiere gizartearen aldian aldiko borondatearekin bat etorrira eta askotarikoen arteko adostasun zabalean oinarrituta. Euskararen lege-araubidearen garapenean oso bereziki zaindu beharko da lege-arau sektorialetan hizkuntzen trataera egokia txertatzea, gure legeriak ezartzen duen euskara eta gaztelaniaren estatus berdintasuna arloz arlo gauzatzea errazteko eta ahalbidetzeko.

- **Euskararen lurraldea**

Euskara biziberritzeak euskararen lurralde osorako helburu komuna izan behar du, eremu administratibo bakoitzaren ezaugarriak eta erabaki ahalmenak errespetatuz, noski. Euskararen lurraldea osatzen duten lurraldeen artean euskararen bizi-indarrari dagokionez gaur egun dagoen asimetria progresiboki murrizterantz jotzeak helburu komuna izan behar du.

- **Estatuko eta Europako esparruak.**

Hizkuntza txiki-ertainen babesa eta sustapena landu beharko da Estatuan eta Europan. Bizi garen testuinguru linguistikoan eta geopolitikoan, Europan **hizkuntza aniztasunak** etorkizunean hartzen duen norabideak eragin lezake euskararen bilakaeran eta, beraz, hizkuntza txiki eta ertainek europar testuinguruan estatus eta egoera normalizatua izan dezaten bultzatu beharko genuke, egitura politikoak (eskualde mailako

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

erakundeak, mugaz gaindikoak, europar erakundeak) eta Europan **hizkuntza aniztasuna** sustatzeko dauden elkarteak eta foroak baliatuz. Espainiako Estatuan ahalbidetu behar da hizkuntza hitzarmen berri bat Espainiaren eleaniztasuna praktikan bere egin dezaten Estatuko erakundeek, eta gaztelania ez beste hizkuntza ofizialek adin nagusiko hizkuntzen legezko aitormena izan dezaten Estatuan eta Estatuko erakundeetan erabiliak izateko aukera izan dezaten.

9.2.- Lehentasunak dimentsio mikrosozialean

- **Harreman-sareak**

Modu bateko eta besteko harreman-sareen eremua da dimentsio mikrosozialarena, egunerokoan ehuntzen eta gauzatzen diren **harreman-sareena**. Pertsonen arteko komunikazioan gauzatzen da mintza-jarduna, eta, ondorioz, garrantzi betea dute harreman-sareek. Gizarte-harremanak, gainera, hizkuntza baldintza ezberdinetan gertatzen dira, eta baldintza horiek zuzenean eragiten dute euskararen erabileran. Haur eta gazteen sozializazioari loturik dago zuzenean harreman-sareetako hizkuntzaren kontua. Eta sozializazioa familiaratik eta eskolatik haratago gauzatzen da.

Euskara-gaitasun erlatiboarekin ere badu loturarik dimentsio honek, baita familiako eta eskolako euskara transmisioarekin ere. Horiek, ordea, norbanakoaren dimentsioan jorratuko ditugu aurreraxeago.

Kontua da etxetik euskaldun ez direnak direla gazte euskaldunetan gehienak, 2. eta 3. zonalde soziolinguistikoetan bizi direla, eta ugaltzen ari direla gazteen artean erdal elebidunak. Nagusiki edo soilik eskolaren eskutik euskaldundutako gazteen **harreman-sareetan** (etxea, lagunartea, kale-giroa, lantokia) euskara oso ahula baldin bada, euskaratik urrun geratuko dira haiek. Eta etxetik euskaldundutakoen **harreman-sareetan** ahul baldin bada euskara, lehen hizkuntza izatetik bigarrena izatera pasatzeko arriskuan izango dira horiek. Euskararen arnasmuneek eta etorkinen integrazioak –bi problematika oso ezberdin baina garrantzitsu aipatzearren- erantzun propioak behar dituzte.

Abiapuntu hori buruan, lehentasunak finkatzerakoan berebiziko garrantzia behar dute aisialdiak, IKTek, hedabideek eta **lan-munduak**. Aisialdian, esate baterako, euskararen erabilerak duen egoeran jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa eman behar da.

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

Lan-munduari dagokionez, berriz, lanbide heziketako euskararen erabilera arrunt hobetu behar da. Eta hedabideetan euskal hiztuna eta horren apetak jarri behar dira erdigunean.

Garrantzi betekoa da gizarteak berezkoak dituen eremuetako eragile naturalek –enpresari, sindikatu, hedabide, kontsumo arloko elkarte, elkargo profesional, alderdi politiko, kirol erakunde, arte eta kulturgile eta abarrek– beren ohizko jardunean euskararen erabilera ere integratu dezaten pausoak egitea.

- **Euskaraz egitearen legitimitatea**

Euskararen erabileraren aldeko giroa indartu behar da, hots, euskararen erabilerarako gonbidapena lau haizetara zabaldu gizartean, eremu ezberdin eta ugarietan euskaldunak euskara erabiltzearen legitimitatea irabazteko eta sendotzeko, eta euskaraduna euskara naturaltasunez erabiltzera etengabe gonbidatzeko. Gizartearen harreman-esparru zabalean euskarazko erabiltzaile potentzialen berri erraz jakiteko ikur edo irudia landu eta zabaldu behar litzateke, betiere gonbidapen izaera eta borondatezkotasun ezaugarria emanez eta presio zantzu guztietatik erabat aldentuz.

9.3.- Lehentasunak norbanakoaren dimentsioan

- **Euskara-gaitasun erlatiboa**

Euskara-gaitasun erlatiboa erabakigarria gertatzen da erabilerarako. Hamarkada hauetan euskarak izan duen hazkundeak elebidunen tipologiak aniztea ekarri du. Bilakaera horren ondorioz, gaitasun erlatiboa da egungo herritar elebidun askoren ahulezia, bereziki mintza-jardunari dagokionez. Dagoeneko dokumentuaren aurreko ataletan aipatu dugunez, ugaltzen ari dira gazteen artean erdal elebidunak. Horregatik, garrantzitsua izango da euskararen transmisioa lantzen denean zeregin hori ikuspegi kognitibotik soiletik ez planteatzea eta hizkuntza sozializazioaren alderdia sendotzea. Euskararen aldeko motibazioa eta irudi positiboa lantzerakoan arreta jarriko zaio hizkuntzarekiko identifikazioari, afektibotasunari, maitasunari, interesari eta abarri. Horretan garrantzitsua izango da, beraz, hainbat eragile eta esparrutan eragitea: familia, aisialdia, gazte elkarte eta taldeak, hedabideak, IKT eta abar. Hiztunen elkarrekiko

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

laguntza ere sustatu behar da, adibidez, euskaldun zaharren artean euskaldun berriekiko jarrera positiboak sustatuz.

Harreman-sareei buruz esandakoaren ildo beretik, haur eta gazteen sozializazioari zuzenean loturiko fenomenotzat hartu beharko genuke euskara-gaitasun erlatiboaren kontu hau ere. Sozializatorako esparruetan garrantzitsua da, noski, eskola, baina ez da bakarra, eta adinean aurrera egin ahala are mugatuagoa da bere eragina. Eta eskolan (edo agian hobeto esanda legoke hezkuntzan) garrantzizkoa da, noski, irakas-hizkuntza, baina garrantzitsua da, halaber, ikasgelaz kanpoko eskola munduko jardueren hizkuntza, adinean aurrera egin ahala are erabakigarriagoa. Abiapuntu horien argitan finkatu behar dira lehentasunak.

Belaunaldi gazte elebidunen –kasu gehienetan euskaldun berriak diren horien– esku legoke beren seme-alabei familian euskara, edo euskara ere, lehen hizkuntza gisa transmititzeko joera indartzea. Eskolako euskararen transmisioa indartzeko arreta jarri beharko genuke irakasleen euskara gaitasun komunikatiboa hobetzean, eta eskola-inguruneko jarduera ez akademikoetan, horrek guztiak zuzeneko eragina izan baitezake haur eta gazteen euskara gaitasun erlatiboan.

Helduei dagokienez, berriz, herritar elebidunez osaturiko gizartea jomugan jarrita, euskararen gaineko adostasunaren oinarri nagusietarikoa izango baldin bada “denek euskara gutxienez ulertu, gero bakoitzak nahi duen hizkuntza ofiziala erabili ahal izan dezan”, indarra egin behar da euskararen ezagutza gutxienez hartzailea edo pasiboa ahalik eta gehien orokortzeko, eta gutxienerako maila baterainoko ikas-prozesua aprobeixamendu akademikoaren arabera doakoa izatera hurbiltzea eragingarria izango litzateke ibilbide horretan.

- **Motibazioa**

Euskararen sustapenean eraginkorrak izateko, lehen mailako arreta eskatzen duen gorabehera da motibazioarena, beste hitzetan esanda euskararekiko jarrera, atxikimendua, hizkuntza kontzientzia, hizkuntzarekiko leialtasuna eta identifikazioa, gogoia. Faktore objektiboek ez ezik, subjektiboek ere erabileran modu erabakigarrian eragiten dute. Faktore subjektiboek buruz, ordea, gutxiago dakigu faktore objektiboek

6. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

buruz baino, eta uste dugu ematen zaien baino garrantzi handiagoa eman beharko zaiela datozen urteotan.

Euskarak behar duen aldaketa soziala gauzatzen jarraitzeko, aldaketa estrukturala ez ezik, pertsonen / gizabanakoen aldaketa behar dela uste dugu. Hizkuntza bera ez baizik eta herritarrak baitira hizkuntza auziaren protagonistak, euskararekiko urrun eta uzkur daudenetatik euskaltzale praktikante suharretaraino daudenak, denak, dira kontuan hartzekoak.

Hizkuntz erabileran motore dira motibazioak, eta motore da adostasun sozial eta politikoa zabala. Nork bere lekutik hori elikatzea denon egitekoa dela uste dugu.

Herritarren hizkuntzarekiko atxikimendua, bada, elikatu egin behar da eta euskararen aldeko sentiberatze lana etengabe egin, arlo eta mota guztietako lidergoen eta portaera eredugarrien zabalkundea tarteko. Sentiberatze lan horretan, jakina, kontuan hartu behar dira euskal hiztunak –euskaldunen ahalduntzea eta jabeakuntza helburu–, euskaldun berriak, euskaldun hartzaileak, elebakar izan arren euskararen munduak gertu dituzten herritarrak eta oraindik euskara urrun sentitzen duten herritarrak. Betiere, gazteak lehenetsiz, etorkizuneko gizartean modu bateko edo besteko lidergoa izango dutenak alegia, jada azaldu diren arrazoiengatik.